2018-03-23 EGUBAKOITZA / 766. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.




## Musika ardatz, Beratu jaialdia Oñatin

Mahai-ingurua, askotariko kontzertuak, topaketak edota tailerrak asteburuan / 40

Beratu jaialdia antolatzen diharduten Oñatiko hainbat eragile, gaztelekuan.

XABI URZELAI

# Mendizale bergarar bat hil da Lleidan



Iñaki Perez de Arenazaren heriotzak mina ekarri du Bergarako mendizaleen artera; elur-jausi baten ondorioz zendu da / 2

**SINADURAK**

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR / 8
ANDRES OSA 'SAKONA' / 25
ITSASO ERRETOLATZA / 12
AINHOA NEGERUELA / 35
ANDERE ARRIOLABENGOA / 16
IDOIA ETXEBERRIA / 48

**ORDU ALDAKETA**

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



**Ikusmina piztu du aurkezpenean, Aramaioko Tellamendiren gaineko liburuak** / 16

**Arrasateko Juan Artzamendi Musika Etxeko lanak apirilaren 9an hasiko dituzte** / 10




Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:

**'PUNTUA'** + **'Ikusbera' aldizkari berezia:** Martxoaren 28an.

**GOIENA** Apirilaren 13an.





Aurreko urtean jende askok esku hartu zuen hitzorduan. GOIENA

# Arantzazura erromesaldia, eta meza santua ostean

Urtero lez, asteburuan erromesaldia egingo dute Arantzazura. Biharko finkatu dute hitzordua; eta, ohi moduan, Jose Ignacio Munilla, Donostiako gotzaina, izango da bertan. Besteak beste, Lampedusako gurutzea eroango dute erromesaldian

**Iker Oñate** OÑATI

Urteroko ohiturari jarraiki, erromesaldia egingo dute Arantzazura. Bihar egingo dute ekintza, 9:00etan hasita; Soraluzeko hotelean hasiko dute oinezko bidea. Eta, ohi moduan, sona handiko eliztarrak izango dira erromesaldian. Besteak beste, Donostiako gotzain Jose Ignacio Munilla izango da ibilbidean; eta berak gidatuko du osteko meza –Arantzazuko Santutegian egingo da–. Hain zuzen ere, *Amarenean Denok Etxeko* leloa aukeratu dute biharko.

Arantzazukoa galdu ezinezko hitzordua bilakatu da eliztar askorendako. Dena den, aurtengoan ez dute jende asko espero Arantzazuko Santutegikoek: "Eguraldi kaxkarra dago iragarria. Eta, gainera, aurtengoan ez dago Iñaki [Beristain]. Bere falta sumatuko dugu, seguru. Jende asko erakartzen zuen. Beraz, zoritxarrez, ez dugu jende asko espero". Hori bai, egitasmoaren bultzatzaileak jakitun dira hitzorduaren garrantziaz. "2000. urtetik hona, urteroko hitzordu bilakatu da. Jendeak bere egina du erromesaldian parte hartzeko ohitura. Herri askotako eliztarren bilgune bilakatu da". Ohi moduan, inguruko herritako autobusak iritsiko dira Oñatira; nork bere parrokian eman beharra du horretarako izena.

Eta aurreikuspenen arabera, 12:00etan bukatuko da ibilaldia. Jose Ignacio Munillak zuzendutako meza santua egingo dute ostean. Eta hori bukatzean hasiko dute autobusek bueltako bidea.

**Lampedusako gurutzea**

Gainera, munduan zeharkatzen diharduen Lampedusako gurutzea eroango dute erromesaldian. Hain zuzen ere, Lampedusan ondoratutako txalupez eraikia dago hori. "Migratzaileen drama salatzea du helburu, eta, horrekin batera, jendearen kontzientzia astintzea bilatzen du. Europak ezin die euren herrietatik iheska dabiltzan horiei bizkarra eman. Besteak beste, hori salatu gura du gurutzeak", azaldu du Unai Manterolak, Donostiako Elizbarrutiko kideak.

Zehatz esanda, Lampedusara eginikoa izan zen Frantzisko Aita Santuaren lehen bidaia ofiziala. Eta 366 etorkin hil ziren bertan hilabete gutxi beranduago. Hori horrela, hondoratutako itsasontzi horiekin egindako gurutzea eroan zion artista batek Aita Santuari; eta munduan barrena eramateko agindua eman zuen berak –Gipuzkoan da orain–. Arantzazuko ekintza bukatuta, ostera, Bergarara eroango dute gurutzea.

**Munillaren aurkako protesta**

Modu berean, Arantzazura joateko deia egin dute Oñatiko zenbait talde feministek, Donostiako gotzainak emakumeei lotuta eginiko azken adierazpenak direla-eta. Gauzak horrela, elkarretaratzea egingo dute Arantzazuko Santutegi aurrean, *Munilla deabrua zure bila!* lelopean. 11:00etan hasiko dute protesta; eta, bertara elkarrekin joateko –kotxean–, Oñatiko Santa Marina plazan elkartu dira 8:25ean.

**Errepidea itxita**

Arantzazurako erromesaldia tarteko, bertara joateko errepidea itxiko dute 8:30ean; eta hala egongo da ibilaldia pasa bitartean. Bestetik, antolatzaileek jakinarazi dute oinez joan ezin duenarentzat ere izango dela Arantzazura igotzeko aukerarik: autobusak joango dira oinezkoen atzetik.

**MUNDUAN BARRENA DABILEN LAMPEDUSAKO GURUTZEA EROANGO DUTE ERROMESALDIAN**

## Unai Perez de Arenaza mendizale bergararra hil da

Lleidan hil da elur-jausi batek harrapatuta ikerketa biologiko baten zebiltzan beste bi lagunekin ari zela

**Eneko Azkarate** BERGARA

Unai Perez de Arenaza mendizale, eskalatzaile eta eskiatzaile bergararra hil da Katalunian, Val d'Aranen, mendian ziharduela elur-jausi batek harrapatuta. Conangles haranean gertatu zen ezbeharra, atzo, eguena, goizeko 10:00ak aldera. Generalitateko suhiltzaileek adierazi zutenez, bergararra, ikerketa biologiko bat egiten ziharduten beste bi taldekiderekin batera zegoen, gidari lanetan, hirurak elur azpian geratu zirenean. Bartzelonako Unibertsitateko ikerketa batentzako lan egitera zihoazen bitartean gertatu zen istripua. Hiruretatik bi bertan hil ziren, horien artean, Perez de Arenaza. Hirugarrena, helikopteroz Vielhako ospitalera eroan zuten, egoera larrian.

Unai Perez de Arenazak 43 urte zituen eta bi seme-alaba txikiren aita zen; 2 urteko semea, Eneko, eta bi hilabeteko alaba, Taiga. Katalunian bizi zen, Lleidako Boi Aranean. Mendia zen haren zaletasuna eta ofizioa. Cannyoning Sierra de Guara enpresako kide zen. Hain justu ere, mendiko gidari bezala aritzen zen, baita erreka eta sakanetako jaitsieretan ere.


Unai Perez de Arenaza, Paineko Dorrearen aurrean, Patagonian. POL-POL MENDIZALE TALDEA

**Shisha Pangma**

Gazte-gaztetatik mendiarekiko zaletasun handia zeukan. Pol-Pol Mendizale Taldeko kidea zen. Eskalatzen, esaterako, munduko gailurrik garai eta pareta ospetsuenetan aritu zen: Peruko Andeetan, Yosemithen, Patagonian, Himalaian…

2004an Shisha Pangma zortzimilakoa (8.013 m) egin zuen. Hain justu ere, 2005ean, saria jaso zuen espedizio horrengatik. Oriol Baro katalanarekin batera, Shisha Pangmako ipar-aurpegian bide berria ireki zuen 2004ko irailaren 27an. 1.000 metroko bidea, 60-70 gradu bitarteko malda zuena. Vall de Boi izena jarri zioten bideari, Lleidako herri horrek finantzatu zuelako espedizioa.

Handik egun gutxira, urriaren 3an, Iñaki Alvarez, Ibon Azkue eta Jesus Mari Erratzu mendizale gipuzkoarrek bide beretik zapaldu zuten Shisha Pangmako gailurra.

Mendizaleen artean nabarmendu zen eta Andres Espinosa saria jaso zuen Perez de Arenazak lorpen horrengatik, 2005ean, Tolosan egindako euskal mendizaleen galan.



Lander Arregi eta Amaia Azpiazu, eguaztenean, egitasmoaren aurkezpen prentsaurrekoan. AMAIA TXINTXURRETA

# Hondakinen gaia erroldatu berriengana gerturatuz

Hondakinen bilketari eta horren berezitasunei buruzko esku-orriak banatzen hasia da Mankomunitatea. Erroldatu berriak jo puntuan, sei hizkuntzatan dago eskuragarri. Horrez aparte, gaia hainbat elkarterekin lantzeko asmoarekin dihardute

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Ibarreko herrietako hondakinen bilketari eta horren berezitasunei buruzko informazio kanpaina berria abiatu du Debagoieneko Mankomunitateak. Hain zuzen ere, erroldatu berriak ditu jo puntuan. Hori horrela, sei hizkuntzatan eskura daitezke gaiari buruzko esku-orriak: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, urduz eta arabieraz.

"Eskualdetik kanpoko herritar berriek gaiaren bueltako informazio nahikoa eta zehatza izan dezaten bultzatu dugu egitasmoa", argitu du Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidente Lander Arregik. Gaineratu du hondakinak biltzean "arazoak" identifikatu dituztela bailarako zenbait eremutan. "Konturatu ginen horietako batzuek lotura zutela erroldatu berriak bizi diren guneekin. Eta horri irtenbidea emateko ahaleginean, heziketa kanpaina abiaraztea erabaki genuen", azaldu du.

**Arrasateko esperientzia, oinarri**

Ekinbideak Arrasateko esperientzia du oinarrian. Bada, bertako Udalak Harrera Protokoloaren baitan landu zuen egitasmoa: erroldatu berriei zuzenduriko esku-orriak banatzeko erabakia hartu zuen. Eta horretan geratu barik, bestelako bideak ere erabili dituzte jendea "kontzientziatzeko" ahaleginean.

Orain, Mankomunitateak inguruko herrietara hedatu gura du Arrasaten hasitakoa. "Horretarako urratsak zehaztea dagokigu", dio Arregik. Eta tokian tokira egokituko dituzte informazio euskarriak, herri bakoitzak bere bilketa sistema duelarik. "Esku-orrien kasuan, esaterako, bi eredu ditugu: edukiontzi bidezko bilketa dutenendako, bata; eta atez-ateko sisteman murgildurik dihardutenendako, bestea", argitu dute.

**HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO ESKU-ORRIAK LANDU DITUZTE, SEI HIZKUNTZATAN**

**Elkarteekin elkarlana**

Eta, esan moduan, esku-orriak banatzera mugatu barik, bestelako bideak erabilik gura dituzte egitasmoaren bultzatzaileek. Hainbaten artean, herriko jardun gune ezberdinetara jo gura lukete, hondakinen gaia bera "sakonago" lantzeko; elkarlanean egingo lukete hori.

Bada, Arrasaten hasiak dira horretan. "Ikusi genuen polita izango litzatekeela gaia erroldatu berrien elkarguneetan lantzea. Bide horretan, Helduen Eskolara jo genuen, gaztelania ikasten ari direnengana", argitu du Azpiazuk. Eta, horrez aparte, beste zenbait esparrutan ere jardun dute elkarlanean: "Besteak beste, emakume musulmanen elkartearekin eta Saharaldebakoekin dihardugu gaia lantzen".

## 'JarriOn' eta 'Go!azen' aplikazioak aurkeztu dituzte

Euskarazko ikus-entzunezkoen sormena sustatu guran sortutako *2deo* egitasmoak lehen fruituak eman ditu: *JarriOn* eta *Go!azen* aplikazioak. Martitzenean aurkeztu zituzten. Eta eskuragarri daude jada.

Besteak beste, euskarazko ikus-entzunezkoak batzen ditu *JarriOn* aplikazioak. Hain zuzen ere, poltsikoko telefonoa eta telebista lotzeko sorturiko tresna da, ikus-entzunezkoen kontsumo eredu berrietara egokituz –bideoak nahieran ikusteko aukera eskaintzen du–. Esate baterako, Goiena telebistako ikus-entzunezkoak ikus daitezke, chromecast irakurgailu multimedia erabilita.

Bestetik, *Go!azen* aplikazioa ere aurkeztu dute. Eta EITBko zuzendari Maite Iturbe "harro" azaldu da aplikazioak izaniko harrerarekin. "25.000 jaitsiera izan ditu dagoeneko", dio.

## Aberri Eguna ospatzeko ekintzak, apirilaren 1ean

Aurtengoan, apirilaren 1ean izango da Aberri Eguna. Alderdi eta erakunde bakoitzak bere egitaraua prestatu du egunerako. Zehazki, Independentistak sareak, EAJk eta Ahal Duguk antolatu dituzte ekitaldiak.

Bada, Independentistak sareak Iruñean ospatuko du Aberri Eguna.12:00etan hasiko dute ekintza, Sarasate pasealekuan. Horretarako autobusak antolatu dituzte Oñatin eta Bergaran: Arrano tabernetan eta Bergarako Pol-Polen eman daiteke izena.

Bestetik, EAJk Bilboko plaza nagusian egingo du Aberri Eguneko ekitaldi nagusia. 11:30erako finkatu dute hitzordua; eta bazkaria antolatu dute horren osterako.

Eta Ahal Duguk ere izango du ekitaldirik egun horretan, baina oraindik ez dute horren bueltakorik jakinarazi. Datorren astean aurkeztuko dute egitaraua.





**Urkuluko urtegia %100 bete zen otsailean.** ARTEMAN

# Negurik euritsuena izan da 1928. urteaz geroztik

Abendua, urtarrila eta otsaila aintzat hartuta, 821 litro metro karratuko erregistratu dira Aemet agentziak Igeldon duen behatokian; Margarita Martin Aemeteko kideak azaldu duenez, neurketak egiten hasi zirenetik ez da horrelako daturik erregistratu

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA
Euri asko egin du aurtengo neguan, eta datu esanguratsu bat utzi digu. Aemet agentzia 1928. urtean neurketak egiten hasi zenetik ez dira inoiz hiru hilabete horietan 821 litro jaso. Errekorra 1930eko abenduan, eta 1931ko urtarrilean eta otsailean zegoen –812 litro metro karratu erregistratu ziren–.

Negu astronomikoa kontuan hartuta, urtarrila, otsaila eta martxoa oso hezeak izan dira. Igeldoko behatokian 681,4 litro metro karratuko erregistratu dira –384 da bataz bestekoa–; Loiukoan 615 litro –334 da bataz bestekoa– eta Forondan 297 litro –228 da bataz bestekoa–. "Bizkaian eta Gipuzkoan ohikoa baino ia %50 litro gehiago bota ditu hiru hilabete hauetan, eta Araban, %35", azaldu du Martinek.

Nekazari urteari erreparatuta, irailaren 1etik martxoaren 19ra 1.345 litro metro karratu erregistratu dira Igeldon –bataz bestekoa 1.010 dira–; Loiun 1.191 litro –815 da bataz bestekoa– eta Forondan 518 litro –497 da bataz bestekoa–.

Temperaturei dagokienez, urtarrilean, otsailean eta martxoan, 8,7 graduko bataz bestekoa izan da. "Oso ohikoa da hori. Hala ere, hilabetez hilabete aztertuz gero, gauzak aldatu egiten dira. Urtarrila beroa izan da –ohikoa baino 1,5 gradu beroagoa–, otsaila oso hotza izan da –ohikoa baino 2,5 gradu hotzagoa– eta martxoa, –18ra arte kontuan hartuta, 0,6 gradu beroagoa–. Oraingoz, beroagoa izaten ari da, baina ohiko ohiko zenbakietan bukatuko da martxoa, azken egun hauetako tenperaturak baxuak izan dira eta", azpimarratu du Martinek.

**1930-1931AN ZEGOEN ERREKORRA, 812 LITRO METRO KARRATUKO BATU ZIREN IGELDON**

### Aste Santurako iragarpena

Iragarpena ere egin du Martinek: "Gaur arratsalde-ilunkara partean ziklogenesi esplosibo bat etorriko da gurera. Haizea iparmendebaldera aldatuko da bortizki, eta horrek, zaparradak eta haize bolada gogorrak eragingo ditu gau osoan. Zapatuan eta domekan euria egiten jarraituko du, eta tenperaturak hotzak izango dira garai hauetarako. Domeka iluntzerako atertu egingo du, eta tenperaturek ere pixkanaka gora egingo dute. Astelehenean zirimiria egingo du, baina tenperatura atseginagoekin, 15-16 gradurekin gehienez. Martitzenean atertzera egingo du, eta ostarteak edukiko ditugu, 16-17 gradurekin. Eguaztenean, eguenean, eta egubakoitzean goi hodeiak edukiko ditugu, baina euri askorik ez dugu espero. Hegoaldeko haizea edukiko dugu eta tenperaturak epelak izango dira. Egubakoitz arratsaldetik aurrera, eguraldia ezegonkortu egingo da berriz".

# Txatxilipurdiren udalekuetarako izen-ematea zabalik dago

Foru Aldundiaren udalekuetan ere eman daiteke izena, baita UEMAk lehenengoz antolatu dituenetan ere

**E.A.** DEBAGOIENA
Txatxilipurdiren udalekuei dagokienez, itxiak eta irekiak egongo dira. Izen-ematea maiatzaren 18ra arte egongo da zabalik, Txatxilipurdira gerturatuta edo euren webgunean horretarako propio dagoen atalean.

Itxietan, hainbat egunez kanpora joateko aukera izango dute haur eta gaztetxoek: Goizuetako, Orioko eta Ozaetako aterpetxeez gain, udaleku ibiltari bat egiteko aukera ere izango dute, 12 egunetako abenturan murgilduta, Araban hasi eta Gipuzkoako kostaldera arte. 2002 eta 2003 urte bitartean jaiotako neska-mutikoek izango dute izena emateko aukera, eta 115 lagunendako lekua izango da udaleku hauetan.

Izen-ematea 300 eurokoa da guztietan –familia ugariei deskontua aplikatuko diete–.

Udaleku irekiei dagokienez, uztailaren 2tik 20ra bitartean izango dira, plazak mugagabeak, eta hiru taldetan banatuko dituzte haurrak: *Bilin-bolonka beibilekua*: 2-6 urtekoak –2012 eta 2015 artean jaiotakoak–; *Bihurrikeixetan 1*: 6-8 urtekoak –2009 eta 2011 artean jaiotakoak–; *Bihurrikeixetan 2*: 9-12 urtekoak –2006 eta 2008 artean jaiotakoak–.

Horrez gain, astez aste izena emateko aukera ere izango dute adin talde guztietako haurrek: uztailaren 2tik 6ra; 9tik 13ra eta 16tik 20ra.

Bestalde, hezitzaileentzako deialdia apirilaren 9an irekiko da, 27ra arte. Informazio gehiago *Txatxilipurdi.com* webgunean izango dute interesatuek.

### Foru Aldundiarenak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren udalekuak 7 eta 13 urte bitartekoei zuzendutakoak dira –2005-2011 urte bitartean jaiotakoak–, eta aurretiko izen-ematea martxoaren 26ra arte dago zabalik. Hiru bide daude horretarako: *gipuzkoangazte.eus/udalekuak* webgunean, Udako Programen bulegoan –Donostia– edo kanpainan parte hartzen duten udal bulegoetan: Aretxabaleta –943 71 18 62–, Arrasate – 943 25 20 65–, Bergara –943 77 91 60–, Eskoriatza –943 71 46 88– eta Oñati –943 71 82 57–.

Zozketa apirilaren 10ean egingo da, eta behin-betiko izenematea apirilaren 12tik 23ra.

### UEMArenak

Uztailaren 10etik 17ra izango da "udalerri euskaldunetan" bizi diren 15 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako egonaldia, Zestoako Sastarrain aterpetxean. 50 lagunendako lekua dute eta izena emateko bi bide daude: *hezkuntza@uema.eus* helbidera idatzita edota 943 81 66 99 telefonora deituta –astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 15:00etara–. Maiatzaren 9ra arte egongo da zabalik izen-ematea eta 249 euro ordaindu beharko du gazte bakoitzak.

Antzuola, Aramaio, Bergara, Elgeta eta Oñati daude UEMAn.

## Erraustegiaren aurka azaldu dira zenbait langile ordezkari

Debagoieneko hainbat enpresetako batzordek, tartean Elay, Recyde Elgeta, Txintxurreta, Auzolagun, Geslagun eta Garaykoek, Zubietako erraustegia gelditzeko eskatu dute, alternatibarik badela aldarrikatuz. Horren guztiaren gainean hitz egin zuten atzo Donostian eginiko jardunaldian. ELA, LAB, STEILAS eta ESK sindikatuek bat egin dute ekimenarekin. ELAk Goienari helarazitako esku-orriak dio "Gipuzkoako jendarteak dituen benetako beharrei erantzuteko behar diren ehunka milioi euro guztiz kaltegarria den azpiegitura hau eraikitzeko" erabiliko dituela Aldundiak, eta hori "onartezina" dela azpimarratu du. Horrez gain, esku-orriak dio "beharrezko ez" izateaz gain, erraustegiak hainbat "kalte" eragiten dituela, "arlo ekonomikoan, osasunean eta ingurumenean".

# Turismo eskaintza anitza gurean Aste Santurako

Badirudi eguraldiak ez duela guztiz lagunduko, baina ez da eskaintzarik faltako egun horietarako; Bergaran NanoGunek koordinatutako jardunaldiez gozatzeko aukera izango da eta Oñatin, Elgetan eta Leintz Gatzagan zenbait bisita gidatu egingo dituzte

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Bergaran, gaur 18:00etan aurkeztuko dute NanoGunek koordinatzen duen Nanozientziako eta Nanoteknologiako Jaialdi Nazionala: *10ALaMenos9*.

Aurkezpenaren ostean, *Ibilaldi bat nano-munduan barrena* erakusketa irekiko dute eta bisita gidatu bat eskainiko du Luis Huesok, Ikerbasqueko ikertzaileak. Erakusketa honetan nanozientzia eta nanoteknologiako egileak, lanak eta tresnak egongo dira ikusgai maiatzaren 6ra arte. Zabalik egongo da eguazten eta eguenetan 10:00etatik 14:00etara; egubakoitz eta zapatutan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta domekatan 10:00etatik 13:00etara. Bestalde, bisita gidatuak ere egongo dira: martxoaren 30ean, 17:00etan; martxoaren 31n, 17:00etan; apirilaren 6an, 18:00etan; apirilaren 13an, 18:00etan; apirilaren 15ean, 11:30ean; apirilaren 28an, 17:00etan eta maiatzaren 5ean, 17:00etan.


Gaur irekiko dute Ibilaldi bat nanomunduan barrena erakusketa. BERGARAKO UDALA

Horrez gain, apirilaren 9an eta 13an bi orduko eskola tailerrak egongo dira museoan, nanoteknologiaren eta nanozientziaren hastapenak bideratzea helburu dutenak. Aranzadi Ikastolako eta Ipintza ikastetxeko Batxilergoko lehenengo mailako 120 ikaslek hartuko dute parte tailer horietan.

Hilaren 12an, bi hitzaldi egongo dira: *Mikroelektronikatik nanoelektronikara: Gailu txikien iraultza* –Edurne Sagasta– eta *Antzinako proteinak berpizten* – Nerea Barruetabeña–, 19:00etan.

Ohiko bisitak ere egongo dira Laboratorium museoan, egunero 11:00etan eta 12:30ean.

**Oñati**

Hainbat bisita gidatu egongo dira: Arrikrutzeko kobetan egunero martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte, 13:00etan eta 17:00etan. Parte hartzeko aurrez erreserba egitea beharrezkoa da, 943 08 20 00 telefonora deituta; herrigunean, bost egun horietan *Gure Altxorrak* izeneko bisita gidatua egingo du Turismo Bulegoak, Oñatiren historia eta ondare artistikoa ezagutzeko; Txokolateixan, 12:00etan, bost egun horietan; Arantzazuko santutegian egunero –11:30ean, 12:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan– eta parketxean ere bai, 11:00etan; Gomiztegin Aste Santuko eta Pazko Asteko zapatuetan, 10:00etan. 943 25 10 08 telefono zenbakira deitu beharko da izena emateko; Pottokalekun Europako pottoka zaharrena ezagutzeko aukera izango da. Erreserba egiteko 670 274 461 zenbakira deitu.

**Leintz Gatzaga eta Elgeta**

Gatz museoan martxoaren 29tik apirilaren 2ra, bisita gidatuak egingo dituzte. 12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gaztelaniaz.

Apirilaren 1ean, 10:00etan, Intxortako lubakietara egingo dute bisita. Izena emateko, 943 79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus* helbidera idatzita.




Goiena telebista inoiz baino eskurago
CHROMECAST BIDEZ
Chrome nabigatzailetik sartu eta goiena.eus/telebista loturan bilatutako saioak telebistara bidali ahal izango dituzu chromecast gailuarekin.
NAHIERAN
Goiena Nahieran aplikazioa jeitsi (iOS eta Android) eta mugikorrean edo tabletean Goiena telebistako saioak nahieran ikusi ahal izango dituzu.
BETIKO ERAN
LTD bidez 52. kanalean topatuko duzu Goiena telebista eta baita Euskalteleko kable bidez ere.
www
GOIENA.EUS WEB-GUNEAN
Goiena.eus/telebista loturan dituzu ikusgai Goiena telebistako saio guztiak.
ZUZENEAN
ZUZENEAN
STREAMMING BIDEZ
Goiena.eus/telebista loturan duzu klikagarria. Goiena telebista zuzenean edozein gailutatik ikusi ahal izateko.
goiena
Zu hemen zaude.

## Baso jardunaldien gaineko balorazioa

**ANDER SANTIAGO**
ARRASATEKO EKOLOGISTAK MARTXAN
ARRASATE

Orain dela gutxi, *Baso* jardunaldiak egin dituzte Arrasaten, eta oso aberasgarriak izan dira, gure asmoa ikastea eta egoera aztertzea zelako, baina, gure iritziz, hutsune batzuk egon dira. Zergatik esaten dut hori? Ba, hizlarien artean ez zegoelako ekologistarik, ez genuelako kritika-iritzi bat entzuteko aukerarik izan. Gai horretaz ekologistok badaukagu zerbait esateko, eta, nola ez, elkarrengandik ikasteko. Gonbidapena jaso eta gero, pentsatu genuen *kolore* desberdinetako pertsonak egongo ginela, ikuspuntu desberdinak entzuteko; zoritxarrez, hori ez zen gertatu.

Hasteko, onartu behar dugu natura guztion ondarea dela. Esaldi hori defendatzeko, Europan dagoen lege bat aipatu nahi dut; lege horrek galdera baten bidez azaltzen du bere mamia:
*Nortzuek kudeatu beharko lituzkete basoak? Jabeek ala herri erakunde independenteek?*

Jardunaldi horietan, batez ere, hiru hitz hauek asetasuneraino entzun ditugu: *kudeaketa, jasangarria* eta *errentagarria.* Baina gehien entzun duguna errentagarria izan da; beraz, negozio bati buruz ari bagara, eta, zalantzarik gabe, mendi industrializatuari buruz ari gara, bere ondorioa ekar dezakeena, diruari lehentasuna emanda naturari baino gehiago.

Mario Adan de Yarzak, 1870ean, *Pinu radiata edo Insignis* ekarri zuen Amerikatik; hau da, orain dela 150 urtetik hona dago gure artean. Zein baso mota dauzkagu? Adituen esanetan, honela daude banatuta, bi talde erraldoitan: %50 zuhaitz hostoerorkorrak eta %50 koniferak dira, baina %50 horretatik %47 *Pinu radiata* da; hori oreka da? Ehuneko horrek zer esaten digu?

Oraingoz, zehatz-mehatz ez dakigu zuhaitz mota horrek ze kalte sor dezakeen edo sortzen ari den; datu batzuek ez dute engainatzen: gaixotasunak, lurraren desnutrizioa, garratza, higadura, eta abar.

Hala eta guztiz ere, naturaren gainean hodei beltzak daude; dirudienez, gizalegerik gabekoek eukaliptoak landatzea hautatzen dute. Diruzaleak beti ibiltzen dira errentagarria bilatzen.

## Pausoz pauso

**XABIER ZABALA SAGASTA**
ARRASATE

Kaixo!

Xabier Zabala Sagasta naiz, 26 urteko arrasatearra, eta jaiotzean Retraso Psicomotriz Connatal izeneko gaixotasuna diagnostikatu zidaten.

Oinarrizko ikasketak Arizmendi Ikastolan egin nituen, egokitzapen kurrikularrarekin. Ondoren, 16 urtetik 20 urtera arte, Arrasateko Institutuan aritu nintzen, Zereginen Ikaskuntza Gelan (ZIG), eta bertan ezagutu nituen gaur egun nire lagunik onenak direnak.

Lan formakuntza, berriz, Gureak-en egin nuen, plan pertsonalizatu baten bidez; hainbat lanpostutan aritu izan naiz, autonomia lortu, erantzukizunak nire gain hartu eta beste pertsona batzuekiko komunikazioa hobetzeko asmoz. Hau guztia hainbat departamenturen eta pertsona askoren inplikazioari esker lortu ahal izan dut eta bihotzez eskertu nahi nuke bidean aurkitu ditudan pertsona eta erakunde guztien laguntza eta inplikazioa.

Arrasateko Helduentzako Hezkuntza Eskolako irakasleei ere nire esker ona adierazi nahi diet; nire autoestimua indartzen lagundu zidaten eta bi urtean Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu nuen.

Horrela, bada, nire eskerrik beroena helarazi nahi diet guztiei; izan ere, gaur egun, apal-betetzaile lanean ari naiz Arrasateko BM supermerkatuan. Baloratua sentitzen naiz, soldata duina irabazten dut eta kontratu mugagabea izatea lortu dut. Hau guztia, nire eta aipatu ditudan pertsonen eta erakundeen lanari esker.

Pausoz pauso, nire helburuak egia bihurtzea lortu dut.

Besarkada handi bat denontzat.

## Lagunak beti lagun

**AITOR ANTXIA ALBERDI**
JON ANTXIA ALBERDIREN SENIDEEN IZENEAN
ARETXABALETA

25 urte bete dira Jon (lagunendako Anboto) gure ondotik joan zenetik. 25 urte joan dira dagoeneko, baina inork ez dugu ahaztu Jon, ez etxekook, ezta lagunek ere.

25 urteotan, urtero-urtero izan dute gogoan, eta haren urtebetetze egunaren bueltan (otsailaren 22a) lagunek beti antolatu izan dute zerbait; gehienetan irteera bat –Anboto mendira, sarritan– eta ondoren, bazkaltzeko elkartu.

Urteurren berezia izanik aurten, ospakizun berezia egin gura izan dute, eta etxekook ere gonbidatu gintuzten. 25 urteotako ekitaldien argazkiak ikusi genituen lehenengo, elkarrekin, eta ondoren, Iturrigorri pilotalekura jo genuen. Txistularien doinuei jarraituta bi lagunek aurreskua dantzatu ziguten, Jonen omenezko txapela aurrean zela, *Lagunak beti lagun* leloaren bueltan. Une hunkigarria izan zen guztiondako, berba bakar batzuekin azaltzeko benetan zaila. Muru Alde elkartean bazkaldu genuen gero; 50 bat lagun elkartu ginen. Eta ospakizunak luze jo zuen. Abestu egin genuen, dantzan, barre egin genuen eta negar.

Eta horregatik guztiagatik, eskerrik asko. Eskerrik asko 25 urteotan, urtero-urtero, Jonekin akordatu izanagatik. Eskerrik asko, gu ere zuen artera gonbidatzeagatik aurten. Eskerrik asko, lagunak beti lagun direla erakusteagatik. Eskerrik asko Jon gure artean dagoela sentiarazteagatik.

## 75 urte, liburu ederrean

**MARTIN IRAZABAL**
EIBARREN BIZI DEN BERGARARRA
EIBAR

Esku artean daukat Pol-Polen 75 urteak laburbiltzen dituen liburua. Argitara eta aurkeztu berria. Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzitako *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat, 1942-2017*. Lehen orritik bukaeraraino, interesgarria eta ederra. Informazio asko, testuz eta argazkiz; oso ondo dokumentatuta. Urteetako lanaren emaitza bikaina.

Pol-Pol Mendizale Taldea erreferentziazko elkartea izan da Bergaran, eta baita lurraldeko mendizale taldeen artean ere. Bergaran, mendizale elkarte bat baino askoz ere gehiago izan da eta hori erakusten du liburuak argi eta garbi. Hamarkadaz hamarkada, belaunaldiz belaunaldi, sasoian sasoiko gizartearen isla eta erretratu izan delako, liburuan ikus eta irakur daitekeen moduan.

Ehunka bergarar igaro dira bertatik; neska eta mutil. Gaur egun ohikoa da, baina sasoi baten ez zen horren arrunta gizonezko eta emakumezkoak elkarrekin kirolean ikustea. Ez hori bakarrik: kirola egin, mendian ibili eta aisialdiaz gozatzeko ez ezik, eta batez ere, herria batu, sozializatu, eta balio batzuk garatu eta gorde ditu Pol-Polek.

Oraingoz, liburuari gainbegiratua emateko astia izan dut bakarrik. Sekulako inpresioa eman dit. Lehen begiratuan, argazkiei bakarrik erreparatuta, berehala antzematen da elkartearen eta Bergarako gizartearen bilakaera. Aste Santuko oporretan astia hartu ahal izango dut goitik behera irakurtzeko.

Eskerrik asko, Pol-Pol; eskerrik asko, Miguel Angel. Opari ederra egin diozue Bergarari; opari ederra, 75 urteotan, uneren baten, Pol-Polek antolatutako ehunka jardueratan parte hartzeko aukera izan dugunoi. Eta ez gara gutxi.

## EAJren ardura ere bada

**SUSANA ALTUNA UGARTE**
OÑATIKO ONGIZATE ZINEGOTZIA
OÑATI

Joan den astean orrialde hauetan Lourdes Idoiagak sinatzen zuen gutunak Pentsio Sistema Publikoaren egoera larriaren ardura Espainiako gobernu ezberdinen bizkar jartzen zuen. Ez gara gu izango Espainiako gobernu ezberdinak izan duten arduratik libratuko dituena, eta guk ere arduradun nagusitzat jotzen ditugu.

Dena den, pentsioen aurkako erasoak ez dira estatu mailako alderdietara soilik mugatzen. Ezin baitugu ahaztu EAJren papera eta ardura, estatuko aurrekontuetan PPren aliatua izan baita. Aurrekontu horiek pentsiodunak borrokarako prest jarri dituen %0,25eko igoera barne hartzen dute eta EAJren babesik gabe ezin izango ziren onartu.

Gogoratu behar dugu, gainera, pentsiodunen elkarteek Eusko Legebiltzarrean 85.000 sinaduren bermearekin aurkeztu zuten legegintzako herri-ekimenaren aurka bozkatu zutela EAJk eta PSEk. Horrenbestez, egun Eusko Jaurlaritza kudeatzen dutenek ere badute ardura gertatzen ari den honetan.

EAJri gogorarazi nahi diogu Lakuak ez duela zertan itxaron ea arazoa Madrilen konpontzen duten, EAJk ahalmena eta eskumena baitu Eusko Jaurlaritzatik pentsioak osatzeko, gutxieneko pentsio duin bat ezartzetik hasi eta, hala, jasotzen diren muntak handituz.

Urkullu ezin da Rajoyren atzean ezkutatu eta bere erantzukizunari heldu behar dio. Zeregin horretan EAJk bidelagun izango du EH Bildu, eta, hori horrela, proposamen zehatzak egin ditugu Eusko Legebiltzarrean Jaurlaritzak pentsio txikiak osatzeko dituen eskuduntzak baliatu ditzan.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## ZABALIK



**MAIDER AZKARRAGA-URIZAR**

# Basque herria

Duela astebete inguru *Berria*-n irakurri nuen euskarazko kultur kontsumoari buruzko ikerketa bat aurkeztu zuela Elkar fundazioak; honako hau izan zen titular nagusia: *Euskaldun gehienek ez dute euskarazko kultura kontsumitzen*.

Egia esanda, ez zaizkit datuak horren harrigarriak egin, baina hona hemen datu batzuk: papereko euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura bost euskaldunetik batek du, eta hiru aldiz gehiago dira erdal prentsara jotzen dutenak. Telebistari dagokionez, %42k ikusten dute euskarazko telebista. Euskarazko liburuen kontsumoa euskal herritar guztien kontsumoarekin alderatuta, %6koa da; bai, euskaldunok erdaraz irakurtzen dugu, hiru aldiz gehiago!

Ez irakurtzeko arrazoiei buruz galdetutakoan, gainera, erraztasunik edo ohiturarik eza dela erantzun dute, baita gustuko liburik ez dutela topatu ere.

**EZ DAKIT KONPLEXUZ BETETA GAUDEN ORAINDIK EDO HIZKUNTZAN OTE DUGUN ARAZOA**

Musikari dagokionez, euskaldunen herenera ez da iristen euskarazko diskoak erosten dituztenen ehunekoa.

Horri begiratuta ez dakit zer pentsatu. Ez dakit konplexuz beteta gauden oraindik edo hizkuntzan ote dugun arazoa, eta ez dakit, ezta ere, bietatik zein den gogorragoa.

Badakit gehitutako BEZak ere ez duela larregi laguntzen, baina pentsatzen dut badela alor bat inbertitu behar duguna, guk gurea kontsumitu ezean, beste inork ez baitu egingo. Eta esango digute bestela, berriz ere, baserriko hizkuntza dela, EITB jarri eta gogoraraziko dizute Basque Country dela gurea, ez Euskal Herria: Itzulia Basque Country izango dela, Basque Culinary Center-en ikasiko dutela ikasleek eta MTV sariak Bilbao Exhibition Centre-n emango direla. Dena oso Basque; ez horrenbeste, euskaldun.

Horrelakoak egitearen azpian dago herritarrok jasotzen dugun kultura, eta honek gidatuko du atzetik datorren guztia. Beraz, saiatu gaitezen gurea dena ere kontsumitzen, *gure buruaren kontra, gure munduaren alde*.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Stephen Hawking eta Eusko Labeldun esklaboak

**AXIER LOPEZ**
ARGIA.EUS

Jane Wildek 19 urte zituela ezagutu zuen Stephen Hawking. Ordurako bi urteko bizi-itxaropena diagnostikatu zioten Hawkingi. Halere, Wildek 25 urtez zaindu zituen zientzialaria eta elkarrekin izan zituzten hiru umeak. Gizona XX. mendeko astrofisikorik ezagunena bilakatu zen eta emakumea haren lehen emazte. Sare sozialetan bolo-bolo ibili den testu batean Roy Galán idazle galiziarrak ez du zalantzarako tarterik uzten: "Hawkingek izan zuen gaixotasun larria bere emazteak eduki izan balu, emaztea beste emakume batek zaindu beharko zuen". [...]

Beraz, ekonomikoki zerk egiten ditu posible 24 orduko zaintzak? Gakoa emakume migratuek beraiek emango digute: esklabotza. Zumaiako Malen Etxearen *Errealitatea eraldatu, lan berdinak denontzat* txostenak esklabotza erabiltzen du etxe barruko emakumeen egoera definitzeko, baita galdera lazgarriak luzatu ere: irudika dezakegu emakume heldu batentzat zer den denerako baimena eskatu behar izatea? Sartu, atera edo jan egiteko? Aisialdirako denborarik gabe bizitzea? Eta hori guztia inolako lan eskubiderik gabe (8 orduko lanaldia, oporrak, bajak, egun libreak…) eta gehienetan lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez den ordainaren truke.

Zainduak izateko beharra dugunean, urrunetik ekarritako emakume baten beharra dugu. Euskal Herrian eskaintzen dizkiegun baldintza *esklabo jatorrak* onartzeko beste aukerarik ez duten bakarrak direlako. Baina egoeraren gordina ikusita, zergatik ez da arrabotsik sortzen administrazio publikoak lanbidea duindu dezan? Bada, antza, ez dugulako ikusi nahi, gizarte gisa zatartzen gaituen ispilua da. Agian horregatik dio mugimendu feministak, prostituzioarekin batera zaintza dela emakumeen ikusezintasunaren adibiderik gordinena.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Unibertsitatean berdintasun planak sustatu nahi ditugu"

**AINHOA LARRAÑAGA** MU-KO BERDINTASUN BATZORDEKO KIDEA

**Eneko Azkarate** ARRASATE

Europako ikerketa-erakundeetan genero berdintasuna bultzatzeko proiektu batean lanean dabiltza Mondragon Unibertsitatea eta Elhuyar. Ainhoa Larrañaga da MUko ordezkaria proiektuan.

**2016an abiatu zen Plotina proiektua eta 2020an amaituko da. Zein da helburua?**

Emakume ikerlarien profila sustatzea. Errealitatea da emakumeok egiten ditugula unibertsitate ikasketak, dotore tesiak…, eta gizonezkoak baino gehiago izaten garela. Baina, aurrera egin ahala, emakume askok abandonatu egiten dutela. Hasi bai, baina emakume gutxi iristen dira ikerketa ibilbide horretako amaierara. Unibertsitate esparruan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea eta horretarako erremintak zehaztea da helburua.

**Errealitate hori egiaztatu duzue Plotina proiektuan ere?**



Ainhoa Larrañaga MUko ordezkaria Plotina proiektuan. ENEKO AZKARATE

Iristen da une bat non emakumeak ama izatea erabakitzen duen eta hasten da lan jarduna murrizten, eta ibilbide profesional horretatik desagertzen. Horretaz gain, emakumezkook, sarri, ez dugu geure burua ikusten gizonen pare ardura postuetan egoteko. Gizonezkoek autoestimu handiagoa erakusten dute beren burua ardura postuetarako prestatuta ikusteko orduan.

**Unibertsitate edo ikerkuntza sistemak berak zer saritzen du?**

Lehiakortasuna bultzatzen du eta hierarkikoa da erabat… Egiaztatu izan dugu tesiak ebaluatzen dituztenak edo aldizkari espezializatu zientifikoetako argitalpenak ebaluatzen dituztenak, gizonezkoak direla kasu gehienetan. Ondorioz, gizonek argitaratutako artikuluak saritzen dituzte epai-mahaikoek. Eta, horregatik, emakume askok erabakitzen du ezizenez edo gizonezko izenez sinatzea argitalpenak.

**Egoera iraultzeko, zer?**

MUn saiatuko gara hori gerta ez dadin neurriak hartzen eta bagabiltza lanean. Plotinaren helburua da proiektuan parte hartzen duten unibertsitateek datozen lau urteotan berdintasun planak inplementatzea eta sortzea tresnak Europa mailako beste unibertsitate batzuetan ere erabiltzeko.

**Unibertsitateez gaindi, beste alor batzuetan ere inplementatu ahalko dira plan horiek?**

Bai. MUren berdintasun planean bost arlo daude. Eta batzuk, kontratazio prozesuekin edo kontziliazioarekin zerikusia dutenak, edozein antolakundetan erabil daitezke.

ITURRI ONETIK

## Mondragoetar bat enpresabururik onena

Alicia Gomez Legorburu arrasatearrak, Mendaroko Desarrollos Mecanicos de Precision (DPM) enpresako zuzendari nagusiak, Aspegi saria jaso du. Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresaburuen Elkartea da Aspegi, eta sariak emakumeak ekonomia eta enpresa arloan egiten duen lana goraipatzea du helburu. Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari zen bitartean, Lantek enpresan programatzaile lanetan hasi zuen ibilbide profesionala arrasatearrak.

ALBISTE IZAN ZEN

2002-03-23

## 'e-Debagoiena' aurkeztu zuten Leintz Gatzagan

Euskal erakunde publikoetako ordezkariak -Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako lehendakari ordea buru- eta Debagoieneko ekonomia edota hezkuntzakoak elkartu ziren Leintz Gatzagan, 2002ko martxoaren 23an, proiektu teknologiko aurreratuenen gainean "konpromisoak hartzeko". *e-Debagoiena*-k ekarri zituen inbertsioak zuntz optikoa eta kablea herrietara zabaltzeko, "Informazioaren Gizartea hedatzeko urratsak" emanez.




GOIENA

HAU BE BADOGU!

## '#PentsioDuinak' traola, erabilienetakoa



*@MonikaPlazaola*: "Pentsio duinak aldarrikatzen Gasteizen jende asko eta asko, adin guztietakoak, atera ezinean. Nazkatuta gaudelako, eskubide guztiak guztiontzat, guk gure pentsioak, aurrera!".

*@iratxee3*: "Txaloak eta elkarrekiko aitortza Eliptika Plazan. *#PentsioDuinak* herri duin baterako. Borrokatu zuten eta borrokatzen dute. Borrokatzen dugu eta borrokatuko dugu!".

*@zobaran_nagore*: "Gazte zein heldu *#PentsioDuinak* Gure nagusiekin!".

## Goitik beherako aldaketa Realean

Loren Juarros kirol zuzendaria eta Eusebio Sacristan entrenatzailea kanporatu dituzte:

*@RealSociedadEUS*: "Imanol Alguacilek lehen taldea entrenatuko du denboraldi amaiera arte #RealSociedad".

*@jotafito*: "Loren eta Eusebio Realaren iragana dira dagoeneko. Orain gozatu dezagun, hori delako realzale guztiok nahi duguna, eta jar gaitezen sailkapenean gora begira", (itzulita).

## Erraustegia gelditzeko eskaera

Zubietako erraustegia gelditzeko *#erraustegiagelditu* traola trending topic izan da aste honetan:

*@AlfonsoRios*: "Jardunaldien ostean Gipuzkoako Foru Aldundiari ez dugula errausketarik nahi esan diogu *#erraustegirikez #erraustegiagelditu*".

*@ErrausAurkMugi*: "Garrantzitsua, Europako Parlamentuak agindu du etetea zabor nahasiz elikatutako erraustegientzako diru-laguntzak".



Udaleko, LKSko eta Lurgoieneko ordezkariak, martitzenean egindako prentsa agerraldian. AMAIA TXINTXURRETA

# Musika etxea berritzeko prest

Juan Arzamendi Musika Etxea berritzeko lanak apirilaren 9an hasiko dira. Agintaldi hasieratik hainbat urrats administratibo egin behar izan ditu Udal gobernuak, baina bi urte baino gehiago pasa ostean makinak lanean hasteko moduan daude orain

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Agintaldi erdia soberan pasa da, eta Udal gobernuaren proiektu "izarra" den musika etxearen birgaitzea, laster gauzatzen hasiko da.

Udaleko agintea hartu bezain pronto hasi ziren egitasmo hau martxan jartzen, baina era honetako proiektuek bide administratibo luzea egin behar izaten dute, makinak martxan jarri aurretik.

Hainbat urrats eman behar izan dira eraikinaren zaharberritzerako. Lehenik eta behin, Udal jabetzakoa izan zedin, akordioa itxi zuen Udal gobernuak Aprendizen eraikinaren jabegoa zuen SPRI erakundearekin. 2016ko maiatzean, truke bat egitea adostu zuten bi aldeek. Hala, Arrasateko Udalak Zalduspe industriaguneko partzelaren %35 SPRIren esku utzi zuen, eta trukean, Aprendizen eraikina Udalarena izatera pasatu zen.

2016ko abuztuan LKSri esleitu zitzaion proiektuaren idazketa teknikoa, 115.555 eurorengatik. 2017ko apirilean, ordea, itxitzat eman zen eraikinarentzat izena bilatzeko prozesu parte hartzailea. 1.166 boto zenbatu zituen Udalak eta *Juan Arzamendi Musika Etxea* izenak 730en babesa jaso zuen.

Azkenik, 2018ko urtarrileko osoko bilkuran Lurgoien enpresari esleitu zitzaizkion birgaitze lanak, 5.550.012 euroren truke.

**2019 BUKAERA ETA 2020 HASIERA ARTEAN AMAITUTA EGONGO DA ERAIKIN BERRITUA**

### Orain, makinen txanda

Aste honetan bertan Juan Arzamendi Musika Etxea izango denaren inguruak ixten hasiko dira, Aste Santu ostean, apirilaren 9an, lanekin hasteko.

20 hilabete iraungo dute eraikitze lanek. "Obra zibila 2019 urte bukaera eta 2020 urte hasiera bitartean amaituko litzateke", azaldu du Udaleko Obrak eta Zerbitzuak Saileko Moises Altunak. Lanen lehen fasean, barru alde guztia hustuko dute, lau pareta handiak zutik mantenduz. Bigarren fasean, horma horien egonkortasuna handituko da eta eraikinaren barruko oinarri berria jarriko dute.

"Lana garrantzitsua eta delikatua izango da. Kontu handia izan behar dugu horma originalak ez hondatzeko", adierazi du lanak egingo dituen Lurgoien enpresako Josu Unamunok.



Hau da LKSren proiektuan agertzen den diseinua. LKS

## Eraikinari buruzko xehetasunak

Sarrera orokorra hegoaldetik izango du, errekaren beste aldetik, eta 700 metro koadroko bost solairu izango ditu: sotoa, behekoa, lehena, bigarrena, eta hirugarrena. Beheko solairuan, eraikinaren harribitxietako bat kokatu dute; 240 metro koadroko auditorioa, 174 lagunentzako lekuarekin. Esan beharra dago auditorioa publikoa izango dela, beraz, Arrasate Musikalek eta Goikobaluk ez ezik, beste edozein elkartek ere erabili ahal izango duela.

Lehenengo solairuan Arrasate Musikaleko entsegu gelak egongo dira, guztira hamabost: solfeorako bost gela, bakarka ikasteko bi gela, kanturako gela bat eta musika-tailerrerako gela bat.

Bigarren solairua Arrasate Musikalek eta Goikobaluk partekatuko dute. Abesbatzak entseguetarako lokal orokor bat izango du, hiru soketarako entsegu lokal bat eta zuzendaritza gela. Arrasate Musikalek, aldiz, Big Band taldearentzat gela, tronboi, tuba eta bonbardinorako gela bat, biolontxelo eta kontrabaxurako beste gela bat, eta balet talderako gela.

Azken solairuan administrazio gunea izango da, kristalezko kaxa formatua izango duena. Solairu horretan aire libreko terraza bat ere izango da; 150 metro koadrokoa, eta 100 lagunentzako lekuarekin. Eraikina jasangarria izango da ahalik eta energia gutxien erabiltzeko, eta SATE izeneko sistemarekin isolatuko da.

Eraikin berriak zaharraren esentzia mantentzearen alde egin dute LKSko diseinatzaileek, eta gaur egun duen forma izango du oinarrian. Horrez gain, eraikin zaharreko elementu batzuk ere bertan izango dira; sarreran zegoen San Jose eta haurraren eskultura, eta *Escuela de Aprendices* letrak.

## Arduradunen hitzak



**MOISES ALTUNA**
OBRA ETA ZERBITZU SAILA

"Inguruan dauden hamalau aparkalekuak oinezkoendako bideratuko dira. Ondoan dagoen haur parkeari ere eragingo diote birgaitze lanek; izan ere, lau edo bost hilabeteko tartean, obra hasiera garaian, haur parkea itxita egon beharko da lanak egiteko".



**DIEGO RODRIGUEZ**
LKS-KO ARKITEKTOA

"Eraikin originalak zuen esentzia mantentzen ahalegindu gara. Horretarako kanpoko fatxadak mantenduko ditugu. Hein handi batean, egingo duguna zera da: eraikina barrutik hustu, eta bertan eraikin berria sortu. Konposizioa eta paralelepipedoa mantendu egingo dira".

# 2019 arrazoi pilatzeko, bertako ekarpenen bila

Erabakitze eskubidearen alde Gure Esku Dago-k 2019 arrazoirekin osatutako herri ituna egin nahi du. Bertan arrasatearrek ekarpenak egiteko aukera izango dute, eta horiek biltze aldera herri mintegia antolatu dute zapatu goizean, Kulturaten




**Arrasateko Gure Esku Dago-ko kideak, zapatuko mintegira joateko dei egiten.** X. G.

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Aurreko astean Gure Esku Dago plataformak etorkizunean egin nahi dituen bi ekimen garrantzitsuri buruz informatzeko batzarra egin zuen Kulturaten, eta leku berean hasiko dira ekimen horietako bati forma ematen, bihar goizean.

Erabaki eskubidea gauzatzeko bidea argumentuz josteko asmoz, 2019 arrazoi pilatuko dituen Herri Ituna egitea nahi du Gure Esku Dago-k, eta arrasatearrek euren ekarpenak egiteko hitzordua dute bihar, 10:00etan, Kulturateko areto nagusian.

"Erabakitze eskubidearen aldeko arrazoiak liburuxka batean pilatzea da helburu nagusia. Arrasatearren txanda izango da biharkoa, eta herritar guztiei etortzeko dei egin nahi diegu. Ideologia guztietakoei. Zenbat eta ekarpen anitzagoak jaso, are eta hobeto guretzako", azaldu dute Arrasateko taldeko kideek.

Baina ez da biharko mintegiko helburu bakarra izango. "Beste helburu bat da, ahalik eta jende gehien erakartzea; gure arteko harremana sendotzeko. Zenbat eta esparru desberdinetako jende gehiago eduki hobeto; asko garelako, askotarikoak garelako eta horrek aberasten gaituelako".

**Bost enbor, eta arrama asko**

Biharko mintegian bost gai zentralei buruzko ekarpenak egin ahalko dira: kultura, ongizatea, herritartasuna, gure lurra eta eredu soziala.

"Hasieran hiru ziren, baina aste honetan egin dugun bileran beste bi gehitu ditugu. Beraz, bost enbor nagusi izango dira, eta horien barruan arrama ezberdinak zehaztu ditugu. Gehienbat, ideiak emateko egin beharreko ariketa errazteko".

Hauek dira, aldez aurretik zehaztu dituzten azpigaietako batzuk. Kulturaren enborrean honako arramak egongo dira: artea, euskara, hezkuntza, historia, komunikabideak, sormena eta transmisioa. Ongizatean, aldiz, honako azpigaiak daude: eredu ekonomikoa, enpresa ereduak, garapen eredua, lan-baldintzak eta sindikatuak.

Gure Lurra deituriko enborrean, honako gaiei buruz egin ahalko dira ekarpenak: basogintza, ekologia eta ingurumena. Herritartasuna atalean, aldiz, honakoak izango dira: askatasuna, elkartasuna, jasangarritasuna, Euskal Herriko eskubide eta betebeharrak eta etorkinak. "Ea, zapatuan, guztien artean ideia zaparrada jasotzen dugun".

## Josu Arkauz, Arrasaten

21 urte daramatza preso Arkauzek, baina martitzenean Arrasatera itzuli zen, aitaren heriotza dela eta.

Hileta elizkizuna astelehenean izan zen, eta ez zen bertara garaiz iritsi. Hala ere, senideekin une batez egoteko aukera izan zuen martitzenean. Hainbat herritar animoak ematera bertaratu ziren, poliziaz inguratuta zegoen Aurkauzen familiaren etxera.



KEPA ORMAETXEA



# Lur-jausiaren eraginak baretzeko, esku-hartzea

Igogailua egiteko lanen eta euri jasa handiaren eraginez, Makatzenako eskailera alboko lursaila behera etorri zen domekan. Harri lubeta jarri dute astean zehar eremua egonkortzeko, baina alboan bizi diren bizilagunak etxera itzultzeko "beldur" dira

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Domeka arratsaldean, 15:30ak aldera, Makatzena auzoko eskailera alboan dagoen lursaila behera etorri zen. Auzoan igogailua jartzeko hasi berri diren lanen ondorioz zulaketak egin dira magal horretan. Horrek, eta egun hauetan egin duen euri kopuruak lur-jausia eragin zuten.

"Bertara hurbildu ginen, Udal teknikari bat eta ni, eta ikusi genuen ez geneukala arriskurik zegoen edo ez esaterik" azaldu du Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko buru Oscar Garciak. Lur-jausia gertatu zen eremutik oso gertu, bikote bat bizi da Hondarribia kaleko 3 atarian, eta badaezpadako neurri bezala, bertatik ateratzeko eskatu zieten. Txosten tekniko batek etxera bueltatzea segurua zela esan arte, herriko hotel batean egonaldia ordainduko zitzaiela esan zieten.

Eremu kaltetua egonkortzeko lanak astelehenean hasi ziren.



Makinak harri lubeta jartzeko lanetan, astearte goizean. XABI GOROSTIDI

Harri lubeta bat jartzea adostu zuten Udalak eta igogailuaren lanak egiten dabilen enpresak, eta asteazkenean jada eginda zegoen. Horrez gain, igogailuaren obraren zuzendaritza teknikoa egiten dabilen Aritu enpresak, aurretik aipatutako txosten teknikoa egin du, bizilagunak etxera segurtasunez itzuli daitezkeela esanez. Hala ere, Diazek eta Romerok, adierazi dute ez dutela etxera itzultzeko asmorik, "beldur" direlako.



Loli Diaz, Hondarribia kaleko bere etxebizitzaren aurrean. X.G.

## Bizilagunen eta Udalaren auzia

Irudian agertzen den etxe blokean bi etxebizitza daude, Hondarribia kaleko 1 eta 3 atariak, hain zuzen. Loli Diaz eta Jesus Romero 3 atarian bizi dira, eta 1 ataria duen etxea Udalaren jabetzakoa da, 2008. urtean aurreko jabeei erosi ostean.

Ordutik, Diaz eta Romero urduri daude, euren etxearekin zer gertatuko den jakin nahian. Agintaldi hasieran osoko bilkura batera joan ziren, ezjakintasun horrek eragiten zizkieten osasun arazoen berri eman, eta konponbide bat eskatzeko. Udal gobernutik Taupa gainean dagoen etxe bat eskaini zieten, baina ezetz esan zuten, euren etxea baino garestiagoa zelako. Ostean, Hondarribia kaleko 12 atarian dagoen etxea eskaini zieten. Hori Foru Aldundiaren jabetzakoa denez, 2017ko urtarrilean aurreakordio bat sinatu zuten Udalak eta Aldundiak; bertan Udal jabetzako bi etxebizitza ematen zitzaizkion Aldundiari, aipatutako etxearen truke. Diaz eta Romero etxea ikustera joan ziren 2017ko irailean, eta hainbat zalantza aurkeztu zituzten idatziz. Handik astebetera beste idatzi bat aurkeztu zuten, esanez, Udalari etxea saltzearen alde egiten zutela, Aldundiarekin permuta gauzatzeko prozesua "asko luzatzen ari zelako". Beraz, urtarrilean tratua itxi zuten Udalarekin, Servatas enpresak tasatutako prezioan. Ekainera arte bertan bizitzea adostu zuten bi aldeek, etxe berri bat lortzeko eta egokitzeko denbora edukitzeko, eta tarte horretan gertatu da lur-jausiaren ezbeharra.

### Pentsioei buruzko hitzaldia, Ezker Anitzaren eskutik

Ezker Anitza-IUk ezegonkortasuna salatzeko abiarazitako *Haien ardura da!* kanpainaren harira pentsioen etorkizunari buruzko hitzaldia antolatu du Arrasaten, Kulturateko areto nagusian, astelehenean, martxoaren 26an. Irabazi Arrasatek lagundutako ekitaldian alderdiaren koordinatzaile orokorra den Isabel Saludek eta sindikalista eta pentsioduna den Eduardo Garciak parte hartuko dute.

Aipatutako bi hizlariek pentsioen biziraupena, horiei eragindako aldaketek izandako ondorioak, pentsio duina zer den eta plan pribatuen beharra gaiak jorratuko dituzte, besteak beste.

## OHARRAK

### Julen Mendizabal

Preso arrasatearrak martxoaren 31n du zehaztuta kartzelatik irteteko data. Azken hilabetea etxetik gertuago pasa du, Mont de Marsan espetxean.

### Dokea gazteentzat

Domeka honetan, 14 urtez azpiko gazteentzat doke txapelketa antolatu dute SUDC elkarteko kideek. Hitzordua; 11:00etan, Monterronen.

### Odol emateak

Apirilaren 3an, martitzena, odola emateko aukera izango da Arrasateko anbulatorioan. Ordutegia, 16:30etatik 20:00ak arte izango da.

### Apirileko egitaraua aurkeztuko dute gaztetxeko kideek

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko 18:30ean, apirileko egitarauaren aurkezpena egingo dute Arrasateko gaztetxeko partaide direnek.

Izan ere, 2018an 27 urte beteko ditu Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak, eta hori ospatzeko egitarau zabala osatu dute.

Prestaketa orduan gaztetxeko gainontzeko eragile guztiekin batera aritu dira: Pottogorriak, Kooltur Ostegunak, Guraso eta Haur Asanblada eta Alternatiben Azoka.

Prestatutako ekintzak aurkezteaz gain, familia argazki bat aterako dute gaztetxeko erabiltzaile guztiek batera.



## NIRE USTEZ

**ITSASO ERRETOLAZA**

### 'Txotxe', Julia etab

Aipatu zuen haren izena Eneko Sagardoik saria eskuetan zuela denok telebistari so geundela. Eta konektatu ginen *Txotxe*-rekin, bere eskutik antzerkian lehen pausoak emateko aukera izan dugun guztiok. Berak idatziko ez zuen gidoiari amaiera bikaina emanez joan zaigu, gu ikusle ginela.

Eta akordura etorriko zait Ana Gabrieli Onintza Enbeitak egindako elkarrizketa hura. Haien jardunaren etorria zen eskarmentuaren erakusleiho. Erakutsi eta irakatsi egiten duen esanahia geldiezina, asko egin duenaren eta asko esateko duenarena, dauden lekuan daudela ere. Eta hartan Juliak egingo zion galdera Anari: "Zerbaitetarako balioko du hainbeste urtetako borrokak?" Noski, bada Lorea (gizartea) zuria izan arren, norbaitek petalo bakar bat more bihurtzen duenean, hortik aurrera lorea ez da berdina, ez da lehengo bera berriz izango. Ikusi dugu, bai, aurtengo martxoan Lorea guztiz kolorez aldatzen ari dela. Egindako lanaren lorea eta kolorea…baita pentsioa ere. Eskerrik asko, beraz, besteon bertsiorik onena ateratzeko eginahaletan jarduten duzuen orori.

# Lehen pausoak kiroldegi berrirako bidean

Udal gobernua ekarpenak batzen ari da kiroldegi berria erabiltzaileen beharretara egokitzeko. Herriko hamalau klubekin elkartu dira jada, eta erabiltzaileen artean egindako inkestan barruko igerilekua handitzea izan da eskari nagusia



**Arrasateko kiroldegiko sarrera.** XABI GOROSTIDI

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko kiroldegiak gero eta erabiltzaile gehiago ditu. Azken urtean, adibidez, %2,5 igo da zifra hori. Baina, aldi berean, Gipuzkoako zaharrenen artean dago, aurten bete baititu 40 urte. "Esango nuke Arrasatekoa dela momentu honetan probintziako zaharrena. Eibarrekoak bi edo hiru urte gutxiago ditu. Orain dela gutxi arte Altzakoa zen guztietan zaharrena, baina jada bota dute berria egiteko" azaldu du Ander Garay kirol zinegotziak.

2018ko Udal aurrekontuetan 14.447 euro daude kiroldegi berriaren aurreproiektua idazteko, baina Garayk azaldu duenez lehen harria kirol plan estrategikoarekin jarri zuten. "Aurreproiektua baino lehen, plan estrategikoa egin genuen. Horren baitan galdetegi bat pasa genien kiroldegiko erabiltzaileei, plan estrategikoari eta gaur egungo kirol instalakuntzei buruz zein iritzi zuten jakiteko".

Baina erabiltzaileez gain, kiroldegiko langileen eta bertan aritzen diren kirol kluben iritzia ere jaso nahi izan dute. Gaur gaurkoz hamalau klubekin batzartu dira, eta beste hiru geratzen zaizkie bilera sorta hori amaitzeko. "Datorren astean amaituko ditugu klubekin bilerak. Gaur egun, gutxi gorabehera 17 klub daude herriko hiru kirol instalazioak erabiltzen: Musakola, Iturripe eta Uarkape. Aurreproiektua Musakolakoa berritzeko izango da, baina hiru instalazioetan dauden beharrak jakin nahi izan ditugu, aurreproiektua ahalik eta hoberen egiteko".

**Beste bi herritako ereduak**

Duela gutxi Beasaineko eta Tolosako kiroldegiak bisitatzen egon dira Garay bera, eta baita Maria Ubarretxena alkatea eta Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko burua ere. "Herriko kirol elkarteekin batzartzerakoan, %100ak aipatu digu Tolosako Usabal dela jarraitu beharreko eredua. Asteburuz asteburu inguruko kiroldegi gehienak bisitatzen dituzte, eta euren iritzia kontuan hartzeko modukoa da. Beste klub batzuek ere Beasainekoa aipatu zuten. Tolosakoa gehiago bideratzen da kirol erabiltzaileentzat, eta Beasainekoa, aldiz, aisialdira. Bi eredu horiek bertatik bertara ikustea aberasgarria izan da"

Ezketa S.L.P. enpresak idatziko du aurreproiektua. "2018 amaierarako eginda egotea da aurreikuspena. Eta behin eginda, prozesu parte hartzaile bat abiatuko dugu, herritarren iritziekin guztiz osatzeko".

## Kros solidarioa Baionako Etxepare Lizeoari laguntzeko

Debagoieneko ikastolek kros solidarioak egingo dituzte gaur Baionako Bernart Etxepare Lizeoak sagarrondoen bueltan antolatu duen *Hazten dugu, hazten gaitu* ekimena babesteko. 10:00etan, Arizmendiko lau gunetako 4 eta 5 urteko haurrek egingo dute korrika parrokiaren bueltan, eta ostean DBHko ikasleek Irune Iribecamposek idatzitako ipuin bat irakurriko diete.

14:30ean Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo dute korrika, 15:50ean DBH 1. eta 2. mailakoek, eta 18:00etan, korrika egin nahi duen edozein herritarrek.

Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak ikastetxeetan egingo dituzte.

## EH Bilduk espainiar banderarekin lotutako oharra kaleratu du

Oharrean salatzen dutenez, "espainiar estatuak mehatxu eta zigor bidez inposatu du hainbat eta hainbat euskaldunoi arrotza egiten zaigun bandera".

"Hilabeteak eta hilabeteak pasatu dira eta ez diogu gaiari obatu. Aberri egunaren ateetan, non hamaika arrasatearrek ikurrina eskegitzen duten euren balkoietan, ikurrinari merezi duen lehentasuna eman nahi diogu".

Bi proposamen egin dituzte: Herriko Plazan masta batean lehentasunezko presentzia ematea ikurrinari –Bergaran bezala–, eta udaletxean plaka bat jartzea, "auzitegi espainiarrek inposatuta" jarri dela salatzeko.

CITROËN
COMFORT IS THE NEW COOL

CITRÖEN C4 CACTUS
BERLINA BERRIA
Advanced Comfort eserlekuak
Esekidura progresibo hidraulikoakTM (PHC)
Mirror Screen, Apple CarPlayTM-rekin
Android AutoTM eta MirrorLink
Gidatzeko 12 laguntza sistema
EAT6 abiadura-kaxa automatikoa
Citroën Connect Nav
13.500-tik €
AURRERA
INSPIRED BY YOU
TALLERES CHAPIME
Debagoieneko Citröen kontsezionario ofiziala
San Andres 5, 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22
Bisita gaitzazu!

# "Harmailetatik sekulako babesa jaso nuen"

**IZAR BEDIA** ARASKI TALDEKO SASKIBALOI JOKALARIA

Joan den astean emakumezkoen maila gorenean –Dia Liga– debuta egin zuen jokalari arrasatearrak. 70-58 irabazi zuten Nissan Al Qazeres Extremaduraren kontra

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Duela urte batzuk Itziar Mallabiabarrenak saskibaloian egindako bidearen lehen pausoa eman zuen Izar Bediak (Arrasate, 1995) joan den astean, alegia, maila gorenean egin zuen debuta. Nissan Al Qazeres kontrario zuzena da sailkapenean, eta joanekoan izandako emaitza berdintzeko kapaz izan ziren gasteiztarrak, 12 puntuko aldearekin irabazi zuten. Bada, Dia Ligan bi partidu geratzen zaizkio Lacturale Araskiri, eta dagoeneko eginak dituzte etxerako lanak, mailari eustea.


Izar Bedia, besoak jasota presioa egiten, debutean. JOSE ANGEL GALVO

**Amestutako debuta izan dozu maila gorenean. Etxean, eta garaipen batekin.**

Bai, oso esperientzia polita izan zen joan den astekoa. Minutu eta 34 segundo egon nintzen kantxan, ez nuen saskira jaurtitzeko aukerarik izan, baina baloiaren jabetza izan nuen, defentsan lan egin behar izan nuen... Gustura geratu nintzen egindako lanarekin. Gainera, partidua irabazi bagenuen ere joanekoan izandako 12 puntuko errenta gainditu gura genuen. Ez genuen lortu, baina puntu diferentzia berdintzeko kapaz izan ginen.

**Partiduko ze oroitzapen duzu?**

Gogoan dut jokalarien partetik babes handia sentitu nuela, eta harmailetan zeuden zaleek izugarri animatu nindutela. Etxean moduan sentitu nintzen, eta partidu amaieran poztasun galanta hartu genuen denok. Debutatzeko modu ederra izan zen.

**Araskiko lehen taldean egin duzu debuta, baina berez, Ohorezko mailan tabilen taldean jokatzen duzu.**

Halaxe da. Kontua da aurtengo denboraldian sarritan entrenatu naizela talde nagusiarekin, eta jokalariak lehenagotik ezagutzen nituen, baita talde dinamika ere. Hala, joan den asteburuan hainbat jokalari min hartuta zeuden, eta entrenatzailearen deia jaso nuen. Nik esan nion taldeari laguntzeko prest nengoela, eta deialdian sartu ninduen. Hala, esango nuke kantxan izandako minutuak opari bat izan direla, hilabete hauetan lehen taldearekin egin dudan lana saritzeko oparia.

**Eta, ligan geratzen diren bi partiduetarako ostera ere lehenengo taldearekin jokatzeko itxaropenik bai?**

Zaila izango da, batetik, etxetik kanpora izango duten partidurako –Lleidan jokatuko dute zapatuan, Cadi La Seuren kontra– ez dudalako uste ni eramango nautenik, besteak beste, beheko taldean jokatzen dudalako eta hor oraindik helburuak bete barik ditugulako. Nik garbi daukat bigarren taldeko jokalaria naizela, eta hau aprobetxatu beharreko aukera bat izan dela, egindako lanaren sari bat. Oso esperientzia ederra izan da, baina burua Ohorezko mailako taldean daukat, horiek dira nire taldekideak.

**Bi jardunaldiren faltan ligan etxerako lanak eginda izatea oso garrantzitsua da.**

Bai, lehenengo taldea iaz igo zen Dia Ligara, eta aurten mailari eutsi izana oso garrantzitsua izan da, Araski beste urte bat egongo delako maila gorenean. Ohorezko mailan, berriz, mailari eusteko borrokan gabiltza.

**Urteak daramatzazu Gasteizen, baina Eskoriatzako klubeko harrobikoa zara.**

Halaxe da. Gasteizen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua ikasten nabil (IVEF) eta azken lau urteak Araskin daramatzat. Hasi, baina, Eskoriatzan hasi nintzen saskibaloian jokatzen.

**Eta datorren urtera begira, ze asmo?**

Kanpora joatea dut buruan, ikasketekin jarraitzeko.

**Eta saskibaloia?**

Nire egunerokoan oso garrantzitsua da saskibaloia, baina ez dakit ikasketekin bateragarria izango den, talderik topatuko dudan... Saskibaloiari ze lehentasun eman erabaki behar dut.

**Pena izango litzateke, elitean debuta egin, eta...**

Bai, baina, hau ez da gizonezkoen saskibaloia.

**"LEHENENGO TALDEAREKIN ENTRENAMENDUETAN EGINDAKO LANAREN SARIA IZAN DA HAU"**



NOEMI SIERRA

## Europako txapelketan zilarra

Jonathan Perez atleta arrasatearrak modu ezin hobean amaitu du pista estaliko denboraldia, Madrilen jokatutako Europako Txapelketan –M35 kategorian– bigarren sailkatu zen-eta. Stephane Diaz frantziarra izan zen onena (5,16) eta Manfred Menz italiarra sailkatu zen hirugarren (4,80). Txapelketa honekin pista estalitik erretiroa hartzea erabaki du Perezek.

## Arrasate Rugby Taldeak bizirik jarraitzen du ligan

Arrasate Rugby Taldeak hil ala biziko partidua zuen joan den astean Logroñon, mailari eusteko borrokan partidu oso garrantzitsua zutelako Igor Isasiren mutilek. Eta, emozio eta borroka handiko partidua irabazteko gauza izan ziren arrasatearrak (25-35)

Sarrailagileek maldan gora izan zuten partidua -atsedenaldian 20-7 erakusten zuen markagailuak- baina, zorionez, bigarren zatian erreakzionatzeko gai izan ziren eta Euskal Ligan jarraitzeko derrigorrez eman beharreko aurrerapausoa eman zuten. Hurrengo partidua ere finala izango da, apirilaren 15ean jokatuko dute, etxean.

## Mondrak bigarren dagoen Tolosaren bisita izango du bihar

Azken hiru partiduak irabazita bolada onean dira Jorge Davilaren mutilak. Sailkapenean bosgarren postuan dago Mondra (46 puntu), baina denboraldiko fase honetan oso zaila da inor aurreratzea, denak dabiltzalako estutzen.

Hiru garaipen horiek eurak baino atzerago dauden Amaikak Bat, Real Union eta Oiartzunen kontra eskuratu dituzte, eta orain dator aurrean egoteko hautagai direla erakusteko balio duen partiduak. Izan ere, bihar Mojategin (16:30) izango den Tolosa (52 puntu) bigarren postuan dago sailkatuta. Aurrekoen borroka asko estutuko luke garaipen batek.

## Zarautzi irabazita, bost final geratzen zaizkio MUri

Domekan Ulacia Zarautzen kontra irabaztea (66-57) nahitaezkoa zen mailari eusteko borrokan aurrerapausoa emateko, eta Arriren mutilek ez zuten hutsik egin: "Partidu nahiko ona egin dugu, defentsa ona eginda eta erasoan pazientzia izanda. Azkenean merezitako garaipena lortu dugu", adierazi zuen taldeko entrenatzaileak.

Orain, Ordizia, Valle de Egues eta MU daude 33 punturekin berdinduta, eta Zarautz eta Gimnastica Sport Cafe taldeak dituzte atzean. Bada, ligan geratzen diren bost partiduak finalak izango dira etxekoendako. Bihar Santanderren jokatuko dute, La Gallofaren kontra.



Oier Fuentes zuzendari arrasatearraren *Kreba* filmeko fotograma bat. TOPAGUNEA

# Laburbirak geldialdia egingo du Arrasaten

Euskarazko film laburren zirkuituaren 15. edizioa martxoaren 27an iritsiko da Arrasatera, eta aurtengo edizioari bukaera emango dion emanaldia izango da. Zortzi film proiektatuko dituzte, besteak beste, Oier Fuentes arrasatearraren 'Kreba'

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Laburbiraren 15. edizioa zortzi film berezirekin dator aurten ere. Euskarazko film laburren zirkuituak 29 herri bisitatuko ditu, eta martxoaren 27an Arrasaten egingo du azken geldialdia.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Laburbira zirkuitu ibiltariak hamabost urte bete ditu aurten, bi helbururi eutsiz: euskarazko sortzaileen kalitatezko lana ezagutaraztea, ekoizten jarraitu dezaten aukera emanez, eta ikusleei hemen eta euskaraz sortutako film freskoekin gozaraztea. Gehienez zirkuitua ospatu baino bi urte lehenago egindakoak izaten dira.

### Askotariko gaiak

Topaguneako antolatzaileek azaldu dutenez, gai ugari izango dituzte aurtengo zortzi filmek. "Aurtengo filmak elkarren oso desberdinak dira bai estilo aldetik, bai mezu aldetik: umorea, intriga, kritika, gure historiari begirada, kulturaren eta hizkuntzaren transmisioari keinua izango dira, besteak beste, ordu eta laurdenean publikoari hamaika sentsazio piztuko diotenak".

Hauek dira aurtengo egitaraua osatzen duten zortzi lanak, eta horien egileak: *Ilunpetan* (Koldo Carranza), *Night Shift* (Izaskun Arandia), *Higadurak* (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola), *Ejecutor* (Javi Arriaga), *Tazan* (UDA films), *Areka* (Atxur animazio taldea), *Kreba* (Oier Fuentes) eta *Zulo* (Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga).

### Zuzendarien azalpenak

Laburbirak 29 herri bisitatu ditu, eta horietako seitan, gainera, zuzendariek solasaldiak egingo dituzte, Arrasaten esaterako. "Modu horretan, sortzaileek euren lana publikoari zuzen-zuzenean azalduko diete, eta ikusleek ere, zuzendariekin patxadan hitz egin ahal izango dute, etxeko sofan baleude bezala", azaldu dute antolatzaileek.

**AMANCAY GAZTAÑAGA ZUZENDARIAK ETA IMANOL GALLEGO KAZETARIAK TERTULIA BAT EGINGO DUTE**

Saioa Amaia Antzokian izango da, asteartetako programazioaren barruan, 20:30ean hasita. *Zulo* film laburraren zuzendarietako batek, Amancay Gaztañagak, solasaldia egin du Imanol Gallego kazetari arrasatearrarekin batera.

### Zuzendari arrasatear bat

Arrasatear batek egindako film bat dago aurtengo egitarauan. Oier Fuentes da bera, eta hainbat film labur eta dokumental egin ditu. 2017an Lekeitioko Euskal Zine Bileran Zuzendari Amateur Onenaren saria jaso zuen, eta *Kreba* filmarekin Eibarko eta Errenteriako lehiaketetan ere sariak jaso ditu.

## Dantzaldi irekia antolatu du gaurko Portaloi elkarteak

Hileko azken ostiralean antolatzen du dantzaldi ireki bat Portaloi elkarteak. Oraingoan, Kulturateko Loramendi gela dantzaleku bihurtuko dute, gaur, 18:30etatik 20:00etara.

Helburua garbia da: bertaratzen diren lagun guztiei euskal dantza tradizionalak, eta gaur egun plazetan dantzatzen ari diren dantzak praktikatzeko aukera eskaintzea.

"Gaur egun plazetan dantzatzen diren euskal dantza tradizional, jauzi, muxiko eta abar praktikatzeko aukera izango dute datozen guztiek. Animatu zaitezte etortzera!", adierazi du Portaloi elkarteko kide den Maitere Larrañagak.

## Aste Santuko kontzertua Arrasate Musikalekoen eskutik

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikaleko ikasleek ohikoa den Aste Santuko kontzertua eskainiko dute Kulturaten, 18:30ean.

Askotariko instrumentuak entzuteko eta ikusteko aukera izango da: txistuak, eskusoinuak, tronpetak, oboeak, gitarrak, biolontxeloak, tronpak eta tronboiak, besteak beste. Emanaldia doakoa izango da, eta hogei pieza joko dituzte.

Bestalde, aipatzea, Arrasateko eta Elgoibarko tronboi, bonbardino eta tuba ikasleak atzo egin behar zuten elkartruke musikal kontzertua apirilerako atzeratu behar izan dutela, arazo batzuk tarteko.



IMANOL BELOKI

## Antzerkiaren xarman murgilduz

Ikasleen artean antzerki zaletasuna adierazpen gisa lantzeko asmoz, eskola-antzerki jardunaldiak hasi dira Arrasaten. Hezkuntza sailak, kultura sailarekin elkarlanean antolatuta, fase ezberdinetan ekintza ugari antolatu dituzte. 28. edizioa da aurtengoa, eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago.



# "Gurutzearen eraisketak asko batu zuen herria"

**SABIN ARANBURU** LIBURUAREN IDAZLEA

'Teilamendi 1977… eta herria josten hasi zen' liburua aurkeztu zuten atzo, eguena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan; Aranburu "oso gustura" azaldu da emaitzarekin

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

1976. urte bukaeran eta 1977 hasieran Tellamendin gertatutakoa jasotzen duen liburua aurkeztu berri dute. Sabin Aranburu aramaioarrak idatzi du. Atzo egin zuten lanaren aurkezpen ekitaldia, eta aurrerantzean udaletxean egongo da salgai, 10 eurotan.

**Nolatan suertatu zitzaizun liburua idazteko aukera?**

Udaletik sortutako ideia bat da. Cristina Etxenausia kultura zinegotziak eta Lierni Altuna alkateak komentatu zidaten herriko memoria historikoa lantzen ari zirela, eta bazegoela istorio konkretu bat lantzea eta argitaratzea nahi zutena: Tellamendin gertaturikoa, hain zuzen. Gainera, iaz 40 urte bete ziren ordu hartako gertakizunetik eta une aproposa zela esan zidaten.

**Eta zu izan zinen aukeratua.**

Hori da. Nik historia ikasketak ditudanez, neuri proposatu zidaten, eta nik hasieratik onartu nuen, gogotsu eta ilusioz, gainera. Izan ere, proposatu zidatenean, ez nekien ezer Tellamendin gertatutakoari buruz. Lagunekin komentatu dut eta gehienek ez zekiten ezer. Beraz, uste dut polita dela gazteok herrian gertaturikoa jakitea eta horren berri eman ahal izatea.

**Nolakoa izan da liburua idazteko prozesua? Lan handia izan da?**

Niretzako arazo nagusia izan da informazio hori ez zegoela inon jasota idatziz. Cristinak azaldu zidan zeintzuk izan ziren protagonista nagusiak gutxi gorabehera, eta nik haien ahotik jaso dut informazioa eta istorio guztiari forma eman diot apurka-apurka. Herritarren testigantzetan oinarritu naiz gehienbat, eta garai hartako prentsa idatziak jasotakoa ere erabili dut –*El Pais*, *La Vanguardia*, *Deia*...–.

**Uste baino denbora gehiago behar izan duzue, baina azkenean, aurkeztu da liburua.**



Sabin Aranburu, liburua eskutan duela. A.A.

## "HERRITARREN TESTIGANTZETAN ETA GARAIKO PRENTSAK JASOTAKOAN OINARRITU NAIZ"

Bai. Nire partetik ere ez da izan lan konstante bat. Ni ez naiz kazetaria eta elkarrizketak egiteko denbora behar izan dut. Ahal dudan heinean joan naiz informazioa batzen eta istorioari forma ematen. Egia da 2017an argitaratzea eta aurkeztea zela hasierako asmoa, 40. urteurrena aprobetxatuta. Baina era berean, egia da hasierako asmoa aldizkari moduan argitaratzea zela. Azkenean, pentsatzen genuena baino informazio gehiago batu genuen, luzatu egin zitzaigun kontua, eta liburu formatuan publikatzea erabaki genuen. Hori dela eta, denbora apur bat gehiago behar izan dugu.

**Zer kontatzen du liburuak? Nola dago egituratuta?**

Gurutzea 1935. urtean jarri zuten Tellamendin, baina ez naiz gehiegi zentratu hasierako urteetan. 1976ko abenduaren 31n aramaioar batzuek ikurrina handi bat jarri zuten gurutze horretan. Izan ere, beste borroka batzuekin batera, garai hartan ikurrinaren aldeko borrokak indar handia zuen Euskal Herrian. Ikurrina jarri eta biharamunean, baina, Guardia Zibilak gurutzea bota egin zuen, bonba batekin. Horrek egunean bertan ekarri zuen erreakzioa herriaren partetik. Manifestazio bat egon zen Aramaion, zerbitzu eta komertzio guztiak itxi ziren, eta Udal Gobernuak zehaztu zuen egun horretatik aurrera berriro jarri behar zela gurutzea. Julian Unzueta zen alkate garai hartan eta Guardia Zibilarekin hainbat konfrontazio eduki zituen. 1977ko martxoan, azkenik, gurutzea berriro altxatu zuten, zenbait herritarren inplikazioarekin.

**Hori guztia herritarren ahotan.**

Gehienbat bai. Batez ere protagonista izan zirenen anekdotak kontatzen ditu liburuak, gertakari hark zer suposatu zuen haiendako eta abar.

**Gurutzea berriro altxatu zen. Baina ikurrina ez zen berriz jarri, nahiz eta urte hartan legeztatu.**

Une hartan ez jartzea erabaki zen, luto moduan. 1977ko urtarrilaren 17an legeztatu zen ikurrina, eta kasualitatez, Aramaio da legeztatu ostean ikurrina udaletxeko balkoian jarri zuen lehenengo herria. Julian Unzuetak dio hurrengo egunean dagoeneko balkoian zegoela. Hala ere, lehen esan moduan, herriak lanean jarraitu zuen gurutzea berriz altxatzeko.

**Garai hartan tentsioa nabaria zen Aramaion?**

Herriaren gehiengo zabal bat inplikatu zen gurutzea altxatu zedin, batez ere gazteak. Ikurrina legeztatu aurretik konfrontazio handiak zeuden, eta legeztatu ostean, egoera aldatu egin zen. Guardia Zibilak gurutzea bota izanak asko batu zuen herria, eta Frankismo garaian ematen ziren konfrontazio guztiak asko baretu ziren. Herritarrek ardura hartu zuten herriko arazoei euren kabuz aurre egiteko, eta nolabaiteko batasuna sumatu zen.

**Horri lotuta egon daiteke liburuaren izenburua?**

Hori da. Eta ez da nire planteamendua, Lierni Altunarena baizik. Seguru egon zirela honen aurretik beste mila istorio Aramaion, baina formatu honetan idatzi den lehen liburua denez, titulu hori jartzea erabaki genuen. Horrekin irudikatu nahi izan dugu nola horrelako gertaerek herria batzeko eta josteko balio duten, eta era berean, herriaren izaera osatzeko.

**Bukatzeko, zer azpimarratuko zenuke? Nola animatuko zenituzke aramaioarrak liburua erostera?**

Gaur egun gazteoi ez zaigu gehiegi bultzatzen gure herrian gertaturikoa jakitera, eta ez dugu jasotzen informazio hori. Beraz, liburu hau modu bat da gertaera horietako bat behintzat ezagutzeko eta horretatik ikasteko.

### Alkateen solasaldia

Aurkezpenaren ostean, mahai-ingurua egin zuten, garai hartako lau alkaterekin: Julian Unzueta –Aramaio–, Jose Luis Elkoro –Bergara–, Jose Antonio Altuna *Txatillo* –Arrasate– eta Luis Mari Ajuriagerra –Otxandio–, Patxi Salaberrik gidatuta.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

## Siberia-Gasteiz

Martxoak 17. Gasteiz. Arabako Kuadrila arteko finala alde zaharreko Landatxo gunean. Kanpoan txingorra. Barruan ia berrehun pinguino eta hartz polarren bat hitzekin jolasean eta dantzan. Hinuit familia bat ere hurbildu zen bertara goizeko lehen ordutik.

Oholtza gainean geunden hamaika bertsolari eta gai jartzaileak ez genuen kantuan egiten, dardararen bibrazioen oihartzuna zen sabelaren sakonean sortu eta ahoko kobazulotik ateratzen zena. Bazirudien parean, aulkietan eserita zeuden bertsozaleak izotzezko estatua bihurtuko zirela edozein momentutan.

Baina ia berrehun bihotz horiek izan ziren Siberia-Gasteizko negua Arabako bertsolaritzaren udaberri bilakatu zutenak. Nire eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet saio osoan zehar gu animatzen eta txalotzen aritu ziren guztiei –baita hotzez mugitu ezinka zeudenei ere–. Zuen berotasunak eta maitasunak Ipar Poloa ere urtuko luke eta pasa den larunbatean zuek izan zineten zuen jarrerarekin txapela etxera eraman zenutenak. Eskerrik asko!

## Erretiratuek irteera egingo dute Leintz Gatzagara

Gatz Museoa eta Jakion enpresa bisitatuko dituzte erretiratuek apirilaren 5ean, 09:30ean irtenda. Eta handik bueltan, Uribarri Ganboan bazkalduko dute. 17:00etan, Las Cuatro Torres elkartearen batzar orokorrera joango dira. Interesatuek 25 euro ordaindu beharko dituzte Alaiak elkartearen Laboral Kutxako kontuan, apirilaren 3rako.



*Tarde para el recreo* film laburreko irudi bat, bihar eskainiko den filmetako bat. ZINEGOAK

# Zinegoak jaialdiko filmez gozatzeko aukera bihar

Nazioarteko LGTB zine jaialdiak 15. edizioa izan du aurten, eta urtero moduan, jaialdian aurkeztu diren hainbat lan herriz herri eskaintzen ari dira; hori dela eta, bost film labur eskainiko dituzte bihar –zapatua– kultura etxean, 21:00etan hasita

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Zinegoak erreferente bilakatu da nazioarteko LGTB jaialdietan gaur egun. Urtero 100 lan baino gehiago proiektatzen dira, gehienak nazioarteko jaialdietan sarituak izan direnak. 15. edizio honetan barne aldaketak egon dira. Izan ere, orain arte egindako lanaren ostean, Hegoak Elkarteak lekukoa utzi dio Zinegoak Elkarteari, eta, aurrerantzean, elkarte horrek antolatuko du jaialdia.

Aramaion izango den eskaintzari erreparatuta, bost film labur izango dira ikusgai: *I am a Sheriff; Sirene; Little Potato; Tarde Para el Recreo* eta *Princesa de Hielo*.

**'I am Sheriff'**

*I am Sheriff* lanak gazte batek Lesothoko erreinu menditsuan egiten duen bidaia jarraitzen du, herrixka, eskola eta urruneko komunitateetan bere pelikula erakutsiz. Genero femeninoa ezarri zioten Sheriffi jaio zenean, baina filmean amonak dioen bezala, ez zituen soinekoak gustuko, eta nahiago zuen mutilekin jolastu. 30 minutuko iraupena du. Euskarazko azpitituluak ditu –sothoeraz da jatorrizko bertsioa, Lesotho herrialdeko hizkuntzan–.

**'Sirene'**

Nahasmenaz, laguntasunaz eta zu zeu izateaz hitz egiten duen filma da *Sirene*. 26 minutuko iraupena du eta jatorrizko bertsioa nederlandera den arren, euskarazko azpitituluak ditu.

**'Little Potato'**

SESBean bizirauteko borrokan, Elenak eta homosexuala den bere seme gazteak pirateatutako film estatubatuarretan aurkitzen dute ihesbidea. Baina laster, filmak ez dira nahiko izango eta Elenak "enkarguzko emaztea" izatea erabakiko du, Amerika gertutik ezagutu ahal izateko. Istorio autobiografikoa da, inspiratzailea eta aproposa. 13 minutu irauten du eta euskarazko azpitituluak ditu –jatorrizko bertsioa ingelesez da–.

**GAUR EGUN, ZINEGOAK ERREFERENTE BILAKATU DA NAZIOARTEKO LGTB JAIALDIETAN**

**'Tarde Para el Recreo'**

Futbolean entrenatzen ari direla, gola sartu eta sutsuki ospatuko dute bi lagunek. Horren ondorioz, haietako batek ezusteko erreakzioa izango du. 20 minutuko iraupena du eta gaztelaniaz eskainiko da.

**'Princesa de Hielo'**

Antonio eta Carmenek euren semeak erregeei idatzitako gutuna irakurriko dute. Opari berezi bat egongo da, gurasoen ideiak eta maitasuna zalantzan jarriko dituena. 15 minutu irauten du eta gaztelaniaz izango da.

## Ibabeko Bertaren Ilobak garaile, hotzari aurre egindako finalean

Pasa den zapatuan jokatu zen Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren finala eta aramaioarrek irabazi zuten

**E.A.** ARAMAIO

Txapelketa osoan zehar izandako giroa sumatu zen finalean ere. "Egun osoko festa handia izan zen. Urtarrilean hasita, elkar ezagutuaz joan gara, eta gogoa zegoen guztiok batzeko. Hasieratik nabaritu zen festa usaina, eta primerako giroa eduki genuen egun osoan zehar", azaldu du Manex Agirrek, talde irabazleko kideetako batek.

Hotza izan zuten aurkari gogorrena guztiek. "Ondo itxi gabeko kiroldegia da, eta hotza sartzen zen. Horrek baldintzatu egin zuen saioa eta bukaerarako zertxobait tristatu egin zen giroa", adierazi du Agirrek.

Finalari dagokionez, lehia justua izan zela nabaritu zuten aramaioarrek. "Epaimahaiak ez zuen puntuazioaren gaineko informaziorik eman, baina Errekaleor Bizirik! taldea oso gertu sumatu genuen uneoro".

Txapela beharrean pago landare bana jaso zuten, "zuhaitzaren sinbologia erabiliz eta bertsogintzaren filosofiarekin bat eginez". Gastronomia produktuz osatutako otzara ere jaso zuten.

## Liburu irakurketa sustatzeko egitasmoa abiatu du Udalak

Aurrerantzean hilero hainbat liburu gomendatuko ditu, hiru taldetan banatuta: haurrak, gazteak eta helduak

**E.A.** ARAMAIO

Martitzenean eman zion hasiera liburu gomendatuen atalari. Hilero hainbat liburu aholkatuko ditu Udalak, Olga Jauregi Aramaioko liburutegiko arduradunaren gomendioak jaso ostean. Helburua da liburu gomendagarrien zerrenda osatzea, adinaren arabera sailkatuta –haurrak, gazteak eta helduak– eta argitaratu berri diren liburuak kontuan izanda.

Hauek dira martxoko gomendioak: haurrentzat, batetik *Ximunen baratzea* –album Irudidunak egiteko Nazioarteko X. Compostela Saria irabazi du– eta bestetik, *Udaberriko jolasak* bildumaren barruan dauden hiru liburu: *Gaztaina azpian, Piku azpian* eta *Intxaur azpian*.

Gazteentzat, berriz, Jasone Osororen *Eskularru beltzak,* lau liburukiz osatutako bilduma.

Azkenik, helduentzat, bi proposamen: Vanessa Montforten *Mujeres que compran flores,* adiskidetasuna ardatz duen istorio dibertigarria, eta Alberto Ladronen *Jainkoen zigorra* nobela beltza.

### Bertso Udalekuetan izena emateko aukera astelehenetik aurrera

Bertso-eskoletako haurrek lehentasuna izango dute Bertso Udalekuetan izena emateko. Gainontzekoek martxoaren 26tik apirilaren 13ra arte eman ahalko dute izena, 943 69 41 29 telefono zenbakira deituta edota *www.bertsozale.eus* atarian dagoen orria beteta. Orio, Irañeta, Muxika, Idauze-Mendi eta Zuatza izango dituzte aukeran gaztetxoek.

### Eskubaloi saioak egingo dituzte Pazko Astean kiroldegian

Arrasate Eskubaloi taldeak jardunaldiak antolatu ditu Aramaion, herriko haur eta gazteei eskubaloia ezagutarazi eta jokatzen erakusteko helburuarekin, Ines Azpiazu presidenteak azaldu duenez. Beraz, apirilaren 3an eta 5ean jolas saioak egingo dituzte, 10:00etatik 12:00etara; monitore lanetan taldeko jokalariek jardungo dute.

# Soberakina, hainbat proiekturendako aukera

Iazko likidazioa egin du Udalak eta pozik daude ez delako arazorik izan. Milioi eta erdiko soberakina dagoela jakinarazi dute eta zati handi bat beste proiektu batzuetara bideratuko dutela; hainbat, gainera, herritarrekin batera aukeratzeko asmoa dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Urteko lehen ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta beste kontu batzuen artean Udal lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta iazko likidazioa izan zituzten mahai gainean.

Bigarren hizkuntza eskakizuna zuten lanpostuei hirugarrena eskatzea hemendik aurrera onartu zuten aho batez: "EGA eskatzea esan gura du horrek. Uste dugu harrera batean egoteko beharrezkoa dela, jendearekin hartuemana duelako", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak.



Udalbatzako kideak eguazteneko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

**Herritarrei zabaltzeko asmoa**

Iazko urteko likidazioa egin dute eta ez dela arazorik izan jakinarazi zuen Elkorok: "Irizpide guztiak beteko ote genituen beldurrez nengoen, batez ere, gastu-erregela beteko ote genuen, kiroldegiko eta Txarapeako maldako lanengatik, baina ondo likidatu da". Eta soberakina zenbatekoa izango den ere argitu zuen: "Milioi eta erdi ingurukoa izango da, eta seiehun mila euro dagoeneko erabil ditzakegu. Saiatuko gara gainerako guztia ere erabiltzen, hori bai, proiektuak ondo aztertuta".

Ohikoak ez diren diru sarrera batzuei esker, 2018ko Udal aurrekontuak ere gora egin zuen eta inbertsiotara diru gehiago bideratu ahal izan zuten otsailean: "Inbertsiotarako ganorazko dirutxo bat dugun lehen urtea da eta soberakinak beste bultzada eder bat emango dio", zioen alkateak eta gaineratu zuen: "Mahai gainean denetik dugu: atzera utzitako proiektu batzuk orain arte ezin izan dutelako aurrera egin, hainbat ekimen… Eta parte-hartze bidez proiektu batzuk herrira zabaldu gurako genituzke, elkarrekin erabakitzeko. Hori guztia, Aste Santuko oporretatik bueltan erabakiko dugu".

## Martitzenean 'Harira' saioan

Unai Elkoro alkatea eta EH Bilduko bozeramaile Ion Albizu *Harira* saioan izango dira hilaren 27an (21:00 eta 23:30). Hainbat gairen gainean jardungo dute Eneko Azkaratek gidatuta, besteak beste: futbol zelai berria, komentua, Eroski berria eta tanatorioa.



M.A.

## Eraldaketarako lehen pausoak

Eraldaketa norberaren etxetik has daitekeela sinistuta hiru elkartetako ordezkariak gonbidatu zituen EH Bilduk eraldaketa horien gaineko argibideak ematera. Fiare banku etikoak zelan funtzionatzen duen argitu zuten; Izarkom telekomunikazio operadorea ezagutzera eman; eta energia berriztagarrien gainean jardun zuten Goienerren ordezkariarekin.



KURTZEBARRI ESKOLA

## Uraren mundu egunarekin bat

**Goiena komunitatea** / Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Uraren Mundu Eguna aitortu zuten 1993an martxoak 22, baliabide natural hori hobeto banatzeko eta errespetatzeko. Kurtzebarri eskolakook ekintza ezberdinak antolatu genituen altxor preziatu hori maitatzeko helburuarekin: ginkana egin genuen, koplak abestu eta *Euri tanta* abestia dantzatu.

HARIRA
GOIENA TELEBISTA
MARTXOAREN 27AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:30EAN
ARETXABALETA AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN:
UNAI ELKORO, ALKATEA (EAJ)
ION ALBIZU (EH BILDU)
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
BABESLEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.





Arizmendi ikastolako Basabeazpi guneko umeak jaialdira gonbidatzen. ENERITZ URRUTIA

# Elkartasun keinuak Baionako lizeoarendako

Bernat Etxepare Lizeoari laguntzeko asmoarekin eta dirua batzeko helburuarekin egitarau zabala gertatu dute gaurko, egubakoitza, Arizmendi ikastolako kideek; krosak izango dira protagonista jolasek, musikak, kantuek eta dantzek girotuta

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Elkartasun keinua jai giroarekin uztartu gura izan dute Debagoieneko ikastolek, eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoarendako dirua batzeko ekitaldiak festa giroan egingo dituzte gaur, egubakoitza, Basabeazpi guneko kideen eskutik. "Ikastolon oinarria elkartasuna da eta garbi daukagu zazpi lurraldeetan banatutako ikastolok bakarra osatzen dugula. Hortaz, beharra duenari laguntzeko ekimenak aurrera eramaten ditugu, nazio proiektua garatu eta indartuz", jakinarazi du Eneritz Urrutiak, Basabeazpiko irakasleak. Hala, hirugarrenez antolatu dute Oñatiko Txantxikuk, Bergarako Aranzadik eta Leintz bailarako Arizmendik halako ekimen bat elkarlanean; aurretik izan ziren Lodosako ikastolari eta, Ziburukoari laguntzeko jaiak.

**Topalekua, Herriko Plaza**

Herriko Plazan izango dira ekitaldiak nahiz eta eguraldiak lagundu ez: "Euria, txingorra ala elurra egin, ekintza guztiak aurrera eramango ditugu", jakinarazi du Urrutiak. Herri krosa plazatik abiatuko da 18:00etan; Errekabarren kalean gora egingo du Txakoliko bidegurutzera arte, eta han, Basabeazpi aldera egingo dute. Hara, Basabeazpira, iritsitakoan Mitarte kalean behera joango dira, Durana kalea zeharkatu, eta Herriko plazan bukatzeko. "Banakoa dantzatuta amaituko dugu, ondoren, ekintzekin jarraitzeko".

Ekitaldiotara herritar guztiak gonbidatu dituzte. "Herriak osatzen du ikastola, eta argi dugu laguntzeko gertu dauden guztiak ongietorriak direla. Ekintza ezberdinak antolatu ditugu, hortaz, animatu Baionako lizeoari laguntzera", eta tonbola solidarioa nabarmendu gura izan du: "Herriko ekoizleek eta bailarako eta Euskal Herriko hainbat erakundek eskainitako produktuekin osatu dugu; mundiala izango da!".

## Krosa eta ekitaldiak

Herriko Plazan izango dira krosak eta ekitaldiak.

- **14:20-16:20** Ikasleen krosak.
- **16:30** Jolasen hasiera, aurpegi margotzeak…
- **16:30** Tonbolaren eta tabernaren irekiera.
- **16:45** Almeneko abesbatzaren emanaldia.
- **17:00** Ikastolako bertsolariak.
- **17:30** Laugarren mailakoen emanaldia.
- **18:00** Herri krosa.
- **18:30** Seigarren mailakoen banakoa.
- **19:00** Buruhandiak eta guraso trikitilariak.
- **20:00** Azken bingoa.

Tonbola: Merkatariek eta eragileek emandakoekin.

## Gure Esku Dago-ren giza katerako 500 herritar gura dira

Gopegi (Araba) ingurura, 185. kilometrora, joango dira aretxabaletarrak eta izena emateko epea zabalik dago

**M.A.** ARETXABALETA

Gure Esku Dagok 100.000 lagun baino gehiago elkartu gura ditu ekainaren 10ean, Donostian hasi, Bilbotik pasatu eta Gasteizen bukatuko den mobilizaziorako. Giza katea eginda elkartu gura dituzte hiru hiriburuak, eta hori Aretxabaletatik pasatuko ez den arren herritarrek izango dute parte hartzeko aukerarik; izan ere, 500 herritarren laguntza eskatu dute. Gopegi (Araba) ingurura joan beharko dute aretxabaletarrek, 185. kilometrora, hain zuzen ere.

"Erronka handia da 500 aretxabaletar elkartzea, hortaz, animatu parte hartzera! Autobusak giza katea egingo den kilometroraino eramango gaitu eta gero bueltan ekarri", diote Gure Esku Dago-ko kideek.

Atzo egindako ekitaldian eman zuten horren berri eta izena emateko epea zabaldu. "Horretarako eta materiala saltzeko mahaiak jarriko ditugu hainbat egunetan, baina oraindik ez dugu zehaztu noiz eta non. Horren guztiaren berri joango gara ematen", jakinarazi dute.

## "Emaitzak lortuz gero ondo, baina bestela ere pozik gabiltza"

**UNAX IGARTUA ETA AMETS ERAÑA** PILOTARIAK

Udaberri Pilota Saria irabazi dute kadete mailan

**M.A.** ARETXABALETA




Igartua eta Eraña. MIRARI ALTUBE

Iturrigorri pilotalekua izan zen finalaren lekuko joan den egubakoitzean, eta zaleen berotasuna lagun 22 eta 8 hartu zituzten mendean Eibarko Azkargorta eta Astigarraga.

**Zorionak, bikote! Txapelketa borobila egin duzue, ala?**

Oso gustura ibili gara eta saria jaso dugu, gainera.

**Aurkari gogorrak izan dituzue?**

Denetik egon da. Finalaren aurretik sei bat aurkari garaitu behar izan ditugu, eta partidu gogorrena final-aurrekoa izan zen, Tolosaren aurka jokatutakoa. Finala, ostera, uste baino samurrago irabazi genuen eibartarren aurka.

**Aurtengo denboraldia zelan doa?**

Nahiko ondo. Honen aurretik beste txapelketa bat ere jokatu dugu, eta ondo moldatu ginen final-laurdenetan galdu arren.

**Aurrera begira zein txapelketa dituzue?**

Lau t'erdikoa eta Debarroko Txapelketa. Apiril inguruan hasiko ditugu eta berriro ere bikote izango gara Debarrokoan. Lau t'erdikoa, ostera, buruz burukoa da eta igual aurkari…

**Eta erronkarik jarri duzue?**

Ahal dena egin eta aurrera. Emaitzaren bat lortuz gero ondo, eta bestela ere pozik.

**Zelan ikusten duzue pilotarekiko zaletasuna herrian?**

Gero eta jende gehiago dago, hortaz, ondo. Kadete mailan beste bikote bat dago, baina atzetik ume asko datoz; egia da adinean aurrera egin ahala utzi egiten dutela askok futbolera joateko… Baina badirudi gogotsu datozela orain; pentsa, batzuetan lekua ezin topatu ibiltzen gara pilotalekuan entrenatzen hasteko…

# Film laburrak ikusteko eta saritzeko eguna, gaur

Gaur, egubakoitza, da 'Ikusteko jaioak gara' lelopean egin duten Huhezinema film laburren jaialdiko egun potoloa. Sail ofizialeko filmak erakutsiko dituzte 16:00etan hasita Arkupen, eta sari banaketa ekitaldia egingo dute jarraian, 20:15ean hasita

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

Eguaztenean hasi zuten Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren 11. edizioa, egitarau betearekin. Aurkezle lanetan jardundako Maider Imazek, Malen Illarramendik eta Julene Etxaurik edizioa inauguratu zuten. Jarraian bi sailetan banatutako film laburrak erakutsi zituzten –MUko ikasleen lanak, batetik, eta Kutixi Saileko lanak, bestetik– eta ondoren, bertaratutako ikusleek lan gogokoenen aldeko botoa eman zuten –gaur banatuko dituzte sariak–.

**Egiazkoak dirudite n efektuak**

Arratsaldean berriz, *Handia* eta *Errementari* filmetako efektu bereziien sortzailea izan den Drama FX enpresa donostiarrak *masterclass* berezia eskaini zuen Aretxabaletako Herriko Plazan. Bertaratu zirenek azalpen teorikoen ostean, efektu bereziak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Bada, batez ere elurrarekin eta suarekin ibili ziren Drama FXeko lagunak *jolasean*, eta herriko gaztetxoak aho zabalik geratu ziren.

**Egun "potoloa", gaur**

Gaur, egubakoitza, izango da Huhezinema jaialdiko egun "potoloa". 16:00etan hasiko duten ekitaldian –Arkupen– erakutsiko dituzte Sail Ofiziala irabazteko dauden hautagaien lanak, eta 20:15etatik 21:00etara egingo dute sari banaketa ekitaldia –amaieran luncha eta kontzertua egongo dira–.

Bada, hainbat sari banatuko dituzte gaur: Sail ofizialean finalista bakoitzak 200 euro jasoko ditu, GOIENA saria 1.000 eurokoa izango da –sari nagusia–, Vertigo saria 400 eurokoa, Mundukide saria 700 eurokoa eta Ikusleen saria 300 eurokoa. MUko ikasleen sailean 2.900 euro banatuko dituzte, eta Kutixi sailean beste 1.200 euro.



Eguaztenean Drama FX enpresako lagunek efektu bereziekin egindako saioa. I. GALLEGO

## Huhezinema sarietarako hautagaiak

**Sail ofiziala:**
- ***Tarde para el recreo*** (Pablo Malo, 21'24 minutu).
- ***Kreba*** (Oier Fuentes, 11'31 minutu)
- ***La petite mort*** (Ana Gonzalez eta Andrea Landaluze, 4'23 min).
- ***Plágan*** (Koldo Almandoz, 9'58 min).
- ***Aprieta pero raramente ahoga*** (David Perez Sañudo, 15 min).
- ***Zulo*** (Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola, 14 minutu).
- ***Euritan*** (Irati Gorostidi eta Arantza Santesteban, 20'35 minutu).
- ***Areka*** (Atxur animazio taldea, 6'36 minutu).
- ***Lisbeth*** (Aitor Bereziartua, 13'52 minutu).
- ***Versus*** (Demetrio Elorza, 8'32 minutu).

**MU ikasleen saila:**
- ***Norbanakoak.*** (Aitor Lazkano, 11 minutu).
- ***Lamia*** (Amaia Bargalló, 2 minutu).
- ***Your Curse, My Disease*** (Jon Etxeberria, 4 minutu).
- ***Azkena eta etxera*** (Unai Gil, 12 minutu).
- ***Harriz herri*** (Haizea Azpilikueta, 14'26 minutu) .
- ***Marra gorria*** (Unai Portilla, 17 minutu).
- ***KarKarCar*** (Ibai Zabala, 10'40 minutu).
- ***Bizirik dirau*** (Patxi Irigoyen, 13 minutu).
- ***Gazi Gozoak*** (Mikel Herce, 12 minutu).
- ***Háblame como la lluvia y déjame escuchar*** (Alaine Aranburu).

**Kutixi saila:**
- ***Jan-Burgesa*** (Egoitz Diaz de Ibargoia, 3 minutu).
- ***Makrobiotika Txokoa*** (Haritz Uriarte, 3 minutu).
- ***Goseapp*** (Egoitz D. Ibargoitia, Maialen Ortubay, Mikel Toledo).
- ***Artea eta Kultura*** (Xabier Ortiz de Urbina (3 minutu).
- ***Entsalada*** (Julen Higuera, 3 minutu).

## Udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte Loramendin

Loramendi euskara elkartea uztaileko udaleku irekiak antolatzen dabil, eta begirale taldea osatzen dabiltza. Hala, begirale moduan jarduteko interesa duenak curriculumak eta ziurtagiriak Algara ludotekan edo Loramendi elkartean entregatu behar ditu, edo *loramendi.aisia@gmail.com* helbidera bidali apirilak 2 eta 13 bitartean.

Derrigorra da euskara eta bertako euskalkia erabiltzea eta 18 urtetik gora edukitzea. Horretaz gain, kontuan hartuko dira ondorengoak: begirale titulua izatea, ikasketa maila, udalekuetan esperientzia, lehen sorospen titulua... Aretxabaletako gazteek izango dute lehentasuna.

## Nerabeekin zelan jokatu jakiteko trebakuntza saioak

Etxean nerabeak dituzten gurasoen beharrak antzemanda, Guraso Eskola antolatu du Guraso Foroak –Arizmendi ikastolako gurasoak, Gurabarri guraso elkartea, Batera guraso elkartea, Kukumiku elkartea, Pausoka guraso elkartea eta Udala–.

Hainbat gairen gaineko lau saio egingo dituzte apirilean –10ean, 17an eta 24an– eta maiatzaren 8an (18:00-20:00, udaletxeko ganbaran). Bada, arauak, rolak, jarrerak, mugak, komunikazioa hobetzeko jarraibideak… gaiak landuko dituzte trebakuntza saio horietan. Martxoaren 27a da izena emateko azken eguna (*gazteria@aretxabaleta.eus*). Doan da.



GOIENA

## 'Korta'-rekin berriketan

Kurtzebarri eskolako Galder Isasmendi, Ibon Lorenzo eta Uxue Uribetxebarria ikasleek Jose Luis Korta elkarrizketatu dute *Galdegazte* saioan. Arrauna eta ETBko 'El Conquis' telebista saioa oinarri hartuta, askotariko galderak egin dizkiote ikasleek. Saioa osorik ikusi ahalko da martxoaren 28an, 21:30ean, Goiena Telebistan.

## Frontenis txapelketa antolatu dute herriko gazteendako

Aretxabaletako kale hezitzaileen eskutik frontenis txapelketa izango da martxoaren 28an (17:00) Iturrigorri pilotalekuan. Txapelketa 11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta ondoren, merienda egingo dute pilotalekuan bertan. Izena emateko idatzi *kalehezitzaileak@aretxabaleta.eus* helbidera edota deitu 688 741 377 zenbakira.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Erabiltzailea inkesta betetzen Manuel Muñoz kiroldegiko harreran. IMANOL BELOKI

# Kiroldegiko zerbitzuari buruzko galdeketa abian

Manuel Muñoz kiroldegiko erabiltzaileek asebetetze inkesta egiteko aukera dute. Udalak, bost puntutan sailkatuta dagoen galdeketa orria prestatu du, kiroldegiko harreran dagoena, eta bete ondoren, bertan jarri duten ontzian utzi beharko da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegiko arduradunendako erabiltzaileen iritzia oso garrantzitsua da; hala, horien asebetetze maila jakin gura dute eta hobetu beharrekoak zeintzuk diren argitu. Aurreko urteetan egindako moduan, 2018ari begira ere, erabiltzaileei galdetegi bat betetzeko eskaera egin die Eskoriatzako Udalak.

Galdetegia bost puntutan sailkatuta dago, eta kiroldegiko sarreran har daiteke bete beharreko txantiloia; behin beteta, han bertan dagoen ontzian utzi beharko da.

**Iradokizunak eta kexak**

Kiroldegiko erabiltzaileak honako datuak bete beharko ditu inkestari hasiera emateko: gizonezkoa ala emakumezkoa den, adina, kiroldegiaren erabilpen maiztasuna, erabilpen ordutegia, ikastaroetan parte-hartzea… Eta horrekin batera, bost puntutan sailkatuta dagoen galdeketa bete beharko du; hala, kexak, iradokizunak, hobetzekoak edo kentzekoak adierazteko aukera izango du. Honako hauek izango dira bete beharreko bost puntuak: ordutegia, instalazioak, ekipamendua, ikastaroak, arreta eta bestelakoak.

**Inkesta motz eta zehatzagoa**

"Iazko eskaeretatik garrantzitsuenak egin genituen, baina parte-hartzea ez zen oso handia izan. Inkesta mota ez zen ohikoa, galdera asko zeuden… Aurten, inkesta motzagoa eta zehatzagoa prestatuta, erabiltzaile gehiagok erantzutea nahiko genuke; izan ere, 1.000 erabiltzailetik gora daude eta 200 inguruk behintzat parte har dezaten nahiko genuke", adierazi du Josu Ezkurdiak, Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

**APIRILAREN 13A ARTE DAGO EPEA KIROLDEGIAREN GAINEKO INKESTA ERANTZUTEKO**

**2017ko asebetetze inkesta**

Iaz, 61 erabiltzailek hartu zuten parte galdeketan; 36 emakumek, eta 25 gizonezkok. Kopuru handia izan ez arren, balorazio orokorrei dagokienez, emaitza onak izan zituen kiroldegiak erabiltzaileen partetik. %20ak balorazio oso ona egin zuen, %52ak ona, %21ak egokia, %5ak okerra, eta %2ak oso txarra. Hala, datu aipagarrienak jaso eta honako hauek dira ordutik egin dituztenak: goiko aldeko gimnasioa itxi eta egokitu; makina berriak erosi eta hondatutako ekipamenduak konpondu; takilak konpondu; eta instalazioen mantenua hobetu.

Eskatutakoen artean oraindik egiteke geratu dira hainbat; honako hauek: aldagelen erosotasuna hobetu; dutxaren tenperatura egokitu eta hobetu; eta instalazioen erabilpen arauak egokitu eta betearazi.



GED Eskoriatzak astelehenean egindako informazio bilera. GURE ESKU DAGO ESKORIATZA

## Gure Esku Dago-k informazio bilera eskaini zuen astelehenean

Ekainaren 10ean egingo den giza katean, Eskoriatzaren kilometroa 186.a izango da, Ondategin (Araba)

**I.B** ESKORIATZA

Astelehenean, informazio bilera eskaini zuen Eskoriatzako GED plataformak, eta 2018ra begirakoak azaldu zizkien bertaratu zirenei.

Aurreko lau urteetako ekintzen errepasoa egin ostean, 2018ra begira dituzten helburuak adierazi zituzten: erabakitzeko arrazoiak parlamentura eramatea, Herri Ituna gauzatzea, Autogobernu Ponentzian eragiteko nahia, eta Euskal Herriko mobilizazio handiena egitea, besteak beste. Ekintzei dagokienez, bestalde, herri galdeketak egitea, Herri Ituna lantzea –Eskoriatzan ez da landuko–, eta giza katea izan ziren aipatutakoak.

**Ekainaren10ean, Ondategira**

Giza katea ez denez Debagoienetik pasatuko, Eskoriatzakoak Ondategira joango dira, 186. kilometrora. Kilometro hori jendez osatzeko 500 pertsona beharko dituzte, eta horretarako, hainbat ekintza egingo dira herrian: mahai informatiboak jarri, saretzeko eskaera egin, tutoreak (talde baten ordezkaria) izendatu… Eskoriatzako GED eta talde horren arteko lotura lanak egingo dituzte tutoreek.



I.B.

## San Pedro parkeko aparailuak

Kirola egiteko aparailuak jartzeko eskaera egin zuen Eskoriatzako gazte talde batek iaz, eta horri erantzunez, Udala hasi da lanak egiten San Pedro auzoko goiko parkean. Hala ere, atzeratu egin behar izan dituzte; izan ere, azken asteotako euriteen ondorioz lurzoruarekin arazoak izan dira. Dena den, lanok laster amaitzea aurreikusten dute.



**Larraitz Iparragirre eskoriatzarra txotxongiloa eskuan duela.** LARRAITZ IPARRAGIRRE

# Txotxongiloen munduan murgiltzeko tailerra

Larraitz Iparragirre eskoriatzarra Guatemalan bizi da, eta apirilean bisitan etorriko da Euskal Herrira. Bisitaldia aprobetxatuz, ikastaro bat emango du herrian, txotxongilo animazioren ingurukoa; apirilaren 14an izango da, 10:00etan, kultura etxean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Larraitz Iparragirre eskoriatzarra Guatemalan bizi da, eta apirilean Euskal Herrira etorriko da. Bisitaldia aprobetxatuta hainbat ikastaro emango ditu, eta horietako bat Eskoriatzan bertan egingo du, txotxongilo animazioaren ingurukoa, hain zuzen ere.

Gautemalan, bere bikotekidearekin batera, La Charada Teatro txotxongilo eta antzerki konpainia sortu zuen 2007an, txotxongilo-antzerkia biziberritu, zabaldu eta lengoaia berriak arakatzeko helburuarekin. Hala, apirilaren 14an, txotxongilo animazio tailerra eskainiko du euskaraz, Eskoriatzako kultura etxean, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

### Gazte eta helduei zuzenduta

Askotariko teknikak ikasteko aukera izango den ikastaroa, gazteendako eta helduendako da. Interesa duen 16 urtetik gorako guztientzat zuzenduta egongo da eta Udaletik adierazi dute, bereziki interesgarria izango dela aisialdiko hezitzaile eta begiraleentzako, hezkuntza formaleko irakasleentzako, gizarte lanetan dihardutenentzako eta baita gurasoentzako ere. Prezioa, berriz, 10 eurokoa da, eta izenematea, kultura etxera joanda, edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitura egin daiteke.

### Teknika asko ikasteko aukera

Txotxongiloei dagokienez, askotariko teknikak erabiltzen dituzte, esaterako gorputz txotxongiloak, zuzeneko animazio saioak, txotxongilo-antzerki tradizionala, eskularruekin egindakoak... Antzinako arte eszeniko horren funtsak ezagutu eta goiz atsegin bat pasatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

**BEREZIKI INTERESGARRIA IZANGO DA AISIALDIKO HEZITZAILEENTZAT ETA BEGIRALEENTZAT**

### Ibilbide luzeko konpainia

La Charada Teatro txotxongilo eta antzerki konpainiak, Latinoamerika zabaleko hainbat eskolatan, plazatan eta antzokitan aurkeztu ditu euren lanak, baita nazioarteko zenbait jaialditan ere. Egin dituzten lanen artean honakoak daude besteak beste: *Cuentos al derecho y al revés*, *El Amor y la Locura*, *Cuentos Cortos para Niños Largos*, *Covers*, eta *Los Tres Cochinitos y el Lobo Petroff*.

### Istorio txikiekin jasotako saria

2010. urtean *BreVarios* taularatu zuten eta lan horrekin Monterrey –Mexiko– hirian ospatutako Nuevo Leoneko antzerki jaialdian aipamen berezia jaso zuten. Txotxongiloekin, fantasiazko unibertso ezberdinen istorio txikiak kontatzen dituzte, eta narrazio gabeko obra bat da.

## Badator nerabeentzako 'Gaztekonkis' abentura

Gaztelekuko erabiltzaileendako ekintzez gain, haurrentzako oporraldia ere prestatu du Tortolisek

**I.B** ESKORIATZA

Martxoaren 26an eta 27an, *Gaztekonkis, Ihes, Argitu misterioa abentura* izango dute Eskoritzako eta Aretxabaletako nerabeek. Aurtengoa misterioz beteta dator, eta bi egun hauetan ekintza bereziak egingo dituzte.

Martxoaren 26an, 10:00etatik 18:00etara bitartean, bidaia misteriotsua izango dute. Aurrez nora joango diren jakin barik, egun pasa egingo dute, eta proba ezberdinak gainditu beharko dituzte gazteek. Martxoaren 27an, berriz, *Scape Room* erraldoia egingo dute Aretxabaletan. 10:30etatik 17:00ak bitartean izango da, eta joko honez gain, bazkaria eta argazki emanaldia ere izango dute.

Tortolis ludotekakoek, bestalde, udaberriko oporraldia izango dute hiru egunetan; martxoaren 26, 27 eta 28an. haurrentzako aisialdi eskaintza programa berezia antolatu dute, egun horietan aisialdiaz gozatzeko. Hala, kirol ekintzak, sukaldaritza, igeriketa, jolasak, erronkak eta gisa horretako ekintzak egingo dituzte.



**Xabi Iñurria baloiarekin, Mallabia taldearen aurkako partiduan.** IMANOL SORIANO

## Euskal Liga mailako Eskoriatza, Sestaoren aurka, etxetik kanpo

Denboraldia amaitzeko lau jardunaldiren faltan, hurrengo denboraldiari begira dago Eskoriatza

**I.B.** ESKORIATZA

Euskal Liga mailan dihardauen areto futboleko taldeak Sestaoren aurkako partidua jokatuko du domekan, 12:30ean, Las Llanas kiroldegian.

Sailkapenean, bi postu gorago dagoen aurkaria da Sestao, eta horiek harrapatzea zaila duten arren, Iker Molinaren mutilek garaipena eskuratu nahi dute orain dauden zazpigarren postuari eusteko, eta beherago dauden postuetara ez jaisteko. Hala, bi partidu jarraian galdu ostean, garaipen beharrean daude eskoriatzarrak.

### Denboraldia amaitzear

Denboraldia amaitzeko lau jardunaldi falta dira, eta Eskoriatzak ezin ditu dagoeneko goiko postuak lortu. Horregatik, datorren denboraldiari begira jarriak daude eta helburu berriak ezarri nahi dituzte aurten baino emaitza hobeak lortzeko.

Ohorezko gizonezkoen taldeak ere etxetik kanpora jokatuko du partidua, zapatuan, 18:15ean. Rodiles (Asturias) izango da aurkaria, eta hauek sailkapenean azkenak direnez, garaipena eskuratzera irtengo dira kantxara.

# Eskoriatza Atamakoen lan bikaina Espainiakoan

Urrezko domina batekin, lau zilarrezkorekin eta brontzezko batekin etorri dira Eskoriatza Atama Kenpo taldeko Mikel Beloki, Argitxu Zubillaga eta Leire Rato martxoaren 10ean, Guadalajaran jokatu zen Espainiako txapelketatik

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Martxoaren 10ean, Guadalajaran jokatu zen 2018ko Espainiako Kenpo txapelketa, eta Eskoriatzako Atama taldekoek lan bikaina egin zuten bertan. Izan ere, urrezko batekin, lau zilarrezkorekin, eta brontzezko domina batekin etorri dira bueltan etxera.

Espainia mailan jokatzen den urteko ekitaldi garrantzitsuena da txapelketa hori; izan ere, talde autonomiko ezberdinak batzen dira bertan, hainbat lurraldetako kirolariekin, federazioa defenditzeko asmoz.



Atama Kenpo Eskoriatza taldekoak Guadalajarako txapelketan. MIKEL BELOKI

**Orotariko kategoriak**

Aurten gauzatu den txapelketan 150 parte-hartzaile batu dira Espainiakoan, eta kategoria ezberdinetan lehiatzeko aukera izan da: kata, defentsa pertsonala, puntukako borroka, borroka jarraia, eta lehen aldiz jokatu den *fullkenpo* izaneko modalitatea. Azken borroka mota honetan gorputz osoaren kontaktua izaten da, eta eraispenak, proiekzioak eta lurreko borroka bermatzen ditu. Borrokaz gain, erretiro edo balizko ekintzetako puntuen, argi eta ongi exekutatutako kolpeen edo lurreko inmobilizazioen bitartez ere irabazi daiteke.

**Leire Rato, txapeldun**

Atama taldeko ordezkaritzari dagokionez, lan txukuna egin zuten txapelketan. Leire Ratok, urrea lortu zuen *fullkenpo* modalitatean, eta hala, Espainiako txapeldun berria da. Horrez gain, borroka jarraiko –*semicontacto continuo*– modalitatean Espainiako txapeldunorde izan zen.

Argitxu Zubillagak, berriz, Espainiako txapelketako hirugarren postua lortu zuen borroka jarraiko modalitatean eta brontzezko dominarekin itzuli zen etxera.

**Denbora gutxian, lan bikaina**

Mikel Beloki eskoriatzarra, Espainiako txapeldunorde izan zen puntukako borrokan, borroka jarraian eta *fullkenpo* modalitatean zilarra lortuz. Espainiakoan lortutakoarekin pozik agertu da Beloki: "Iaz hasi nintzen kenpoan, eta lesio baten erruz urte erdi egon naiz geldi. Gogor entrenatu dut, eta pozik nago lortutakoarekin. Datorren urtean, urrea lortzea da nire helburu nagusia. Ekainaren 2tik 4ra, berriz, Reusera joango naiz, lehen aldiz, MMA modalitatean lehiatzera".



Arkamunen gaur egun dagoen monolitoa. MENDIKAT

## Arkamuneko mugan postontzia jarriko dute auzolanean

Leintz Gatzagak eta Barrundiak muga egiten duten puntuan jarriko dute postontzia maiatzean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Leintz Gatzagako, Burgeluko eta Barrundiako (Araba) herrietako Udalek elkarlanean egitasmo bat jarri dute martxan, lautadako mendi zaletasunaren eta kulturaren inguruko jardunaldiak izenekoa. Hala, egitasmoaren funtsa da, herrien arteko harremana sustatzea, eta horretarako, herriek muga egiten duten Arkamuko puntuan monolito bat –Barrundiako kiroldegiaren erreplika postontzi eran, eta eguzki-lorea– jarriko dute giza kate eran.

Domiñagatik gora, bi kilometro inguru egin, eta Hiruerreketa baino goratxoago dagoen puntua da Arkamu, eta horrek Barrundiarekin muga egiten du. Pasa den astean hasi ziren jardunaldiak, eta zapatuan, Barrundian, hainbat ekintza egin bazituzten ere, domekan, gatzagarrekin batera, egitekoak ziren postontzia jartzeko auzolana atzeratzea erabaki zuten eguraldi txarra zela-eta. Hala adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako Mendi zinegotziak: "Barrundiako Udalak jarritako monolito bat badago dagoeneko Arkamunen, baina iazko udaberritik hona, eurekin harremanetan gaude, gure lurrek muga egiten dutelako; hala, han beste monolito bat jartzeko ideia izan genuen. Pasa den domekan egitekoak ginen hori, baina maiatz ingurura aldatzea erabaki dugu."

**Monolitoa jartzeko ekimena**

Monolitoa jartzen den egunean, gatzagarrak autoz joango dira Domiñagaraino, eta handik gora, oinez, txistulariekin. Barrundiakoak, berriz, Marietatik gora igoko dira. Autoz igoko dute monolitoa, eta gero, giza katea eginda, eskuz-esku pasatuta igoko dute mugaraino.

## Eskoriatzarrak Bernat Etxepare Lizeoari laguntzeko prest

Herri krosean parte-hartzen duen bakoitzari euro bateko ekarpena egitea eskatuko diote laguntza gisa

**I.B.** ESKORIATZA

Arizmendi ikastolaren Almen eta Jose Arana guneek ere bat egingo dute Baionako Bernart Etxepare Lizeoari ekonomikoki laguntzeko antolatutako Elkartasun Krosarekin. Gaur, arratsalde osoan ekintza ugari antolatu dira, eta honakoa izango da egitaraua: 14:20an hasiko da ikasleen krosa Fernando Eskoriatza plazan. Bertan, ikasleak elkartuko dira, eta mailatan banatuta, zirkuitu bat egingo dute herriaren erdialdean. 15:30ean karaokea egingo dute, eta ostean, jolasak, eskulanak, tailerrak… Honekin batera, horma irudi bat ere margotuko dute udaletxean esekitzeko, eta 17:30etan, ekitaldi nagusia hasiko da. 18:00etan, herri krosa –dortsala euro bat– abiatuko da, eta segidan, kalejira egingo dute Arizmendikoek eta Bernat Etxepare ikastetxetik etorritako ikasleek. Bukatzeko, batutako dirua Baionako lizeoko kideei emango diete.

## Gatz museoko beheko sua saltzeko asmoa adierazi du Udalak

Gatz museoan dagoen beheko sua edo labea saltzeko asmoa du Leintz Gatzagako Udalak. Horretarako epe bat ireki du interesatuek labearen ezaugarriak azter ditzaten udaletxean, eta dagokion eskaintza egin dezaten. Hasierako salneurria da 1.000 euro; eskaintzak udaletxean aurkeztuko dira –bulego ordutegian– kartazal itxi batean.



Gatz museoko labea. GATZAGAKO UDALA



Iaz eguraldi ederra egin zuen feria bisitatzeko; irudian, iazko seminarioko makinaria erakusketa. IMANOL SORIANO

# Negu giroz dator udaberriko feria

Urteko azokarik handienerako egun bustia eta hotza izango dela iragarri duten arren, Erramu zapatuko ferian askotariko 118 postu egongo dira eta egun osoko egitaraua antolatu dute; frontoiko herri bazkarian, esaterako, 450 lagun inguru elkartuko dira

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Badator Erramu Zapatua, urteko feriarik handiena. Baserriko bizimodua gogoratzeko hitzordua da, hainbat bergarararrendako ondo errotutako festa eguna. Zapatukoa izango da egun handiena baina egubakoitzean zein domekan ere izango dira ekitaldiak, bereziki kultura arlokoak (ikus 28. orria).

**118 postu, zirkulazioan eragina**

Zapatuan, feria, 09:00etan irekiko da: abelburuen erakusketa, Euskal Oiloaren erakusketa, makinaria, Eusko Label produktuak eta artisautza izango dira, besteak beste. San Martin plazan artisauen 40 postu elkartuko dira; Munibe plazan orotariko hamar postu; Simon Arrietan eta Fraiskozurin elikagaien 50 saltoki; eta Seminarioko patioan makinaria, burdindegi, baserriko tresna eta pentsua erosteko 18 saltoki. Horrekin batera, Jardun euskara elkarteak talo postua jarriko du seminarioko karpan eta Segurako talogileak Fraiskozurin izango dira. Gainera, San Martin plazan Eusko Label izendapeneko baserriko txerria dastatu ahal izango da. Horrez gain, Seminarioko patioan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldietarako hainbat herritarrek sortutako lurrun-makina martxan ikusi ahal izango da.

Feriak, nahitaez, aldaketak eragingo ditu erdiguneko aparkalekuetan eta zirkulazioan:

**FERIAK 118 POSTU IZANGO DITU AURTEN; JARDUNEN TALO POSTUA SEMINARIOKO KARPAN EGONGO DA**

Ibargarai 4 zenbakitik 8ra autoz libre egon beharko du gaur goizerako, eta 8tik 14ra, bihar goizerako; Fraiskozuri kaleko alde biek libre egon beharko dute gaur 07:30erako; eta aparkaleku asko kenduko direnez, zapatuan Ipintza institutuko eta San Martin Agirre ikastetxeko jolas tokiak zabalik utziko dira aparkaleku moduan erabiltzeko. Zirkulazioari dagokionez, Ibargarai, Fraiskozuri eta Bideberri itxita egongo dira goizean zehar eta zirkulazio guztia saihesbidetik bideratuko da.

Hori ikusita, Udalak zera eskatu die herritarrei: garajea dutenei autoa bertan sartzea eta gainerakoei herri barruan oinez mugitzea. Gogora ekarri dute, era berean, azken ferietan zorrolapurrak aritu direla eta herritarrei arreta handiz ibiltzeko gomendatu die.

**Bazkariari esker egun osoko festa**

Duela urte batzuk, feria amaitzen zenean, giroak ez zuen jarraipenik izaten. Egoera horri buelta emateko lagun talde bat elkartu eta Udalera jo zuen herri bazkari baterako baliabide eske. Haien bideari erreleboa hartu zion gero Txapa irratiak: "Bazkari aurreko logistika guztiaz eta bazkaria zerbitzatzeaz arduratzen gara, betiere herriko beste talde batzuekin elkarlanean. 30 bat lagun elkartzen gara lanerako; domekarako dena egongo da garbi", adierazi du aurten ere antolakuntza lanean buru-belarri aritu den Andoni Larrañagak. Iaz, lehen aldiz, kontzertua antolatu zuten gauean, gaztetxean; aurten ez da egongo: "Berandu ibili gara eta indar guztiak bazkaria antolatzen jarri ditugu". Dena dago gertu, beraz; orain, eguraldiak laguntzea besterik ez da falta…

**LAGUN TALDE BATEK ABIATUTAKO HERRI BAZKARIARI ESKER FESTA GIROA EGUN OSORA LUZATU DA**

## Asteburu osorako egitaraua

**Gaur, egubakoitza**
- **19:30** Herriko abesbatzen kontzertua, San Pedro elizan: Aritzeta, orfeoia, Sutargi eta parrokiako korua.
- **22:00** Bertso jaialdia, Seminarixoan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Agirre, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia. Sarrera guztiak agortu dira dagoeneko.

**Bihar, zapatua**
- **09:00** Feria irekitzea: abelburuen erakusketa, Euskal Oiloaren erakusketa, makinaria, Eusko Label produktuak eta artisaupostuak.
- **11:00** Bergarako Musika Eskolako trikitilarien, akordeoilarien, txistularien eta dantzarien kalejira.
- **11:00** Eusko Label izendapeneko baserriko txerriaz egindako pintxoen dastatzea San Martin plazan. Taloak seminarioko patioan eta Fraiskozuri plazan.
- **11:30** Jardun euskara elkartearen eskutik, 24. Txorimalo Erakusketa Ibargarai kalean.
- **11:30** Aurtizko joaldunak kaleetan zehar.
- **12:00** Tailerrak, San Martin plazan: bainurako gatz lurrinduak, otargintza, paper marmolatua...
- **12:30** Bergarako trikitilarien emanaldia, Ibargarai kalean.
- **14:00** Herri bazkaria Udal pilotalekuan. Bazkalostea txarangak girotuko du.
- **17:30** Gaztetxoendako zezentxoak seminarioko patioan.
- **Arratsaldean zehar** Kale animazioa txarangarekin.

**Etzi, domeka**
- **18:00** *Go!azen 4.0* ikuskizunaren emanaldia Udal pilotalekuan. Sarrerak agortuta daude.

## Txapak 450 lagun batuko ditu frontoian

Azken urteetan Txapa irratiak antolatzen du herri bazkaria. "Herriko lagun talde baten ekimenez sortu zen ideia duela urte batzuk. Udalari herri baliabideak eskatu zitzaizkion herri bazkaria egiteko; izan ere, garai baten, giroak ez zuen jarraipenik arratsaldean", dio Txapa irratiko Andoni Larrañagak. Gaur kantxa egokituko dute bazkaria egin ahal izateko, eta bihar, zerbitzari eta bestelako lanetan arituko dira. Hilaren 15ean jarri zituzten txartelak salgai, eta orduan saldu zituzten ia guztiak; 450 bat lagun elkartuko dira.

Menua urterokoa izango da: pikatzeko txorizo egosia eta patea, oilasko errea patata frijituekin eta herriko gozotegietan erositako postrea.

# Bernat Etxepare Lizeoari laguntzeko krosa gaur

Aranzadik ikasleendako krosa antolatu du goizerako eta herritar helduendako beste bat 19:00etarako, eta azken horiek dortsala euro bateko prezio sinbolikoan erosteko aukera izango dute 18:30ean, plazan; Baionako ikastolako 60 bat lagun etorriko dira bisitan

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Baionako Bernat Etxepare Lizeoa Ikastolaren aldeko diru bilketa kanpainan laguntzeko elkartasun krosak antolatu dituzte Arizmendi, Txantxiku eta Aranzadi ikastolek. Bergaran, Aranzadi ikastolako ikasleek goizean zehar egingo dituzte krosak; 10:30ean DBHko eta Batxilergoko ikasleek egingo dute korrika, eta 11:30ean, berriz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek.

**Herritarrei deia parte hartzeko**

Ikasleez harago, herritarren parte hartzea ere sustatu gura dute Aranzadikoek, eta horretarako 18:00etatik 20:00etara bitartean azoka solidarioa egingo dute San Martin plazan. "Herriko komertzioek eta familiek egindako ekarpenak dira, eskertzea merezi duen detailea", adierazi dute krosa antolatzearen arduradunek. Ondoren, 19:00etarako, elkartasun kros herrikoia antolatu dute eta honako hau izango da ibilbidea: San Martin plazan egongo dira irteera eta helmuga eta Barrenkale, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri eta Irala kaleak zeharkatuko dituzte. Dortsalak atzo jarri ziren salgai, pintxo pote orduan, Irala kalean. Eta gaur ere, elkartasun krosa hasi baino ordu erdi lehenago (18:30) erosi ahalko dira. Dortsalak euro bateko prezio sinbolikoa izango du eta jasotako diru guztia Baionako Bernat Etxepare Lizeoa Ikastola laguntzera bideratuko da; gogora ekarri behar da bigarren hezkuntzako ikastetak euskaraz eskaintzen dituen beste lizeorik ez dela Ipar Euskal Herrian.



**Ziburuko ikastolaren aldeko krosa.** M.T.

**Baionako ikastolakoen bisita**

Hain justu, Baionako ikastolako 60 bat ikasle eta irakasle Bailarara etorriko dira gaur. Goizean bi taldetan banatuko dira: erdiak Bergaran izango dira, eta beste erdiak Arizmendiren Almen gunean. Bergarari dagokionez, 10:00etan hitzaldi bat emango diete DBHko eta Batxilergoko ikasleei, eta 10:30erako krosean hartuko dute parte. Bazkaltzera Almenera joango dira, ikasle guztiak batera egon daitezen.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

## Pentsiodunak tente!

Pentsiodunen protesta oihartzun zabala izaten ari da. Milaka pertsona astero, kaleak hartuz "aski da!" oihukatuz. Zorioneko dardara sortzen ari dira politiko lapur higuingarri guztien aurrean. Gobernuak bizitzaren garestitzea dela eta pentsiodunei ezarritako 0,25eko igoera izan da pazientzia gainezka jarri duena. Bilbon zapatuan egin zen agerraldiak marka guztiak hautsi zituen. 115.000 lagundik gora, Gran Via osoa jendez gainezka! Kalera jo behar da eta gero lapurrei botorik ez eman. Herritarrak asaldatzea da bide bakarra. Madrilgo Gobernutik hitz hutsak eta irainak. Eta Pedro Sanchezek esan duena? Diputatuei soldata 0,25 jaistea proposatuko duela? Ikaragarria, jauna!

Aburto alkateak ere hanka sartze galanta egin du. Manifestazioa udaletxe aurretik abiatzea ez du begi onez ikusten. Haserrea piztu du. "Ehun mila euroko soldata duenak, zer esango du ba!"; "biziarteko soldata ere bermatua izango du!". Alkate jauna, jende uholdea, ohore handia behar luke izan, herriko etxera hurbiltzea. Baina sabaian eta lurrean banaturik ezinezkoa da maitasun ekintza gauzatzea.

## 30.000 euroko partida gazteei emantzipatzen lagundu ahal izateko

Ongizate zinegotzi Mari Carmen Barrenetxeak aditzera eman duenez, gazteei zuzendutako alokairurako laguntzak jasotzeko izen-ematea dagoeneko zabalik dago. "Helburua da gazteei emantzipaziorako baliabideak eta laguntza eskaintzea", adierazi du PSE-EEko zinegotziak. Udalak 30.000 euroko partida bideratuko du laguntza horretara. Udalak diru-laguntza lerro hori atera duen bigarren urtea da aurtengoa; iaz zortzi bergararrek jaso zuten.

Laguntza jasotzeko baldintza nagusiak dira 18 eta 30 urte arte izatea, eta Bergaran erroldatuta egotea gutxienez azken bi urteetan etenik gabe. Gainera, gehienez 250 euroko laguntza jasoko du interesdunak –Udalak asko jota alokairuaren %50 ordainduko du– eta kontratuaren iraupena urtebetekoa izan beharko da gutxienez.



# Iragana ondo errepasatu, etorkizunari begiratzeko

Liburuaren aurkezpenean argi geratu zen, Miguel Angel Elkoroberezibar egileak berak adierazi zuenez, Pol-Pol Mendizale Taldea oso errotuta dagoela bergararren artean; gainera, egoitza berria inauguratu dute San Pedro kalean, jabetzan duten lehen lokala

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Zapatu eguerdian udaletxeko osoko bilkuren aretoak erakutsi zuen irudia seinale ezin esanguratsuagoa da Pol-Pol Mendizale Taldea, herrian, noraino errotuta dagoen erakusteko. Izan ere, Miguel Angel Elkoroberezibar ikertzaile bergararrak egindako *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat 1942-2017* liburuaren aurkezpenean osoko bilkuren aretoa txiki geratu zen, hainbat herritar zutik geratu behar izan ziren. Adineko jendea nagusi, eta horietako asko Elkoroberezibarren liburuan ezinbesteko protagonista izan direnak.



Udaletxeko osoko bilkuren aretoa txiki geratu zen liburuaren aurkezpenean. I.S.

**Egilea, "hunkituta eta oso pozik"**

Aurkezpena hasi aurretik eta bukatu ondoren liburuak sinatu eta sinatu ibili zen Elkoroberezibar, herritarrekin solasean eta anekdotak gogoratzen. "Hunkituta" zegoela nabarmendu zuen liburuaren aurkezpenean hitza hartu eta gutxira: "Hunkituta nago eta pozik, oso pozik, zuek hemen ikusteagatik. Irudi hau froga argia da Pol-Pola herrian erabat errotuta dagoela, historia handikoa dela eta etorkizuna ere oparoa izango duela".

**Alkatea: "Balio berezia dauka"**

Udalak diruz lagundu du proiektua eta aurkezpenean Elena Lete alkateak nabarmendu zuen liburua udaletxean aurkeztea "momentu garrantzitsua" dela: "Balio berezia du liburuak herriko denetariko testigantzak jasotzen direlako".

**Urkiza: "Erreferente argiak dira"**

Liburua posible izateko finantziazioan lagundu duen ezinbesteko eragileetako bat izan da Gipuzkoako Mendizale Federazioa, eta aurkezpenean izan zen federazioko presidente Lauri Urkiza. Bergarako mendizale taldea federazioarendako "erreferente argia" izan dela esan zuen, besteak beste: "1985ean Pol-Polen eta beste 30 mendi elkarteren artean, Pol-Pol gidari zela, eman zitzaion gorputza gaur egungo federazioari. Horregatik, federaziotik apenas dugu ezer gaineratzeko Pol-Polek ez dakienik; gu eurengandik elikatzen gara, eta beraz eskerrak ematea besterik ezin dugu egin". Udalaz eta federazioaz gain, herriko hamabi enpresak babestu dute liburua.

Ekitaldi amaieran Alai taldeak mendiarekin lotutako hiru abesti kantatu zituen; tartean, herritarren laguntzarekin abestu zuten Pol-Polen ereserkia.

**Lokal propioa azkenean**

Liburuaz gain, *polpoldarrek* lokal berria inauguratu zuten domekan, San Pedro kaleko 10. zenbakian. Elkartearen jabetzako egoitza izango da, lehen aldiz 76 urtetan. Inaugurazio ekitaldia aprobetxatu zuten hainbat herritarrek liburua erosteko. Izan ere, liburua eskuratu gura dutenek, lokal inauguratu berriaz gain, Mizpildi okindegian, Subijai dendan, Onena tindategian, Depor tabernan eta kultura etxean dute salgai, 15 eurotan. Gogora ekarri behar da Pol-Pol bera izan dela argitaratzailea. Liburua mendian hildako Donato Azkarate, Nati Muguruza, Xabin Ezpeleta, Peio Elkoroiribe, Jose Ramon Lete, Maria Jesus Perez eta Joxe Mari Gabilondo bergararrei dago eskainita, eta gero, hamarkadaka dago egituratuta.

208 orrialdetan 450 argazki baino gehiago aurki daitezke, eta aipatzekoa da egileak erretratu horietako herritarrak identifikatzeko hartu duen lana, argazki oinetan protagonistak izen abizenez ageri dira-eta.

**Hamabostaldiko azken ekintzak**

Liburuaren aurkezpena Mendi hamabostaldiaren lehen ekintza izan zen, eta ekimena borobiltzeko bi ekintza falta dira: hilaren 26an, Josean Mulasek *Escalar la vida* filma eskainiko du; eta, hilaren 27an, Diego Dulanto, haitzuloetako eta simetako erreskateez arituko da. Bi saioak lokal berrian izango dira, 19:00etan.

**HAMABOSTALDIKO AZKEN BI EKINTZAK: MULAS ETA DULANTO HILAREN 26AN ETA 27AN, LOKAL BERRIAN**

## GORA ETA BEHERA

### Matxiategi auzoko landareak kentzea, belardi bihurtzeko

Matxiategi kaleko 13. eta 33. atari bitarteko bizilagunek eskatu dute bertako landare "antiestetikoak" kendu eta belardi bihurtzeko: "Animaliak hilda agertu dira, zaborra pilatzen da, lurra hondoratu...". Azaldu dutenez, iazko azaroan Udalera jo zuten baina oraindik ez dute erantzunik jaso.



MATXIATEGIKO BIZILAGUNAK

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*

## Etorkinendako euskara ikastaroa antolatu du Udal Euskaltegiak

Euskara ikasteko interesa duten etorkinei eskaintza berezia egiten zaie Aisa ikastaroen bidez. 60 orduko ikastaroa antolatu du Udal Euskaltegiak, HABErekin eta Udalarekin elkarlanean. 16 urtetik gorakoei zuzendua, 60 orduko harrera ikastaroa izango da asteko hiru egunetan banatuta. Izena eman behar da martxoaren 27a baino lehen, Udal Euskaltegian –Irizar jauregian– edo 943 76 44 53 telefono zenbakira deituta. Prezioa da hamar eurokoa; behin tailerra amaituta, itzuli egingo da kopuru hori, ikasleak, gutxienez, %85eko asistentzia izan badu. Eskariak jaso ondoren zehaztuko da klaseen ordutegia.

## Nanozientzia herriari gerturatzeko jaialdia Laboratoriumean

*10AlaMenos9* izeneko nanozientzia eta nanoteknologia jaialdia Bergaran egingo da (ikus 5. orria). Ekimenaren helburua da eskala nanometrikoa eta haren eraginak adin guztietako publikoari hurbiltzea modu erraz baten, eta horretarako, erakusketa, tailerrak eta hitzaldiak antolatu dira Laboratorium museoan. Gaur aurkeztuko dute jaialdiaren egitarau zehatza; aurkezpen ekitaldian parte hartuko dute nanoGUNEko Luis Huesok eta Itziar Otegik eta Udaleko zinegotzi Maite Agirrek eta Sabino Azkaratek. *Ibilaldi bat nanomunduan barrena* izeneko erakusketa, adibidez, gaur irekiko dute eta maiatzaren 6ra arte egongo da zabalik.

## OHARRAK

### San Joxepe: irteera

San Joxepeko erretiratuek apirilaren 18an mendi buelta egingo dute Bergara, Zumarraga eta Orereta artean. Izena eman daiteke martxoaren 26tik apirilaren 8ra, elkartearen egoitzan.

### 'Guk emakumeok'

Martxanterek antolatutako herriko 25 artisten artelanak Aroztegin ikusgai dituen erakusketa etzi itxiko dute.

### 'Euskara lapikoan'

Auzokok, Bizikasik eta Jardunek antolatutako *Euskara lapikoan* ekimenaren azken saioa da gaur; helburua da oinarrizko euskara eta sukaldaritza jorratzea.



Labegaraietako kantxa eta rokodromoa; berritu egingo dituzte horiek ere. JOKIN BEREZIARTUA

# Labegaraietako obrak 2019an hasiko dituzte

Oraindik behin betiko proiektua onartu barik dago eta kirol elkarteei esan zaie orain dela ekarpenak egiteko unea. Bestalde, kirol elkarteei zuzendutako diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela gogorarazi dute; apirilaren 19an amaituko da

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Udalak deituta, hamabost kirol elkartetako ordezkariak batzartu ziren Agorrosinen, martitzenean. Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak esan du "erantzun polita" izan zuela deialdiak. Hainbat gai landu zituzten, tartean diru-laguntzena. Ugarteburuk kirol elkarteetako ordezkariei nabarmendu zien epeak betetzeko garrantzia: "Buletinean argitaratu da dagoeneko aurtengo diru-laguntzen deialdia. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 19an amaituko da. Hori baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak udaletxean".

**Instalazioen erabilera**

Kirol eraikinen inguruko gaia "korapilatsua" izan zela dio Ugarteburuk. "Arazoak ditugu eraikin publikoetan; batez ere, Labegaraietan eta Ipintzan erabiltzaile asko daude, eta askotan, horien portaera ez da batere egokia izaten". Azaldu du abisu asko eman dituztela eta muga batera iristen ari direla: "Apurketek eta ez betetze larri batzuk jarraituz gero neurriak hartu beharko ditugu. Izan ere, onartu ezin daitezkeen gauzak gertatzen dira", gaineratu du. "Entrenamendu orduetan, desordena asko, gauza asko apurtu… eskatu nahi duguna da erabiltzaileek egin dezatela erabilera egoki bat, bestela denok gara kaltetuak", dio.

**Obrak egingo dituzte**

Udalak kirol eraikinen berrikuntza egiteko proiektua dauka, eta oraindik aurreproiektuarekin dabiltzan arren, asmoa da 2019an obrekin hastea. Labegaraietako eraikina da berrituko dutena, eta obra horiek eragina izango dute kirol elkarteengan. "Hasiera batean, kiroldegia erabiltzen dutenek ez dute kalterik nabarituko, baina bai Beti-Bustik eta Lokatzak. Horiek kiroldegi ondoko biltegia erabiltzen dute, eta asmoa da, biltegi hori botatzea", azaldu du Ugarteburuk. Kirol teknikariak azaldu du elkarte horiei beste aukera batzuk eskaini beharko dizkietela.

Egingo diren lanak honakoak dira: biltegia bota, aldagela berriak egin; eta, eraikin dena berritu –kantxa, materiala, sarrerak, irisgarritasuna, rokodromoa berrituko da eta gimnasioa egingo da–. Ugarteburuk azaldu du orain dela momentua proiektuari ekarpenak egin eta behin betikoa zehazteko.

**KIROL ELKARTEEK APIRILAREN 19RA ARTE EGIN DITZAKETE DIRU-LAGUNTZA ESKAERAK**

**Kirolaren gaineko erakusketa**

Bergararen 750. urteurrenaren harira Bergarako historiaren argazki bilduma egin gura dute. Asmoa da erakusketa ekainaren 8an zabaltzea, Agorrosinen. 60 bat argazki erakutsiko dituzte.



Lide Albeniz baloiarekin, aurkaria atzetik duela. IMANOL SORIANO

## Kadete mailako futbol jokalari onenak izango dira Ipintzan

Gipuzkoako Futbol Federazioaren mendeurrenaren harira selekzioen arteko txapelketa, apirilaren 4an

**A.E.** BERGARA

Kadete mailako Emakumezkoen Hiruko Txapelketa jokatuko da Ipintzan apirilaren 4an. Kadete mailako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako selekzioek jokatuko dute elkarren aurka. Txapelketa Gipuzkoako Futbol Federazioaren 100. urteurrenaren ospakizunen barruan kokatzen da.

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzako kideak pozik daude: "Maila honetako txapelketa bat izatea oso garrantzitsua da guretzat, emakumezko futbolaren alde azken urte hauten egiten gabiltzan lana sendotzeko. Azken urteetan hazkunde handia eman da herriko emakumezkoen futbolean eta eurei zuzendutako ekintza izango da". Kadete mailan Euskadiko jokalari onenak "etxean bertan ikusteko aukera izango dute gure futbolariek", gaineratu dute. Gipuzkoako selekzioarekin, gainera, Ane Larrañagak jokatuko du. "Taldeko beste hiru jokalarik ere jaso dute selekzioarekin jokatzeko deia baina Aste Santuko opor egunak izanik, pena handiz, deialdiari ezezkoa eman behar izan diote kanpoan direlako", gehitu dute zuzendaritzako kideek.

Txapelketa 17:00etan hasiko da. Lehenengo partidua Arabak eta Bizkaiak jokatuko dute; ondoren, talde galtzaileak Gipuzkoaren aurka neurtuko ditu indarrak; eta azkenik, talde irabazleak jokatuko du Gipuzkoaren aurka.

**Igoera fasea jokatzen**

Igoera faseari dagokionez, Bergarako emakumezko taldeak Ostadar hartuko du bihar, zapatua, 15:30ean, Ipintzan. Bergara sailkapeneko zazpigarren postuan dago 13 punturekin. Ostadar atzean du sailkapenean.

### C.D. Internacional taldea izango dute aurrean mahoneroek

C.D. Internacional donostiarren aurka jokatuko dute bergararrek, gaur, egubakoitza, 20:30ean, Labegaraietan. Gipuzkoako bigarren mailan jokatzen duen saskibaloi taldeak gogor egin beharko du lan aurkaria gainditzeko. Donostiarrak sailkapeneko laugarren postuan daude, eta etxekoak zazpigarrenean –lau puntuko aldea dute–.

### Eskubaloi taldeak bihar goizean jokatuko du etxean

Soraluce BKE-k Egia Kosko taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, 11:30ean, Labegaraietan. Mahoneroak etxetik kanpo partidua irabaztetik datoz –Leizaranen aurka 23-30–, eta bolada horri eutsi nahi diote etxean. Egia Kosko talde indartsua da, laugarren postuan dago 26 punturekin. Bergarak 18 puntu ditu eta 8.ak dira.



Bergarako Aritzeta Abesbatza entseatzen. GOIENA

# Erramu zapaturako Kultura eskaintza zabala

Hilzoriko Kristoaren omenezko kontzertua eskainiko dute gaur, Bergarako Orfeoiak, Koru Parrokialak eta Aritzeta Abesbatzak, San Pedro parrokian, 20:00etan. Amaitzeko, hiru koruek batera, Eustakio Azkarate-Askasuaren 'Liberame' kantua abestuko dute

**Imanol Beloki** BERGARA

Egubakoitzean, 20:00etan, herriko abesbatzen doako kontzertua izango da San Pedro parrokian. Bergarako Orfeoia, Koru Parrokialak eta Aritzeta Abesbatza izango dira kantuan, eta Hilzoriko Kristoaren omenezko kontzertua izango da.

Otsailaren 17an ekarri zuten bueltan Bergarako Hilzoriko Kristoa, San Pedro elizara, Sevillako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Andaluziako Institutuan egindako berreskuratze lanen ostean. Hala, honen omenez kontzertua prestatu dute herriko abesbatzek. Hala adierazi du Jon Molina Bergarako parrokoak: "Abesbatza bakoitzak hiru edo lau pieza kantatuko ditu, eta hiru abesbatzek Aste Santuarekin harreman duten kantuak egingo dituzte. Hilzoriko Kristoa Bergarara bueltan ekarri dutela-eta, hau gurtzeko emanaldia izango da, eta herritarrei bertaratzeko deia egiten diegu".

**Hiru koruak batera**

Bergarako Orfeoia, Aitor Biain oñatiarraren gidaritzapean igoko da oholtzara; Koru Parrokiala, Rosa Narbaizaren gidaritzapean; eta Aritzeta Abesbatzatza, berriz, Imanol Urtzelaik zuzenduta. Hala, doako emanaldi "ederra" izango dela adierazi du Jon Molinak: "Ikuskizun bikaina izango dela aurreikusten dugu, eta doakoa den arren, poltsa pasako dugu ostean, norbaitek zerbait eman gura badu, kapila konpondu izana ordaindu ahal izateko…".

Emanaldiari amaiera emateko, hiru koruek batera, Don Eustakio Azkarate-Askasuaren *Liberame* kantua abestuko dute. Asko entseatu dute hiru koruek batera kantu hau, eta ikuskizuna borobiltzeko kantu izarra izango da.

**BERTSO JAIALDIRAKO ETA 'GO!AZEN' IKUSKIZUNERAKO SARRERA GUZTIAK AGORTUTA DAUDE**

**Bertso jaialdia Seminarixoan**

Urtero moduan, Erramu Zapatu Bezperako Bertso Jaialdia ere egingo da, eta maila handiko bertsolariak izango dira oholtza gainean. Gaur, 22:00etan da emanaldia, eta sarrera guztiak agortu dira. Gainera, plaza bikaina estreinatzeko aukera izango dute bertsolariek; izan ere, Semenarixoan egingo den lehen bertso jaialdia izango da.

Puntako bertsolariak hartuko dute parte jaialdian: Andoni Egañak, Maialen Lujanbiok, Unai Agirrek, Aitor Sarriegik eta Iker Zubeldiak.

**Txikienentzako, 'Go!azen'**

Etxeko txikienak, berriz, domekarako zain egongo dira. Izan ere, 18:00etan hasiko da, Bergarako Udal pilotalekuan, *Go!azen 4.0* ikuskizuna. Sarrerak agortuta daude dagoeneko.



LATOX osatzen duten Txus Arriaran eta Laida Ballesteros. BET-BERGARA

## Bergarako elektronika topaketa aurretik motorrak berotzera

'betFest 05' musika elektroniko jaialdia, apirilaren 7an izango da kartzela zaharrean, 23:00etatik aurrera

**I.B.** BERGARA

Bergaran ospatzen den BET (Bergarako Elektronika Topaketa) elektronika musika jaialdiak aurten lau urte beteko ditu, eta ekainaren 2an izango den arren, motorrak berotzen hasteko, *BetFEST 05* jaialdia izango da apirilaren 7an, Bergarako gaztetxean, 23:00etatik aurrera.

Sarrerak bost euro balioko ditu, eta egunean bertan leihatilan erosi beharko dira. Hala, urtean zehar egiten diren *betFEST* jaialdietatik azkena izango da, BET jaialdi elektroniko handiaren aurretik.

**LATOX talde beteranoa**

Apirilaren 7ko kontzertuan, Bergarako talde beterano bat izango da zuzenekoa eskaintzen oholtza gainean, LATOX taldea, hain zuzen ere. Txus Arriaran eta Laida Ballesterosek osatzen dute taldea, eta musika instrumentala egiten dute. Bateria elektronikoa sintetizatzaileaz uztartuz, ohiko ereduetatik aldentzen den musika berria ezagutzeko asmoarekin igoko dira oholtzara.

Ostean, BET DJak jarraituko dute musika jartzen, eta hasieratik bukaerara arte, VJak (video-jockey) izango dira bideo proiekzioak jartzen.

**Urtez urte hobetzen**

Jokin Guridi antolaketa taldeko kideak azpimarratu duenez, apirilaren 7ko *betFEST* jaialdia, BET jaialdi handirako pizgarri bat izango da. "Apirilaren 7an, batez ere, herrikoek hartuko dute garrantzia. BET jaialdirako, berriz, kartela amaitzen ari gara, eta talde handiak ekarriko ditugu. Hala, urtez urte arrakastatsuagoa izaten ari den topaketa da, eta handitzen joatea da gure asmoa".

## Haurrentzako eta helduentzako ipuin kontaketak

Gaur, 18:00etan, Lupe Lekuonak ipuin kontaketa eskainiko du haurrentzat, Bergarako Udal liburutegian.

Fantasiazko ipuinak, euskal ipuin tradizionalak eta egungo idazleen ipuinak kontatzen ditu Lekuonak, eta beraz, ipotx, sorgin, printze edo erraldoiei buruzko kontakizunak entzun ahal izango dituzte gaurko saiora bertaratzen diren haurrek. Lau urtetik gorako umeei zuzendutako saioa izango da.

Hilaren 27an, martitzenean, berriz, helduendako ipuin kontaketa eskainiko du 2018ko Ahoz Aho, Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdian urrezko kalabaza jaso berri duen Virginia Imaz ipuin kontalari donostiarrak. Oihulari Klown taldeko sortzaile, antzerki zuzendari, eta ipuin kontalariak gaztelerazko saioa eskainiko du, 19:00etan, Bergarako Udal liburutegian.



# BARRU

**GOIENA TELEBISTA, "DEBAGOIENEKO ESKALATZAILE TALDEA"**

ZAPATUAN 14:30EAN / DOMEKAN 18:30EAN ETA 20:30EAN

**AZKEN BOLADAN ESKALADA IZATEN DABILEN GORAKADA IKUSITA XABIER URZELAI BAILARAKO TALDEKO ORDEZKARIEKIN IZAN DA**

goiena"

Zu hemen zaude.



Aitor Gorosabel, Josune Arakistain eta Iker Barandiaran, Torresoroa aretoan. MAIDER ARREGI

# Euskara eta musikaren harremana, aztergai

Asteon Torresoroa aretoan batu dira euskal musikari bi aztertzeko euskarak musikaren esparruan izan duen eragina. Musikan aditua den Iker Barandiaranek mahaiaren bueltan elkartu zituen Aitor Gorosabel eta Josune Arakistain

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Euskara Sailak antolatuta, bigarren mahai ingurua egin dute. Oraingoan, euskarak musikaren esparruan izan duen eragina aztertu dute bi musikarik: Huntza taldeko Josune Arakistainek eta Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabelek. Iker Barandiaran kazetariak eta musika adituak gidatu du solasaldia.

Mahai gainean musika eta euskararekin lotura duten hainbat gai izan dituzte; baina, belaunaldi ezberdinetako bi musikariak bat datoz abestiak euskaraz egin eta abestearen atzean sentimendua dagoela. Izan ere, bien ama hizkuntza euskara da eta modu naturalean intuizioz, euskaraz sortzen dutela azaldu dute. "Euskara nire ama hizkuntza da eta eguneroko bizitza euskaraz egiten dut; bai familiaz, lagunekin, ikasketetan... Pentsatu gabeko hautua izan da euskaraz kantatzearena", azaldu du Huntza taldeko Josune Arakistainek.

Ildo beretik, Aitor Gorosabel Su Ta Gar taldeko musikariak euskaraz egitearen hautuaz jardun du: "Nahi gabean izan zen, Guk heavya egin gura genuen eta ez genuen hizkuntzan pentsatu. Egia esan gazteleraz hasi behar ginen abesten. Lehen abestiaren letra, lagun batek egin zigun eta gazteleraz zen. Baina ezin izan nuen. Inolako aurreiritzirik gabe hasi nintzen gazteleraz abesten baina ezin izan nuen. Ohartu nintzen barrutik ez zitzaidala ateratzen".

**Euskara balioan**

Eta euskaraz abesteak mugarik jarri dizkie Su Ta Gar eta Huntza musika taldeen ibilbideei? Ala ez dute aparteko eraginik bizi izan? "Hemendik kanpo ez zaituzte ulertzen eta barrera bat izan daiteke, baina ez du zertan", dio Arakistainek. "Profesionalki mugatzen zaitu merkatua ere txikia delako; baina agian gazteleraz edo ingelesez hasiko bagina ez dakit heldu garen lekuraino iritsiko ginatekeen", nabarmendu du Gorosabelek.

**"HEAVYA ENTZUTEA ETA EGITEA ERDAL GIROAZ LOTZEN ZEN SASOI HARTAN; PUNKA ALDIZ EZ"**

Gorosabelek azaldu du sasoi hartan heavy musika entzuten zutenak erdaldun gisa identifikatuak zeudela, eta punk jarraitzaileak, aldiz, euskaldunekin lotzen zirela. "Heavya entzuten zenuela esatea ez zegoen ondo ikusia. Eta Su Ta Gar taldeak hori apurtu egin zuen", kontatu du Barandiaran kazetariak.

Musikariak, bi belaunaldi ezberdinekoak izanda, musika entzuteko euskarriak eta modu ezberdinak ere izan dituzte berbagai. Hala, diskoen, LPen edota egungo gazteek egiten duten gustuko abestien nahasketen gainean ere egin dute berba mahai-inguruan.



Talde ezberdinen arteko batzarrak Torresoroan. 'ANTZUOLA EITTEN'

## Antzuolaren "norabidea eta etorkizuna" geroz eta argiago

'Antzuola eitten' ekimenaren bigarren fasea amaitu da; orain, hirugarren faseari helduko diete herritarrek

**M.A.** ANTZUOLA

*Antzuola eitten* ekimeneko lehen balorazio positiboa egin du Aztiker enpresak: "Hainbat gai atera dira, batzuk errepikatu direnak: kirol azpiegiturak, herritarren parte-hartzea, industria… 118 lagunek parte hartu dute Torresoroa eta Olarango batzarretan". 2030. urteko Antzuola irudikatzeko saiakera egin dute eta norabidea ere argitu dutela dio Aztikerrek. Gaur egungo egoeraren analisia eta Antzuolak dituen indarguneak eta ahulguneak ere identifikatu dituzte herritarrek.

**Hirugarren faserako prest**

Apirila eta maiatza bitartean egingo da hirugarren fasea. "Erabakitako ildo estrategikoetan sakontzeko baliatuko dira batzarrak. Horrela, ildo bakoitzeko bi batzar ireki egingo dira, eta horietan Plan Estrategikoak ildo horretan zein helburu markatuko dituen eta horietara iristeko zein ekintza egin beharko diren landuko da". Batzar guztietan nahi duen orok parte hartzeko aukera izango du.

*Antzuolaeitten.eus* webgunean diagnostikoaren eta batzarren informazio gehiago dago jasoa.

## 'Zutuberrak' antzezlan umoretsua domekan ikusgai

Jon Zubiaga *Osoron* eta Olatz Pagaldai debagoiendarren eskutik *Zutuberrak* antzerki emanaldia ikusteko aukera izango da. Umorez beteriko antzezlana da, baina era berean, euskararen erabileraren gaineko gogoeta egitea duela helburu diote egileek eta aktoreek: "Antzinakoa den gure hizkuntza euskara, bizi dugun garai modernoan eta giro zibernetikoan nola moldatzen den ikusiko dugu. Euskararen erabileraren gainean gogoeta sortaraztea helburu duen umorezko emanaldia izango da".

*Zutuberrak* antzezlana domekan, martxoaren 25ean eskainiko da, 18:30ean, Torresoroan. Sarrera 5 euro da.

## Gure Esku Dago-k bigarren fasea aurkeztuko du

Antzuolako Gure Esku Dago-k, astelehenean, martxoak 26, giza katearen aurkezpena egingo du. Bigarren fasearen nondik norakoak azalduko dizkiete herritarrei.

GED ekimenaren ibilbidearen errepaso laburra egingo da lehenik. Ondoren, 2018ko plangintzaren azalpen bideoa eskainiko dute; eta Herritarron Ituna eta ekainean egingo den giza katearen gaineko xehetasunak emango dituzte GEDko kideek. Saretzearen dinamika zer den eta non eta nola egingo den ere argituko diete antzuolarrei.

Bigarren fase horren aurkezpena, 19:00etan hasiko da, Olaran etxean.

# "Atleta asko eta onak izan ditugu herrian"

**JOSE INAZIO GARITANO** ATLETA OHIA

Gorlako joan-etorria 34 minuturen azpitik egiteko marka Jose Inazio Garitanorena da; hori ontzeko erronka botata dago eta herritarrek izena eman dezakete udaletxean

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Aurten beteko dira 55 urte Jose Inazio Garitano atleta antzuolarrak 34 minutu eta 46 segundotan Gorla igotzeko apustua irabazi zuela. Orain, herritarrei bota die hordagoa marka hori gainditzeko.

**Nolatan sortu zen Gorlako apustua egiteko aukera?**

1963an Lasarteko lasterketa egin nuen eta gazteen mailan 14. helmugaratu nintzen. Espainia osoko lasterkariak zeuden eta emaitza oso ona izan zen. Orduan sortu zen bi lagun talderen arteko Gorlako apustua. Antiguako tabernan adostu genituen bi taldeok baldintzak.

**Eta zuk irabazi zenuen desafioa.**

Bai, nik eta nire taldeak. Plazatik irten eta Gorlako aterpetxerainoko joan-etorria 45 minuturen azpitik egitea zen apustua. 34 minutu eta 46 segundotan egin nuen nik desnibel handia duen zazpi kilometroko lasterketa. 06:15ean abiatu ginen –ekaina zen eta argi zegoen– eta 07:00etarako iritsita egon behar ginen irabazteko. Tartean, herritarrak mezetara joan ziren, baina espero baino lehenago heldu nintzenez, ez zuten lasterketaren bukaera ikusi askok.



Jose Inazio Garitano, Antzuolako Herriko Plazan. MAIDER ARREGI

**Gorlan lagun asko zegoen?**

Bai, apustua galdu zuten batzuk han izan ziren ea erronka betetzen nuen ikusteko. Ondoren guztiok Arin tabernan txuleta jana egin genuen eta galdu zuen taldeak ordaindu.

**Atletismoak baina, indarra izan zuen Antzuolan.**

Futbolik ez zegoen eta atletismoak indar handia zeukan orduan: hesi saltoa, disko jaurtiketa, xabalina... Herrien arteko txapelketak egiten genituen. 90 gaztetxo entrenatzen genituen; zaletasun handia zegoen. Oso talde ona eduki genuen, gainera. Astean hiru bider entrenatzen genuen, eta Espainia mailan parte hartu ere bai; hor dago Antonio Merino atleta. Goretti Fernandez ere txapelduna izan zen kadetetan.

**Ekainean egingo da erronka.**

Bai, lehen asteburuan. Nahiko nuke gazteren batek marka ontzea eta bere izena geratzea. Gure sasoian apustua oso entzutetsua izan zen herrian. Nere marka hausten duen lehenari bazkaria ordainduko diot.

**"APUSTUAN PARTE HARTU GURA DUTENEK UDALETXEAN EMAN DEZAKETE IZENA"**



Garitano, Donostia-Behobia lasterketan. JOSE INAZIO GARITANO

## Lasterketa ugaritan parte hartu du

Jose Inazio Garitanok 1978an Donostiako lehen maratoian parte hartu zuen; baita hurrengoan ere, 1979an egindako lasterketan. Behobia-Donostia lasterketa herrikoian ere hartu zuen parte; hain zuzen ere, maratoia prestatzeko aitzakiarekin.

## Ikazkinen lana ezagutuz

Arrolako Mendi Astea domekan egingo den irteerarekin amaituko dute. Olaranetik 09:00etan abiatuko dira, eta ikazkinek egindako ikatza eta txondor lekuak gertutik ezagutzeko aukera izango da. Arrandari eta Koroso aldera joango dira, eta bertako zuhaitzak aztertuko dituzte. Aurretik, bihar, GPS ikastaroa egingo dute 10:00etan hasita, Olaranen.



ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

## Landatxopeko logo lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Lanak –DINA4 tamainan– Torresoroako bulegoan entregatzeko epea apirilaren 13ra arte dago zabalik

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Landatxope erretiratuen elkarteak logo lehiaketa deitu du. Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake; baita taldeka ere. Lanak aurkezteko epea martxoaren 16tik apirilaren 13ra bitartekoa izango da.

Talde edo pertsona bakoitzak nahi adina proposamen aurkeztu ahal izango ditu. Elkartearen izena –Landatxope– irudiarekin lotuta egon behar da. Marrazkia ere azaldu daiteke edo ez. Azaltzen bada, baina, pertsona nagusiak jarrera osasuntsu eta aktiboan azaldu beharko dira. Eta generoen parekidetasuna bermatu beharko da. Teknika librea izango da eta edozein komunikazio euskarritara egokitu beharrekoa. Lan bakoitzeko gutun azal bat aurkeztuko da. Barruan, gutun-azal txikiago batean, parte-hartzailearen datuak jarriko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.

Saria da 300 euro. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria hutsik gera liteke.

# 2017an 185.847 euroko superabita, Elgetan

Iraitz Lazkano alkatearen esanetan gastu arrunten kapituluan izandako jaitsierak eta zuzeneko zein zeharkako zergetan emandako sarreren igoerak ahalbidetu dute, gehienbat, iazko Udal aurrekontuaren likidazioa positiboa izatea

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Elgetako Udalak 256.884,05 euroko gerakinarekin itxi du 2017ko jarduna. Martitzenean egindako ez ohiko osoko bilkuran eman zuen likidazioaren berri Iraitz Lazkano alkateak. Gaineratu zuen aurreikusitako gastuen betetze maila %90,75 izan dela eta sarreren betetze maila, berriz, %100,58. Zor bizia edo Udalak banketxeekin duen zorra udal aurrekontuaren %33,6 da. Datu horretatik kanpo gelditzen dira Udalak ordaintzeko dituen kalte-ordainak.

Emaitza onak direla baloratu du alkateak. "Oso oso positiboa da", adierazi du."Gastu orokorretarako gelditzen zaigun diruzaintzarako gerakina 256.884 eurokoa da. Zati bat erabili beharko dugu iaz exekutatu barik gelditu ziren hainbat gauzetarako. Esaterako, hilerriko hormaren lanen bigarren zatirako. Izango dira 48.000 euro inguru. Horiek kenduta zertan erabili erabakitzeko gelditūko zaizkigu 210.000 euro inguru", esan du Lazkanok.

2017ko Udal likidazioak iraunkortasun araua, gastu araua eta zor biziaren araua betetzen dituela zehaztu du Udaleko idazkari Gotzon Goikoetxeak. Alkateak zehaztu du aparejadorearen bigarren auziarekin lotutako ordainketa atzeratu izanak ahalbidetu duela gastu araua betetzea.

### 210.000 euro gehiago 2018rako

Eguraldia tarteko hilerriko hormaren konponketa lanen bigarren fasea atzeratu egin da, eta 2018an egin beharko da. Gastu hori aurreikusi beharko da 2018ko aurrekontuan. Atzeratu egin da baita ere Olalde aparejadorearen bigarren auziarekin lotutako ordainketa, 60.000 euro ingurukoa. Bi partida horiek kontuan hartuta Udalak beste 210.988,87 euro izango ditu 2018ko aurrekontuan txertatzeko. Hurrengo asteetan zehaztu beharko dute Udal ordezkariek diru hori zertara bideratu.



Martitzeneko ez ohiko osoko bilkurara bertaratutako Udal ordezkariak. L.Z.

**EMAITZA "OSO OSO POSITIBOA" DELA BALORATU DU ELGETAKO ALKATE IRAITZ LAZKANOK**

### Superabitaren gakoak

Lazkanoren iritzi kudeaketan dago gakoetako bat. Emandako datuen arabera 2017an 80.000 euro aurreztu ditu Udalak gastu arrunten atalean. "Olalderen bigarren auziko ordainketa kenduta ere 80.000 euro gutxiago gastatu ditugu. Ikusten da bai energia kontsumoetan, bai aseguruetan, eta halako pila bat gauzetan aurrezten ari garela urtero-urtero. Uste dut gauzak txukun eginda, ondo kudeatuta, eta horrekin batera, oso garrantzitsuak ez diren gastuak jaitsita eta sarrerak mantenduz edo igota bagabiltzala poliki-poliki lortzen bai kalte-ordainei aurre egitea eta bai dirutxo bat libratzea ezinbestekoak diren mantenu lan batzuetarako eta beste inbertsio batzuk egin ahal izateko", baloratu du.

Gastu arruntean emandako jaitsierarekin batera igo egin dira sarrerak bereziki zuzeneko zein zeharkako zergen kapituluetan. Hori ere bada Lazkanoren ustez likidazioa positiboa izatea ahalbidetu duen beste gakoetako bat. "Zuzeneko zergetan esperotakoa baino 37.000 bat euro gehiago sartu ditugu, eta zeharkako zergetan, berriz, esperotakoa baino askoz ere gehiago. 10.000 euro aurreikusten genituen eta 40.000 izan dira", azaldu du."Hemen kontuan eduki behar da aurten obra garrantzitsuak izan direla bai etxebizitza batzuetan eta baita tailer edo pabiloi batzuetan ere. Horrek eragiten du zeharkako zergetan halako igoera izatea. Egoera koiunturala da", esan du.

Udal aurrekontuaren egonkortasuna betetzen dela azpimarratu du Lazkanok, eta esan Udala gero eta zehatzago ari dela jarduten inbertsioen planifikazioan.

Martitzeneko osoko bilkuran parte hartu zuen oposizioko kide bakarrak modu positiboan baloratu zuen 2017ko likidazioa.

# Neska-mutikoendako artista liburuak egiteko tailerra, gaur

Eskulan saioa proposatu dute Udal liburutegitik eta jakinarazi dute 17:00etan emango diotela hasiera

**L.Z.** ELGETA

Sortze tailerra proposatu dute gaurko, Elgetako liburutegitik. Forma eta eduki ugari izan ditzake artista liburu batek, eta aurreko urtean egindako lehiaketatik abiatuta dator aurtengo eskulan tailerra.

Herriko neska-mutikoei zuzendutako ekintza da, eta 17:00etan emango diote hasiera. "5 urte arteko haurrak heldu batekin etorri behar dira", jakinarazi dute. "Askotariko materialak eskuragarri jarriko ditugun arren nork bere eskulan tresnak zein materiala ekar ditzake", gaineratu dute.

Martxotik maiatzera bitarteko egitarauaren barruan kokatzen da gaurko tailerra. Ipuin saioek zein *Hitzez pitz* solasaldiek jarraipena izango dute. Horrekin batera apirilaren 23an *Liburuak plazara* ekimena izango da liburutegiko arduradunaren eskutik, eta 17:00etan *Bertsol Haritza* izeneko ikuskizuna egingo du Lankuko Ibai Esoainek, 5 eta 11 urte bitartekoendako. Eskolako umeendako bisita gidatuak ere izango dira apirilaren 17an.

## Hainbat plan martxan herrian, banda zabala hedatzeko

Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek programa bat dute indarrean banda zabala industrialdeetara eramateko. "Plangintza horretan Jalotza, Pagatza eta Berraondokua poligonoetara banda zabala eramateko proiektua esleitu zen azaroan", esan dute Gipuzkoako Foru Aldunditik. Gaineratu dute hamasei hilabeteko epean eramango duela operadore batek banda zabala gune horietara. Bestelako erakunde publikoak ere badihardute Elgetan zuntz optikoa hedatzeko ekimenean. Gipuzkoako Foru Aldundia *Landagipuzkoa+* planaren bitartez ari da garatzen konektibitatea herrigunetik 2.000 metro arteko bueltan kokatzen diren higiezin unitateetara. Espainiako gobernuak, berriz, PEBA programaren bitartez esleitu du Elgetara banda zabala eramateko proiektua. Hemezortzi hilabeteko epea dute exekuziorako.

# Elgetako bolatokian jokatuko da Lehendakari Saria, ekainean

Gipuzkoako hiru txirlo txapelketari amaiera emateko izango da bazkariarekin eta omenduekin ekainaren 2an

**L.Z.** ELGETA

Martxan da Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa. Zapatuan jokatuko da bigarren jardunaldia Eibarko Asola Berri bolatokian, eta maiatzaren 26an izango da bederatzigarrena eta azkena Azkoitiko Floreagan.

Sebastian Arantzabal bolari elgetarrak adierazi du aurten bi talde dituela Elgetak txapelketan, eta zortzi bat lagunek dihardutela bertan. Arantzabalekin batera dira taldean Geaxi Ezpeleta zein Xabier Ortuzar, eta Markina aldetik etorri diren bolari berriak aipatu ditu. "Jende gaztea da. Bi taldetan banatuta zortzi edo bederatzi bat lagun izango gara", esan du.

Lehendakari Saria egun bakarrean jokatzen da orain, eta Gipuzkoako txapelketako lehen 64 sailkatuek jokatzen dute.

Txapelketa amaitu eta hurrengo zapatuan izango da aurten, ekainaren 2an. "Egun horretan egingo dira baita ere bazkaria, omenaldia eta Gipuzkoako txapelketako sari banaketa ekitaldia", azaldu du elgetarrak.



Elgetako mendi taldeak uztailean Urdaibai ingurura egindako irteeran ateratako argazkia. KANTSATZEKE MENDI TALDEA

# Hamaika aukera paraje berriak ezagutzeko

Badira urte batzuk Kantsatzeke mendi taldea jaio zela. Ordutik hainbat irteera antolatu dituzte eta egonkortzen joan da herritarren parte hartzea. 2018rako prestatu berri duten irteeren egutegia kaleratu du orain

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Kantsatzeke mendi taldeak gertu du 2018ko irteeren egutegia. Aurten ere bederatzi txango izango dira eta horien artean aurkitzen dira oso urrutira joan barik dauden tontorrak. Esaterako, Aretxabaletako Murumendi –apirilean–, Arrasate eta Elorrio arteko Udalatx –azaroan– eta Gorla, Bergaran. Hain zuzen ere, azken hori zen 2018ko lehen irteera eta aurreko domekarako zegoen iragarrita. Eguraldiak, ordea, ez zuen lagundu eta beste baterako utzi dute.

Bailaratik kanpora Kantsatzeke mendi taldeak egingo dituen irteeren artean aurkitzen dira, berriz, Saseta –maiatzean–, Kristinoen koba –ekainean–, Jata –uztailean–, Ganbo eta Irumugarrieta –irailean–, eta Bargagain –urrian–.

**Intxorta, Eguberri egunean**

Mantendu egingo da, bestalde, abenduaren 25ean Intxorta puntan elkartzeko hitzordua. Jendeak erantzun egiten du, eta aurten ere hamarretakoa egongo da elgetarrendako hain esanguratsua den mendi tontorrean.

## Familiendako irteerek harrera ona

2017an familiendako bi irteera egin zituen Elgetako mendi taldeak, eta erantzun polita izan zuten. Andastora eta Aitzulora izan ziren irteerak udaberrian eta udazkenean. "Erantzun bikaina jaso ondoren aurtengo familientzako bi irteerak ere baieztatzeko moduan gara!", adierazi dute. Oraingoz jakinarazi dutena da maiatz eta urri inguruan izango direla.



Elgetar taldea udaberrian mendi taldearekin Andastora egindako irteeran. L.Z.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## Zuhaitz landaketa eskolan

Kultura Astea egin dute Elgetako Herri Eskolan. Kontu kontari ibili dira ikasleak ikasgela batetik bestera, jokoak eta jolasak ere egin dituzte eta eguneko zentrora ere joan dira bisitan. Abestu eta txirula jo dute erabiltzaileendako. Beste baterako utzi dituzte aurreikusita zeuden irteerak eguraldiagatik, baina zuhaitz batzuen landaketak egin zituzten atzo.

## Tropa frankistak herrian sartu zireneko uneak aurten gogora

'Elgetaren gainbehera' errepresentazioa prestatzeko lanak aurrera doaz, baina boluntarioak behar dira

**L.Z.** ELGETA

Hiru ekitaldiko antzezlana izango da *Elgetaren gainbehera* eta nagusiki Salbador kalean eta Mendizaleen Plazan kokatuko dira jokalekuak. Herriko memoria historikoa lantzeko Elgetako Udalak Intxorta 1937 kultur elkartearekin elkarlanean antolatutako errekreazioa apirilaren 22an izango da aurten. "Ospitale bat irudikatuko dugu botika parean, eta ondoan, egongo dira bi mandoen kuartelak. Plazan, berriz, errefuxiatuak eta gudariak egongo dira eta herriaren ebakuazioa irudikatuko dugu", adierazi dute Intxorta 1937 kultur elkartetik. Elorrioko antzerki taldearen gidaritzapean egingo da aurten errekreazioa. "Ebakuazioaren ondotik irudikatuko ditugu tropa frankistak herrian sartu zireneko uneak eta horrekin batera hainbat herritarrek bizi izandakoak". Boluntarioak behar dira gudari zein frankista lanak egiteko eta baita ere publikoaren kokapena zaintzeko. Atrezzorako materiala ere ongi etorria izango dela adierazi dute.

## Herrixa Dantzan saio berezia domekan 19:00etan Espaloian

**Goiena komunitatea**

Herrixa Dantzan / ELGETA

Lehenengo zatian, Marian Arregi gogoan, Argiaren musikarekin dantzatuko dugu: jauzi bat, Axuri beltza, zortzikoa, sokak, ingurutxoak... Bigarren zatian Shillelagh taldearen *Hemels douwe* CD berriko hainbat pieza dantzatuko ditugu: txotisa, polka, mazurka...

## OHARRAK

### Plastiko bilketa

Baserriko plastikoa jasotzeko zerbitzua izango da martitzenean. Eskaera egiteko deitu aurrez 943 76 25 47 telefono zenbakira.

### Bisita gidatuak

Hurrengo bi domekatan bisita gidatua Intxortako ibilbide tematikora. Izena emateko 943 79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.



Astelehenean egin zuten Paraguai ezagutzeko tertulia saioa izan da egitasmoko lehena. AUZOKO

# Kanpoko herrialdeen berri, hangoen eskutik

Oñatin dauden herritarren kultura eta jatorri anitzetatik abiatuta, elkar ezagutzea du helburu Auzokok antolatu duen 'Herri bat hainbat jatorri' ekimenak. Ekainera bitartean herrialde ezberdinen inguruko ekintzak egingo dituzte Atixena gaztetxean

**Oihana Elortza** OÑATI

Joan den urtean Pakistan ezagutzeko tertulia eta afaria prestatu zuen Auzokok, Oñatin bizi diren pakistandarrek euren jatorrizko herrialdea nolakoa den ezagutzera emateko. "Arrakasta izan zuen ekimen hark. Eta pentsatu genuen errepikatzea. Gure esparrutik atera eta herrira zabaltzea erabaki genuen taldean, eta hala, gaztetxean egingo ditugu aurtengo saioak", azaldu du Auzokoko dinamizatzaile den Julen Korkostegik.

**Herrialdeak**

Paraguai izan da landu duten lehen herrialdea. Hango berri eman zuten Oñatira heldu berri diren paraguaiar batzuk argazkiak proiektatuz, eta atzo, eguena, Paraguain ohikoak diren jakiekin prestatu zuten afaria. Sahara, Nepal eta Dominikar Errepublika izango dira egitasmo honetan sartu diren beste hiru herrialdeak. "Jatorriz horkoak diren herritarrak bizi dira egun Oñatin. Auzokoko kide dira asko. Ideia gustatu zaie eta animatu egin dira. Pozik hartu dute gonbidapena", dio Korkostegik. Asteleheneko saioan hamabost lagun elkartu ziren, eta gustura egon zirela dio, ikusentzuleak zein protagonistak.

**Auzoko**

Kanpotik Oñatira etorritako lagunak herrira eta hizkuntzara, euskarara, hurbiltzeko sortu zuten Auzoko egitasmoa Oñatin duela bost bat urte. Kanpotik etorritakoak eta bertan jaiotakoak elkartzen diren proiektua da, eta astero biltzen dira. "Bidabarrietan dugun lokalean elkartzen gara astelehenetan eta hizketan edo ekintzaren bat egiten pasatzen dugu ordu eta erdi, denok batera. Egunerokotasunari buruz, herriari buruz, euren egoerei buruz... jarduten dugu. Euskara erabiltzen dugu, eurak gure hizkuntza ezagutzea delako Auzokoren helburuetako bat. Baina gure ohiturekin edo herriko martxarekin bat datozen edo antolatzen diren ekintzetan parte hartzea ere gura izaten dugu. Adibidez, pintxo potera joan edo areto futbol txapelketan jokatu ere egin dugu. Egitasmo honetan parte hartuko duten herrialdeetako herritarrak ez ezik, Argentinakoak, Espainiakoak edo Italiakoak ere badira taldean, Oñatin jaiotakoez gain noski", dio Auzokoko dinamizatzaileak.

**TERTULIA SAIOEZ GAIN, TOKIAN TOKIKO JAKIEKIN EGINDAKO AFARIAK ERE ANTOLATU DITUZTE**

**Gaztetxean**

Toki bakoitza ezagutzeko tertulia saioak eta afariak antolatu dituzte gaztetxean. Saio irekiak izango dira guztiak. "Egitasmoa oso ondo hasi da eta horrela jarraitzea gurako genuke".

# Berdintasuna garapenerako apustua dela esan du Landaidak

Berdintasunaren erronkez berba egiten egon da astean Emakundeko zuzendaria batzokian, EAJk gonbidatuta

**O.E.** OÑATI

Eguazten iluntzean egon da Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendaria, Oñatiko batzokian herriko EAJk gonbidatuta. Berdintasunaren alde lanean jarraitu behar dela adierazi du: "Berdintasunerako legearen inguruan egindako balorazioak dio gure gizartean kontzientziazio handia dagoela berdintasunarekiko eta eskaera maila altua dela. Eta horrek behartzen gaitu lanean jarraitzera".



Izaskun Landaida batzokian.

**Erronkak**

Landaidak argi ikusten du "berdintasuna gizartearen garapenerako apustu estrategikoa" dela, eta horixe da berdintasunaren erronketako bat bere ustez. Beste laurak dira: zaintza lanak balioan jartzea eta banatzea, hezkidetzan lanean jarraitzea, emakumeen kontrako indarkeria gabeko gizartea eraikitzea eta norberaren esparrutik berdintasunaren alde egitea.

Martxoaren 8ak izandako erantzunagatik ere zoriondu ditu emakumeak, eta "berdintasunean oinarritutako gizarte baten alde" lanean jarraitzeko deia egin du.

# Epaiketa "politikoa" dela esan du Ainhoa Intxaurrandietak

Apirilaren 12an epaituko dute Iñaki Errazkinekin batera erraustegia gelditzeagatik eta egoeraz jardun du Oñatin

**O.E.** OÑATI

GHK-ko presidente izandako Ainhoa Intxaurrandietaren eta Aldundiko Ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkinen aurkako epaiketaren bueltan elkartasuna adierazteko *Angula ustelak* hitzaldi bira ari da egiten Gipuzkoa Zutik mugimendua Euskal Herrian, eta eguaztenean, Oñatin izan ziren gaiari buruz berba egiten Intxaurrandieta eta Kazetari Kanailako Igor Meltxor. "Erraustegiaren proiektua kaltegarria izateaz gain defizitarioa zelako gelditu genuen. Badakigu gauzak ondo egin genituela, berme juridiko guztiekin. Lurraldeari ehunka milioi euro aurreratu genizkion, eta harro gaude egindakoaz. Lege barruan egin genuen dena, eta argi dago, epaiketa hau politikoa dela, gure aurkakoa, eta eurendako proiektu estrategikoak diren kontuetan eskurik ez sartzeko abisu moduan ikusten dugu", zioen Ainhoa Intxaurrandietak.




Intxaurrandieta eta Meltxor, kultur etxean.

**Bira**

Hitzaldiaren biran elkartasuna sentitu eta informazioa eman dutela ere adierazi du.

# Agintaldia lanean bukatzeko asmoa dute

Agintaldia bukatzeko urtebete pasatxo falta denean, orain artekoari errepasoa eman diote Mikel Biainek eta Lourdes Idoiagak 'Harira' saioan. Segurtasuna, kultura sariak, komunak, kiroldegia eta Olaitturri izan dituzte hizpide, besteak beste

**Oihana Elortza** OÑATI

2019ko ekainean egingo dira hurrengo udal hauteskundeak eta gelditzen diren hamalau hilabeteak "lanean jarraitzeko" tarte moduan ikusten dute Mikel Biainek eta Lourdes Idoiagak, ez atzera kontaketa moduan. Horixe adierazi zuten biek martitzean Goiena Telebistako *Harira* saioan.

Joan den domekan hasi eta asteburu honetan bukatuko den Beratu jaialdiak zabaldu zuen bien arteko eztabaida. Biek ikusten dute ondo proiektua, Oñatin egonkortu eta proiekzio handia izan dezakeena. Kultura aipatuta, kultur sarien berri galdetu zien segidan saioko moderatzaile Eneko Azkarate kazetariak eta hor ez ziren bat etorri. Oñatin sormen handia dagoela ikusten dute biek baina kultura sariak lan horren errekonozimendu moduan ikusten ditu EAJk eta EH Bilduk uste du lana errekonozitu bai baina sariak baino hobea dela kultura politika on bat.



Mikel Biain, Eneko Azkarate eta Lourdes Idoiaga martitzenean Goienan. OIHANE ISASI

### Plangintza

Udaleko alderdi jeltzaleak behin baino gehiagotan esan du Udal Gobernuak "plangintza falta" duela eta hori "barrutik" ezagutu dutela adierazi zuen Lourdes Idoiagak saioan, adibidez batzuk emanez: "nabarmena izan da Udal Gobernuak ez duela inbertsioetarako legealdirako plana. Kiroldegiko prozesua duela lau urte hasi zen eta aurten azterketa egingo da; obra 2019an hasiko dute. Etxaluzeko parkearen aurrekontua 2016an agertu zen; aurten egingo da baina aurrekontu altuagoarekin. Olakuako irisgarritasun plana ez zen hasieratik egin, faseak egin dira. Kale garbiketako prozesuan akatsak egon dira. HAPOa azken hiru urtetan dago aurrekontuetan. Eskatzen dugu hamabost egun emateko proiektuak aztertzeko, ikusteko eta proposamenak egiteko".

**PROIEKTUEZ ETA LANA EGITEKO MODUEZ BERBA EGIN ZUTEN BI UDAL ORDEZKARIEK**

Herritarrak udalaren jarduna ikusten dutela erantzun zuen Biainek eta plangintza faltarena oposizioak behin eta berriz errepikatzen duen esaldia dela "egi bihurtu guran". 2017ko likidazioa bukatuta, "azken hamar urtetan ejekuzio maila altuena izan duen urtea" izan dela aipatu zuen alkateak, "%89ko betetze mailarekin". "Egia da arrazoi teknikoengatik proiektu batzuk puntualki aparkatuta egon direla baina gauzak ondo egin gura ditugulako da. Kiroldegiko kantxa urdina, esaterako, ez da herritarren gustukoa eta izan daiteke lanak azkar egin zirelako. Guk gurago dugu poliki joatea, herritarren eskutik eta adostuta. Kale garbiketaren kudeaketa zuzena berreskuratzea, egin den inbertsio onena izan da; kalte ordainak egongo zirela bagenekien, baina erabaki ona izan da. Olakuari buruz, auzotarrekin elkartu ginen eta irisgarritasun plan ordenatu batekin Olapotora heltzea da asmoa". Kiroldegiaren handitzearen proiektua orduko EAJko, EAko eta HBko zinegotzien adostasunarekin onartu zela zehaztu gura izan zuen Idoiagak.

Kiroldegia nolako izango den proiektua idazten ari dira orain eta alkateak aurreratu du ez dela berririk egingo, egungoa eraberritu baizik: "igerilekuak hiru kale gehiago izango ditu, harmailak egotea ikusten da eta aldagelak tokiz aldatuko dira, adibidez". Jeltzaleek ere ikusten dute igerilekua handitu beharra. Olaiturriri buruz, "beste espazio batzuk aztertu ez izana" bota dute faltan. Olatturrin erabilera anitzeko ekipamendu sozialeko eraikin estali bat egingo dutela aipatu zuen alkateak eta martxan dagoela.

Paseo lekuetako komunak, paretetako kartelak, segurtasuna eta bizikleten ordenantza ere izan zituzten hizpide. Saioa osorik *www.goiena.eus* atarian dago ikusgai.

## Bisita gidatu asko antolatu dituzte Aste Santurako

Kobak, Gomiztegi, Arantzazu, Pottokaleku eta herria ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte

**O.E.** OÑATI

Aste Santuan etorriko diren turistak hartzeko eta bertakoei ere arreta emateko prest du egitaraua Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak. Bisita gidatuak egingo dituzte herri barruan eta baita Arantzazun ere.

Arantzazun, gainera, mota askotako bisita gidatuak egingo dituzte. Santutegia ikusteko izango dira batzuk, baina parketxea eta Gomiztegi ezagutzekoak ere antolatu dituzte. Pottokalekura egingo dituzte irteerak. Arrikrutzeko kobak barrutik ikusteko planak ere eskaintzen ditu Aste Santura begira prestatutako egitarauak eta noski, baina Oñatiko unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko ere. Txokolateixia ere zabalik egongo da txokolatearen eta Oñatiren arteko loturari buruz gehiago jakitzeko.

### Autobusak

Edozein bisita egiteko, aurrez eman behar da izena. Zuzenean tokira bertara deituta egin daiteke edo Turismo Bulegora deitu eta informazioa han eskatuta: 943 78 34 53. Oñati, Arrikrutzeko kobak eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzua ere egongo da Aste Santuan.

## Etxepare Lizeoaren aldeko krosa egingo dute gaur

Bernat Etxepare Lizeoaren aldeko elkartasun krosa egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolak bailarako beste ikastola batzuekin batera antolatuta. Goizean ikasleek egingo dute eta 18:00etan herritarrendako krosa izango da, herri barruan, Foruen plazatik abiatuta. Taberna ere jarriko dute. Dortsala izango da euro bat.

NIRE USTEZ



**AINHOA NEGERUELA**

## Pisako dorrea

Pisako dorrea okertuta egotearen arrazoia argazkia ateratzeko eskua bertan jarri duten turistena da.

Argumentu hori komunikabideetan errepikatuz gero, sinetsi eta defendatu ere egingo genuke; beste hainbesterekin egin dugun bezala.

Denok pertsonak garela ere sinetsi dugu. Baina batzuk hil egiten dira korrika ari direla, ihes egiteko korrika ari direnean, beldurra, orpoz orpo, jarraika dabilkienean are bizkorrago korrika egin behar dutenean. Gero, Lavapiesen, emakume senegaldarrak megafonia hartu eta "gu ere pertsonak gara" gogorarazi beharko du.

Ehunka kilometro eginda, kartzelako garitara iritsiko gara. Ilara. Ez ditugu ezagutzen baina azkeneko bisitako ilarakoen antza dute. Funtzionarioek hatz-marka egiaztatzeko eskatuko digute. Sartu gaitezke bisitara, egiaztatu dute guztiok gaudela estatu espainiarreko parien zerrendan. Guztiok legearen aurrean berdinak garela ere sinetsi dugu; batzuk beste batzuk baino berdinagoak.

Argazkiak ateratzeko turistek eskua Pisako dorrearen bestaldean jarriko balute, dorrea zuzendu egingo lukete, beraz. Batzuk besteen azalean jarriko balira, baina ba al dute hori egiteko beharrik?

## Ekintza bereziak egingo ditu ludotekak plazan, Aste Santuan

Txaloka ludotekak hainbat ekintza antolatu ditu datorren asteko lehen hiru egunetarako eta Pazko Asterako. Egingo dute, adibidez: lorontziak apaindu eta landatu, zirku tailerra, pirata eguna eta ginkana. Martxokoak arratsaldez izango dira apirilekoak, goizez. Foruen plazan egingo dituzte eta eguraldia txarra bada, azokan.



Jon Ander Kortabarria baloiarekin, aurreko domekan, Ordiziaren kontrako partiduan. IMANOL SORIANO

# Bolada txarra iraulita, goraka segi guran

Aloña Mendi futbol taldekoek ez zuten gura moduan hasi bigarren itzulia, baina beherako bideari buelta ematea lortu dute. Orain, galdutako postu horiek berreskuratzeko lanean dihardute. Bergaran dute hurrengo partidua

**Iker Oñate** OÑATI
Garaipenaren bideari helduta, galdutakoa berreskuratu gura dute Aloña Mendi futbol taldeko mutilek. Bada, gura moduan hasi zuten denboraldia, eta hala jardun zuten lehen itzulia bukatu artean. Baina ostekoak ez zuen bide berean jarraitu: puntu asko galdu zituzten bigarren itzuli hasieran. Eta sailkapenean atzera egitea ekarri zien horrek –hirugarren postuan dira orain–.

"Ez dakigu zerk huts egin zuen; halakoetan zaila izan ohi da arrazoi zehatz bat topatzea. Dena den, galdutakoa berreskuratzeko garaiz gabiltza. Beraz, aurrera begiratzea dagokigu, atzekoari begira gelditu barik", azaldu du Gotzon Urzelaik, taldeko entrenatzaileak.

Gauzak horrela, eta azken bi norgehiagokak garaituta, asteburuan dute gora bideari jarraipena emateko aukera; derbia dute bergararen kontra. Zapatuan dute hitzordua, 17:30ean hasita, Ipintza futbol zelaian. Hamabigarren postuan dira bergararrak –hamasei talde ditu txapelketak–.

Dena den, partidu "zaila" aurreikusten du taldeko entrenatzaileak: "Irabazi beharreko partidua da bi taldeontzat. Eta ezin daiteke ahaztu derbia dela. Intentsitate handiko norgehiagoka izango da, seguru. Talde gaztea dute, oso lehiakorra".

Zehatz esanda, balantzak oñatiarren alde egin zuen lehen itzulian: hiru puntuak erdietsi zituzten bergararren kontrako partiduan. "Oso parean jardun genuen bi taldeok. Halakoetan, detaile txikiek erabakitzen dute partidua. Eta hala izan zen". Gauzak horrela, badakite lehen itzulian moduan jardun beharko dutela asteburuan, garaipena lortu gura badute, behintzat.

**"FIDAGARRITASUNA ETA SEGURTASUNA BERRESKURATU DITUGU AZKEN PARTIDUETAN"**

Eta, bestetik, azken partiduetako bideari helduta segitzeko konfiantzaz dihardute Aloña Mendikoek: "Fidagarritasuna eta segurtasuna berreskuratu ditugu azken partiduetan. Gogoz gaude, beherako bidearekin zoratu barik, egoerari buelta ematea lortu dugulako. Esan dezakegu ilusioz heldu garela txapelketako azken txanpara. Garrantzitsua da hori".

### Sei final

Asteburukoarekin, sei partidu dituzte jokatzeke oñatiarrek, irabazi beharrekoak, mailaz igo gura badute. "Porrotak asko zailduko digu bidea", aitortu du Urzelaik. Zehazki, txapelketako lehen sailkatuari dagokio mailaz igotzea; eta igoera faserako txartela erdiesten du bigarrenak. Gaur-gaurkoz, hirugarren postuan da Aloña Mendi –44 puntu–; Tolosa –48 puntu– eta Eibar Urko –50 puntu– ditu aurretik.

## Duatloi Txikiak izandako harrerarekin, "pozik"

Neska-mutikoek aurreko asteburuan izan zuten duatloi proba. 160 parte hartzaile izan ziren guztira

**I.O.** OÑATI
Estreinako aldia zuen Oñatiko Duatloi Txikiak. Eta antolatzaileak "pozik" dira ekinbideak izaniko harrerarekin: "Pozik gaude astebukaerak emandakoarekin. Neska-mutiko ugarik egin zuen bat hitzorduarekin. Giro paregabea izan genuen". Aloña Mendi Triatloi taldeak bultzatuta, benjamin, alebin eta infantil kategorietako neska-mutikoek jardun zuten herriko kaleetan, korrika zein bizikleta gainean. Orotara, 160 parte hartzaile izan zituen hitzorduak.

Gauzak horrela, eta Duatloi Txikiak izaniko "arrakasta" ikusita, antolakuntzako kideek ez dute edizio berri bat egiteko aukera baztertzen. "Orain, aurrera begira dihardugu. Ikusitakoa ikusita, Duatloi Txikia errepikatzea gustatuko litzaiguke", argitu dute. Eta, modu berean, azaldu dute baztertu barik dutela nagusien proba –aurten ez dute egin–. Hori berreskuratzeko lanean dihardute orain. "Ederra litzateke Duatloi Txikia eta nagusien proba egun berean egin ahal izatea", diote.

### Bolada onari eusteko aukera aparta dute Aloña Mendikoek

Bolada onari eutsi guran dihardute Aloña Mendi saskibaloi taldekoek. Eta gora bidean segitzeko aukera aparta dute asteburuko hitzordua. Zapatuan dute partidua, Tolosako Usabal kiroldegian, 16:00etan hasita. Gaur-gaurkoz, bederatzigarren postuan dira oñatiarrak; hamaikagarrenean, Take Orbela Taberna talde tolosarra –hamalau talde daude txapelketan–. Hori horrela, Aloña Mendikoek urrats berria eman dezakete atzeko postuetatik ihesean.

Gainera, aurreko asteburuko partidua irabazita, sailkapenaren aurrealdean dauden taldeengana na gerturatu dira oñatiarrak. Hain zuzen ere, 58-49 garaitu zuen Alde Zaharra –bosgarren postuan da–. Eta, orain, puntu bakarrera dute seigarren sailkatua –Astigarraga–. Hala, helburu berriak finkatzeko moduan dira Aloña Mendikoak.



ARATZ LOSADA

## Hiru domina, Euskal Herri mailan

Euskal Herriko Neguko igeriketa txapelketan izan ziren herriko zenbait igerilari –bederatzi, guztira–. Eta ez ziren esku hutsik itzuli Iruñetik: Nerea Diazek zilarrezko domina bat lortu zuen; eta, brontzezko bi, Ainhoa Redinek. Biek ala biek bizkar erakoan erdietsi zituzten aitortzok, nork bere kategorian. Eta, oro har, "pozik" dira egindako lanarekin.

# 'Oñati Bizirik': musikarien elkarlanetik sortua

Azken urteetako ohiturari jarraiki, *Oñati Bizirik* kantu sorta grabatu dute herriko zenbait musika sortzailek. Era guztietako doinuak izango dira entzungai hogei abesti biltzen dituen lanean. Apirilaren 7rako antolatu dute aurkezpen egitaraua

**Iker Oñate** OÑATI

Bere bidean darrai *Oñati Bizirik* egitasmoak. Azken urteetan bezala, herriko zenbait musika taldek bat egin dute disko bateratua grabatzeko. Eta egindakoa erakusteko unea heldu zaie orain. Apirilaren 7rako antolatu dute aurkezpen egitaraua: 17:00etan emango diote hasiera ekintza sortari, Potx eta Lotx pailazoen emanaldiarekin. Eta hori bukatuta hasiko dituzte kontzertuak –18:30ean–. Bestetik, diskoa eskuratzeko aukera egongo da bertan –sarrerarekin batera emango dute–. 5 euroren truke eskura daiteke sarrera.

Hain zuzen ere, proiektuaren bultzatzaileek duela hamabi urte ekin zioten egitasmoari, eta hiru disko kaleratu dituzte ordutik –laugarrena aurkeztuko dute bi aste barru–. Hori bai, azaldu dutenez, lehen eguneko helburuarekin dihardute: "Beti bezala, euren abestiak plazaratzeko –eta, beraz, ezagutzera emateko– aukera eman gura izan diegu herriko talde zein bakarlari hasiberriei". Zehatz esanda, Valls eta Izar, Aitor Regeiro, Iker Martinez, Gaitzerdi, Herstura, Broken Legacy, Zuen Azkena, Utopia eta Txua izango dira entzungai disko berrian.

Eta horretan geratu barik, bestelako sortzaileak ere gonbidatu dituzte egitasmoan parte hartzera, "herrian bizirik eta aktibo dauden horiek". Gauzak horrela, Urko Arregiren bertsoa, Pobresiaren poesia musikatua zein Potx eta Lotx pailazoen kantu bat ere biltzen ditu diskoak. Esan beharrekoa da, aurtengoan, hogei abesti daudela entzungai *Oñati Bizirik*-en.

### Elkarlanean eraikia

Bultzatzaileen esanetan, "autogestioa" du oinarri egitasmoak. "Besteak beste, guztioi dagokigu diskoari forma ematea, grabazio egunak zehaztea, soinu teknikariarekin ados jartzea eta finantzazio bideak aztertzea", diote. Eta, bide horretan, diskoaren salmenta zein aurkezpen kontzertua dituzte finantzazio bide nagusi.

Bestetik, diskoaren grabazioari dagokionez, orain arte bezala jardun dute: herriko gaztetxean grabatu dute, zuzenean. Otsailaren 3an eta 4an aritu ziren horretan, Iñaki Zubia musika teknikariaren laguntzaz.

### Diskoa, tabernetan salgai

Esan moduan, aurkezpen egunean bertan emango dute diskoa –sarrerarekin batera–. Eta, horren ostean, izango da lan berria eskuratzeko aukerarik ere. Hain zuzen ere, Boga, Arrano, Ona, Pako eta Itturri tabernetan jarriko dituzte diskoak salgai, 4 euroren truke.



Zuen Azkena musika taldea, diskoaren grabazioan, gaztetxean. OÑATI BIZIRIK



AITZIBER ARANBURUZABALA

## Afrikara bidaia, musikaren bidez

Asteon bi emanaldi eskaini dituzte Jose de Azpiazu Musika Eskolakoek Santa Ana antzokian. Afrikarako bidaia irudikatuz, kontinentera jauzi egiteko kantu sorta eskaini zuten martitzenean eta eguaztenean –bi ikuskizun eskaini zituzten–. Hainbaten artean, *Afrikan nago, Zulu gerlariak, The lion sleeps* eta *Banaha* abestiak izan ziren entzungai.




JON BERNAL ETXANIZ

Mariaren Lagundia Ikastolako ikasle bergararra

GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2018
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

**GAUR EGUN:**
Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko erdi mailako heziketa zikloa ikasten. Lehenengo mailan.

**IBILBIDEA:** DBHtik dator.

**Nola heldu zinen Lanbide Heziketara?**
DBHtik batxilergora pasatu nintzen, baina ikusi nuen hura ez zela nahi nuena eta laga egin nuen.

**Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa? Eta bereziki pertsonen zaintzarekin lotutako ikasketak?**
Nire asmoa zen haur hezkuntza edo hezkuntzarekin lotutako zerbait ikastea, baina erdi-mailan horrelakorik ez dagoenez inguruan, pertsonen arretarekin lotutako hau aukeratu nuen.

**Ze asmorekin heldu zenion Lanbide Heziketari?**
Hasiera batean, erdi-mailako ziklo bat egitera etorri nintzen, ondoren goi-mailakoa egin nahi nuelako. Baina orain konturatu naiz pertsonen zaintzaren arlo hau gustatzen zaidala, eta lanerako ere balioko didala.

**Ze ikasgai mota daukazue?**
Nola zaindu pertsonak, lehen laguntzak, elikadura, gizarte trebetasunak, etxean nola egin garbitasuna, telelaguntza, eta abar. Pare bat ikasgai izan ezik, gainontzekoak praktikoak dira.

**Lanbide Heziketa aukeratu zenuenean gurasoek eta ingurukoek ulertu zuten?**
Hasiera batean batxilergoa bukatzea nahi zuten, baina berehala konturatu ziren neurri handi batean motibazioa zela falta zitzaidana, eta ordutik bai, asko lagundu didate. Orain oso gustura etortzen naiz eskolara.

**Eta hau bukatutakoan ze asmo daukazu?**
Hasiera batean, lana aurkitzen badut arlo honetan, lanean hasiko naiz, eta horrekin batera ikasten jarraitzeko asmoa ere badaukat; agian Gizarte Integrazioa, hemen bertan.

# Ibilbide gogorragoarekin dator Gorlako Igoera

**TXIRRINDULARITZA** Domekan egingo dute Lehendakari Txapelketako Gorlako Igoeraren 44. edizioa. Iaz baino hamabost kilometro gehiago izango ditu lasterketak, 140 guztira: "Taldeetako zuzendarien nahiari kasu eginda gogortu dugu proba"

**Xabier Urzelai** BERGARA

Domekan (10:00) amateur mailako txirrindularitzak denboraldiko zita garrantzitsuetako bat izango du: Lokatzak antolatzen duen Gorlako Igoera. Eta aurtengoa iazkoa baino lasterketa gogorragoa izango da –kilometro kopuruan bai behintzat– 125 kilometro beharrean, ziklistek, 140 kilometro egingo dituztelako, Gorla lehenengo aldiz (11:50) igo aurretik: "Taldeetako zuzendarien nahia entzunez, Espainiako Kopako edota maila handiagoko lasterketen kilometrajera gerturatu gura izan dugu 140 kilometrotako lasterketarekin".

Hala, kilometro horiek lasterketa hasieran egingo dituzte, Osintxu, Bergara eta Zubillaga artean, Gorla lehenengo aldiz igo aurretik –65. kilometroan hasiko dira Gorla igotzen–. Eta ondoren, lasterketako bigarren zatia betikoa izango da, Aizpurutxora jaitsi, eta Udanatik Oñatira joan eta gero Bergaratik pasako dira azkenekoz, Gorlako igoera erabakigarria egiteko (13:30).



Txirrindulariak, iaz, Bergarako saihesbidean. IMANOL SORIANO

### Lasterketa Internet bidez

Ibilbidea gogortzearekin batera, domekara begira beste berrikuntza bat izango du lasterketak; izan ere, Internet bidez, *radio vuelta* entzun ahal izango da lasterketako momentu erabakigarrienetan: "Eta nola ez, Gorlako azken igoera osoa ere eskainiko dugu". Hau posible izango da *mixlr.com/lokatza* linkean.

**DATORREN URTEKO GORLAKO IGOERAN EMAKUMEZKOAK LEHIATZEKO LANEAN DABILTZA LOKATZAN**

### 2019an emakumezkoekin?

Bada, azken urteotan Lokatzakoak emakumezkoen txirrindularitzaren alde egiten dabiltzan lanarekin jarraituta –aurten ere San Martzialgo igoera kronometratua antolatuko dute– antolatzaile bergararren helburua da etorkizun laburrean 23 urtez azpikoen kategoriarekin batera Gorlako Igoeran emakumezkoak ere ikustea dortsala jantzita: "2019an hori posible izan dadin tinko jarraitzen dugu lanean", adierazi dute antolatzaileek.

## Faboritoak eta debagoiendarrak

Irabazteko hautagaien artean, nola ez, iazko irabazlea dago: Eduardo Llacer (Baque-Ideus BH). Harekin batera Lizarte taldeko Marti Marquez kataluniarra izango da gertutik jarraitu beharreko txirrindularia. Horiez gain, San Martin plazako irteeran Mikel Arregi (Eibar Energia) eta Aritz Kortabarria (Grupo Eulen) antzuolarrak ere egongo dira, biak ala biak Lokatzatik pasatakoak.




Iazko irabazle Eduardo Llacer, helmuga gurutzatzen. IMANOL SORIANO

# Azkoaga eta Barajuen auzoetara itzuliko da Openeko zirkuitua

**MENDIKO BIZIKLETA** Domeka goizean egingo dute egutegiko bigarren lasterketa, Aramaion

**X.U** ARAMAIO

Iaz hamar urte bete zituen Aramaioko Openak, eta berrikuntza moduan lasterketak zirkuitu berria izan zuen, Ibarran. Domekan (11:00), baina, ostera ere Azkoagain eta Barajuen inguruetara itzuliko da lasterketa, zirkuitu klasikora.

Bada, Aramaiokoa Euskadiko Open barruan egingo duten bigarren lasterketa izango da. 11:00etan elite mailakoak, 23 urtez azpikoak eta M-30 kategoriakoak abiatuko dira. Jarraian (11:02) gazteek, M-40, M-50 eta M-60 kategoriakoek hasiko dute lasterketa; eta 11:04ean, emakumezkoen eta kadeteen txanda izango da.



Ismael Esteban, iaz Aramaion. I.SORIANO

### Errenterian lehenengoa

Martxoaren 4an egin zuten Openeko lehenengo lasterketa Errenterian –guztira zazpi egingo dituzte, Debagoienean bakarra–, eta bertan bi minutuko aldeagatik irabazi zuen elite mailan Alvaro Carralek (In-Gravity). Bailarako onena Ander Bengoa (SH Metalgraf) izan zen, 11. postuan. Eta 24. postuan sailkatu zen Argider Isasti oñatiarra.

# Uzarragako maldetan lehiatuko dira gazte mailako ziklistak

**TXIRRINDULARITZA** Azken bi edizioetan ziklista oñatiarrak nagusitu dira; 16:00etan hasiko dute proba, bihar

**X.U.** ANTZUOLA

Antzuolako Peña Aiasturen eskutik dator Uzarragako Igoeraren 44. edizioa, eta ikusteko dago hirugarren urtez jarraian lasterketak protagonista oñatiarrak izango dituen. Izan ere, 2016an Xabier Murgiondok jaso zituen besoak Uzarraga gainean, eta iaz beste maillot gorri bat izan zen lehenengoa azaltzen helmuga baino 50 metro beherago dagoen kurban. Garaipen estua izan zen, esprintean erabaki zena, eta hor, Julen Oterok erakutsi zuen azken metroetan azkarra dela. Bada, bihar 16:00etan hasita Debagoieneko hainbat txirrindulari izango dira Antzuolako irteera puntuan.



Julen Otero, iaz. I.SORIANO

### 67 kilometro aurretik

Zapatuan (16:00, Zurrategin) ziklistek 65 kilometro izango dituzte lehiarako Uzarragako azken bi kilometroetan erabat hustu aurretik (67). Antzuolatik Bergarara jaitsiko dira, ondoren Oñatira, eta Bergaratik Antzuolara etorrita Deskarga igo eta Legazpira joango dira, Udana igo eta handik Uzarragara zuzen etortzeko (17:40).



Aitor Murua, klubeko gaztetxoekin aste barruan egindako hitzorduan. ARANTZAZU EZKIBEL

# Oztopo taldea, trialsineko bizikletan koskarik ez

**TRIALSINA** Aretxabaletako lagun talde batek sortu du Oztopo Trialsin Taldea. Apirilaren 8an Gipuzkoako Txapelketako laugarren proba antolatuko dute, eta puntako pilotuak espero dituzte; klubeko ateak zabalik daude gazte debagoiendarrendako

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

"Iaz guraso talde bat jarri zen nirekin harremanetan, trialsin taldeari bultzada emateko asmoarekin. Eta, aurten erabaki dugu kluba ofizialki eratzea, diru-laguntzak eskatu behar baditugu, aseguruendako... Hau da, seriotasun handiagoa izan dezan", adierazi dio aste barruan Aitor Muruak GOIENAri.

**Gipuzkoako Txapelketa**

Bada, klub moduan neska-mutikoei trialsina gertutik erakusteko helburua dute batetik, baina txapelketak ere antolatuko dituzte. Esaterako, apirilaren 8an Gipuzkoako probako laugarren proba ekarriko dute Aretxabaletara: "Porrukutxa –Hilerri ondoan dagoen basoa– inguruan egongo da zirkuituaren zati bat, eta Aretxabaletako sarreran dugun gunean bestea. Gurea lokatz gunea da, eta pilotuek horri egin beharko diote aurre". Bada, Gipuzkoako pilotuen artean mundu mailako erreferenteak direnak ere izango dira: "Jon Areitio edota Irene Caminos moduko pilotuak Aretxabaletan izango dira, iazko Munduko Txapelketan podiumera igo ziren pilotuak dira horiek. Eurekin batera oraindik ezagunak ez diren pilotuak ere izango dira hemen, baina dagoeneko Munduko Txapelketan parte hartzen dabiltzanak; bada, gazteendako polita da halako erreferenteak ondoan izatea. Seguru ikuskizun polita egongo dela".

**Oztopoak gainditzen**

Bada, Oztopo Klubeko lagunekin egindako hitzorduak balio izan du kirol hori gertuagotik ezagutzeko: "Indarra, oreka eta erresistentzia behar dira bizikleta gainean. Txapelketan bost gune egoten dira, eta helburua da gune horietako oztopoak bizikletatik erori barik, ala hanka lurrean jarri barik gainditzea. Horren araberakoa izaten da puntuaketa".

**APIRILAREN 8AN GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO PROBA EGINGO DUTE ARETXABALETAN**

**Taldeko kide izateko**

Oztopo Trialsin Kluba ofizial egiteko lanean dihardute arduradunek, eta taldeko ateak zabal-zabalik dituzte: "Gu zapatu goizetan entrenatzen gara [10:30ean, Aretxabaletako sarreran] eta normalean Aretxabaletan ibiltzen gara. Baina, klubeko ateak ibarreko guztiendako daude zabalik. Gainera, baditugu lauzpabost bizikleta uzteko moduan; hori horrela, kirol hau probatzeko aukera ematen dugu dirurik gastatu barik. Horrenbestez, goiz batean guregana etortzea nahikoa da lehenengo pausoak emateko, edota Facebook bidez jar daitezela harremanetan, orri propioa dugu eta.

## ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

**Arratia-Leintz Arizme.**
Domeka. 13:00. Igorre.

OHOREZKO ERREGIONA.

**Aretxabaleta-Real Uni.**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Mondra-Tolosa**
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Bergara-Touring**
Zapatua. 12:00. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

**Ordizia-Antzuola**
Zapatua. 16:00. Altamira.

**Aretxabaleta-Ikasberri**
Zapatua. 18:15. Ibarra.

**Mondra-Tolosa**
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Bergara-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:30. Ipintza.

EMAKUMEZK. IGOERA.

**Bergara-Ostadar**
Zapatua. 15:30. Ipintza.

EMAKU. KOPA.

**Zarautz-Aloña Mendi**
Zapatua. 11:00. Asti Txiki.

**ARETO FUTBOLA**

NAZIONAL MAILA

**Alipendi-Aretx. UDA**
Zapatua. 18:30. Araia.

EUSKADIKO TXAPELK.

**Bagituxak-Mondrate**
Zapatua. 17:30. Laudio

**Sestao-Eskoriatza**
Domeka. 12:30. Sestao.

**SASKIBALOIA**

EBA

**La Gallofa-MU**
Zapatua. 20:30. Santand.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

**Take Orb.-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Tolosa.

**Erroibide-Alkid. Ointxe!**
Zapatua. 20:00. Irun.

GIP. BIGARREN MAILA

**Bergara Sora.-Interna.**
Gaur. 20:30. Labegaraiet.

EMAKUMEZKOAK

**Atletico S.-Eskoriatza**
Zapatua. 20:00. Aiete.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Donibane-Fagor Indust.**
Zapatua. 18:00. Pasaia.

**Ford Mugarri-Urduliz**
Zapatua. 17:30. Iturripe.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

**Aloña Mendi-Errotaba.**
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Soraluce BKE-Egia**
Zapatua. 11:30. Bergara.

**TXIRRINDULARITZA**

GORLAKO IGOERA

Domeka. 10:00. Bergara

UZARRAGAKO IGOERA

Zapatua. 16:00. Antzuola

**MENDIKO BIZIKLETA**

ARAMAIOKO XI. OPENA

Domeka. 11:00. Aramaio.

### FUTBOLA Realeko ordezkariekin futbol topaketa bereziak

Datorren astelehenean, martxoak 26, egingo dute, Aretxabaletako Ibarrako futbol zelaian, Realeko entrenatzaileekin futbol topaketa berezia. Hitzordua Lehen Hezkuntzako 3,4,5 eta 6ko emakumezko futbol jokalariei zuzenduta dago (15:00-17:00), eta izena eman gura duenak kirolak@arizmendikide.net helbidera idatzi behar du.

### FUTBOLA Emakumezko Hirunako Txapelketa apirilaren 4an

Gipuzkoako Futbol Federazioa ospakizunetan dabil, aurten 100 urte betetzen dituelako. Eta, ospakizun horien barruan antolatu dute kadete mailako Emakumezkoen Hirunako Txapelketa apirilaren 4rako (17:00etan hasita, Ipintzan). Lagunarteko txapelketan Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko selekzioek hartuko dute esku.

### PILOTA Bertan behera Antzuolako jaialdia, lesio bat tarteko

Aitor Mendizabalek etxeko zaleen aurrean jokatu behar zuen Buruz Burukoan egoteko aurretiko partidua, baina joan den astean Astelenan zuntz haustura izan zuen –bi hankatan– eta aste barruan erabaki dute Jakaren kontra jokatu beharreko partidu erabakigarria apirilaren 9ra atzeratzea. Norgehiagoka hori Zumaian jokatuko dute.

### PILOTA Bigarren garaipenaren bila Rezusta eta Elezkano

Oraingo asteburuko Eskuz Binakako partidua irabazten dutenek atzamar puntarekin ukituko dute finalerako txartela. Izan ere, joan den astean Olaizola II.aren eta Imazen kontra galdu izanak fase osoa amaierara arte estutzea ekarri die Elezkanori eta Rezustari. Domekan Altuna eta Martija izango dituzte aurrean, Ogetan.

# Beratu musika jaialdia, guztiondako gozagarri

Gaur hasi eta domeka bitartean, mahai-ingurua, askotariko estilo eta ezaugarrietako kontzertuak, musika industriako profesionalendako topaketak eta haurrendako tailerrak izango dira Oñatiko Udalak askotariko eragileekin antolatu duen egitarauan

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI

Euskal musikaren bertsio hurbila eskaini gura du Oñatiko Udalak herriko askotariko eragilerekin eta Ahotsenea elkartearekin elkarlanean antolatu duen Beratu jaialdiak.

Domekan zabaldu zuten egitaraua Maria Arnal eta Marcel Bages musikarien kontzertuarekin; eta antolatzaileak gustura dira izan zuen harrerarekin. "200 lagun inguru gerturatu ziren. Adin guztietakoak eta herrikoak zein kanpotik etorritakoak, –Debagoieneko beste herrietakoak, Bilbotik, Durangotik, Beasaindik, Donostiatik–... Emanaldi hunkigarria eta liluragarria egin zuten, euren kantuez gain, El Niño de Elcheren bertsioak ere eskainita", azaldu du antolatzaile taldeko Arkaitz Villarrek. "Lan talde polita osatu dugu, eta asteburuan ikusiko dugu emaitza osoa, zaila da aurreikuspenik egitea, era honetako ekimen bat antolatzen dugun lehen aldia delako, baina gure asmoa da jarraikortasuna izango duen jaialdia izatea. Plazera eta hausnarketa konbinatu ditugu: hausnarketa, gaurko mahai-inguruarekin eta bihar goizean Eltzian egingo dugun arloko profesionalek parte hartuko duten jardunaldietan; eta plazera, berriz, kontzertu asko eta onak eskainita. Herritar guztiak animatu gura ditugu ekitaldietan parte hartzera", gaineratu du Nerea Zubiak.



Maria Arnal, Santa Ana aretoan domekan. IMANOL SORIANO

**Profesionalek ere ondo hartua**

Horrelako jaialdiak hiriburuetan antolatzen dira gehienetan, hortaz Oñatiko Udalak egin duen apustua txalotu egin dute profesional askok. "Indartsu dator Beratu, ohore bat da bertan egotea", dio DJ Makalak. La Basu rap abeslariak ere beharrezkoak ikusten ditu halako ekimenak "desinformazio handia dagoelako" haren esanetan.

Villarrek gaineratu du, 25 lagun bilduko dela bihar goizean Eltzian. "Musikariak, managerak, promotoreak, kontzertu aretoetako arduradunak... denetik izango dira, besteak beste, Bilboko BIRA! kultur gunetik, Azpeitiko San Agustin aretotik eta Jazpana jaialdietako lagunak egongo dira. Taldetan banatutako bilerak egingo ditugu hasteko, eta ondoren hiru hitzaldi izango dira; eta borobiltzeko, ondorioak aterako ditugu".

## Egitaraua

**Martxoak 23, ostirala**

- **'Musik Fem' mahai-ingurua** Emakumeek musikaren industrian bizi duten egoerari buruz: Lorea Argarate (Las Tea Party); La Basu, rap abeslaria; Ines Osinaga (Gose) eta Amaia Ispizua (Get In; MIM elkartea, EHME elkartea). Kultura etxean, 19:00etan.
- **Lukiek taldearen kontzertua** Antixena gaztetxean, 22:00etan, doan.

**Martxoak 24, zapatua**

- **'Ahotsenean elkartuko gara' jardunaldiak** Musika industriako profesionalen topaketa, 10:00etan hasita Eltzia eraikinean; ekitaldi itxia izango da. 16:00etatik 20:00era publiko guztiarentzako kontzertu akustikoak: La Basu; Morau; Hiri Galduak eta Inun abeslaria.
- **Delorean eta Lumi taldeen kontzertua** Gaztelekuan, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan.

**Martxoak 25, domeka**

- **Haurrendako musika sortzeko *app* tailerrak** DJ Makalaren eskutik, gaztelekuan.
- **Audience taldearen kontzertua** Gaztelekuan izango da 13:00ean, doan.

Sarrerak aurrez erosteko aukera, *Beratu.eus* atarian.



DJ Makala. BERATU JAIALDIA

## Domekan, Beratu Txiki tailerra

Gailu elektronikoen bidez musika sortzen irakatsiko die DJ Makalak 6 eta 12 urte bitarteko gazteei domekan. "Tock And Roll, Bebot, Djay eta Figure *app*-ekin jolastuz kantuak errez-errez sortuko ditugu. Lehenengo biak, txikienen tailerrean erabiliko ditugu eta beste biak bigarrenean. Etorriko direnei eskatuko nieke aurrez deskargatuta ekartzea programa horiek; era berean, aurikularrak eta telefonoa edo tableta ere ekarri beharko dute. Txikienak gurasoekin etortzea ere eskertuko genuke", dio musikariak.

Bi tailer izango dira: 11:30ean, txikiendako, eta 12:30ean, bigarrena. Izena emateko, idatzi *info@Beratu.eus*-era; gaur da azken eguna.

HURRETIK
GOIENA TELEBISTA,
MARTXOAREN 28AN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ITZIAR ARKAUZ, "LOTX" PAILAZOAREKIN SOLASEAN



goiena
Zu hemen zaude.

## Delorean-ek Mikel Laboaren bertsioak

2000. urtean Zarautzen sortu, baina gaur egun Bartzelonan kokatuta dagoen Delorean laukoteak kontzertua egingo du bihar, zapatua; Baionako Lumi taldea izango da aurretik gaztelekuko agertokian.

**Musika elektronikoa oinarri**
Askotariko musika eraginak dituzten arren, indie-rock elektronikoa du ezaugarri nagusi gaur egun Ekhi Lopetegik, Unai Lazkanok, Guillermo Astrainek eta Igor Escuderok osatzen duten taldeak. 2001ean argitaratu zuten *Silhouets* lehenengo lana, segidan atera zituzten diskoetan moduan, gehienak, ingelesez abestuta. Iazkoan, berriz, Mikel Laboaren hainbat kanturen bertsioak batu zituzten; eta taldeko abeslari Ekhi Lopetegik kontatu du lan hori izango dutela bihar oinarri. "Ez da Delorean-en ohiko saio bat izango. Argiekin... ikuskizun polita egingo dugu, eta diskoko kantuez gainera, Laboaren beste hainbat ere joko ditugu. Lanak izan duen harrerarekin oso pozik gaude; aurreko astean MIM saria jaso genuen Madrilen".



**Delorean laukotea.** ALBA YRUELA

## La Basu berbetan eta kantuan

Betidanik poesia idatzi duela dio Elena Caballero, La Basuk (Etxebarri, 1983), eta 22 urterekin hasi zela rap giroan murgiltzen. Gazteleraz sortu zituen lehenengo kantuak baina euskarazko rap askorik ez zegoela konturatuta, 2015ean *Trakamatraka* abestia sortu zuen Aneguriarekin, eta iaz kaleratu zuen euskaraz, *Ni naiz izotz erregina* lana.

Lanez lepo ari da, baina, gaur egun bere momentu gozoena bizitzen ari dela dio, urte askotan borrokatu duena poliki-poliki lortzen ari dela gaineratuta. "Ezagutzen ditudan gauzei buruz idaztea gustatzen zait, eta askatasunaren inguruan bereziki hitz asko sortu ditut".

**Zuzenean, hirukote formatuan**
Emakumeak oholtza gainean egotea oso garrantzitsua dela dio. "Batzuetan existitzen ez garela dirudielako; bihar, Beti DJ eta Alazne Gutierrez izango ditut lagun. Esateko ere gauza asko ditugunez, oso baliagarria deritzot musika alorrean ere guri hitza ematea, gustura jardungo dut aspaldiko lagunekin gaurko mahai-inguruan berbetan".



**La Basu rap abeslaria.** BERATU JAIALDIA

# Seigarren Kantari borobiltzeko, Amaia antzokian asteburuan

Bihar eta etzi, 16:00etatik 20:00era, hamar saio grabatuko dituzte; guztiontzako daude ateak zabalik

**A. A.** ARRASATE

Zazpi eta hamaika urte bitarteko Aramaioko 30 gaztek –lau taldetan banatuta– eta adin bereko Arrasateko 220 abeslarik –59 taldetan–, egingo dituzten saioekin bukatuko dira Goienak Ikastetxeekin eta Udalekin elkarlanean antolatutako aurtengo Kantariren grabaketak.

Milatik gora parte hartzaile aurten; urtarrilean abiatu zuten Aretxabaletan, handik Oñatira, eta Bergarara gero. "Oraingoan ere ondo prestatuta datoz; koreografia eta kantuak ondo ikasita, eta landutako jantzi eta osagarriekin. "Konfetiekin datoz batzuk; beste batzuk kamiseta pertsonalizatuak egin dituzte; panderoarekin dator beste talde bat... sorpresa eta gonbidatu bereziak ez dira faltako... Politak izan ziren aurreko asteko entseguak; eta guraso batzuk egin ziguten helduentzako Kantari antolatzeko proposamena ere jaso genuen. Eskerrik asko guztioi!", dio Aitor Agirianok.

Goiena Klubaren txokoa

**Euroliga eta izarren liga Goiena Klubean!**

**BASKONIA – MACCABI FOX TEL AVIV**
Partiduroko 4 sarrera bikoitz ditugu.
Martxoaren 29an, 21:00etan.
Parte hartzeko: Maccabi.
Parte hartzeko epea: Martxoaren 26a

**BASKONIA – ANADOLU EFE**
Partiduroko 4 sarrera bikoitz ditugu.
Apirilaren 5ean, 21:00etan.
Parte hartzeko: Anadolu.
Parte hartzeko epea: Martxoaren 27a

**EIBAR – REALA**
Partiduroko 2 sarrera bikoitz ditugu.
Apirilaren 1ean, 18:30ean.
Parte hartzeko: Reala.
Parte hartzeko epea: Martxoaren 26a

**EIBAR – ALAVES**
Partiduroko 2 sarrera bikoitz ditugu.
Apirilaren 15ean.
Parte hartzeko: Alaves.
Parte hartzeko epea: Martxoaren 27a

**PARTE HARTZEKO:**
**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**
TORREKUA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*
*KLUBA Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

**104.ERRENTAN HARTU**

Baserria. 48 urteko mutila baserri bila dabil Bergara inguruan, bertan bizitzeko. Bai jabearekin batera bizitzeko edo errentan hartuta baserriaren zaintzaz arduratzeko. Baserrikoa naiz eta ohituta nago. Baserriko lanetan laguntzeko prest. Edozein kontsultarako, deitu beldur barik zenbaki honetara: 689 09 03 16

Bergara eta Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. 632 77 35 38

Neska euskalduna. Etxebizitza bila nabil Bergaran. Neska arduratsua eta oso garbia. 500 euro ordaintzeko prest. Niretako bakarrik izango litzateke. 684 14 95 54

Oñati. Oñatiko bikote bat gara eta etxebizitza errentan hartu nahiko genuke. Interesatuok deitu telefono hauetara: 677 62 09 09 edo 606 15 11 47

### 2. GARAJEAK

**204.ERRENTAN HARTU**

Oñati. Garaje itxia behar dut Oñatin. 656 71 04 11

### 3. LOKALAK

**303. ERRENTAN EMAN**

Bergara. Aitziturri industrialgunean, 500 metro koadroko pabiloia ematen da errentan. Bulegoa eta aldagelak. Bide nagusietarako sarrera irteera ezin hobeak. 687 73 33 90 (Miguel)

### 4. LANA

**401. ESKAINTZAK**

Aretxabaleta. Etxeko lanak egin eta adindun pertsonari laguntzeko pertsona behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 71 46 26 (Ane)

Bergara. Emakume bat behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko; etxean bertan bizitzen, astean zehar. Telefonoa: 607 54 07 72

**402. ESKAERAK**

Arrasate edo Aretxabaleta. Emakumea goizetan edo asteburuetan lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta lagundu, etxeko lanak egin eta abarretarako. 645 43 33 21 edo 652 58 41 99

Bergara. 28 urteko neska lanerako prest. Bai etxeak garbitzen, bai umeak edota nagusiak zaintzen ere. Esperientziaduna eta arduratsua. Euskalduna. 628 92 40 53 edo 943 76 25 85

Debagoiena. 28 urteko neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak. 656 35 61 72

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu etxe garbiketan, sukaldean, lisatzen edota nagusiak zaintzen jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak eta esperientzia. 631 86 83 69

Debagoiena. Garbiketan eta orduka ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 603 85 29 91

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxeen garbiketak, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutil arduratsua garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko gertu. Baserrietan ere bai. 662 02 45 80

Debagoiena. Mutil gaztea gertu 10:00etatik 15:30ak arte nagusiak zaindu edota laguntzeko. Telefonoa: 681 12 06 45

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan, lisatzen eta etxeko lanetan jarduteko gertu nago. Baita orduka ere. Autoa daukat. Telefonoa: 678 13 59 14

Debagoiena. Neska arduratsu, esperientziarekin, nagusi eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten, orduka zein asteburuetan. Telefonoa: 667 35 72 77

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 612 20 77 57

Debagoiena. Soziosanitario titulua duen mutila pertsonak zaintzeko gertu. Berehala hasteko prest. 634 94 31 59

Debagoiena. Umeak zaintzen, fabrikan edo dendan lan egingo nuke. 656 79 28 37

Debagoiena. Zaintza lanak, garbiketak eta abarrak egiteko gertu nago. Erreferentziak ditut. Telefonoa: 612 57 53 58

Neska euskalduna. Bergaran edo inguruenean haurrak zaintzeko eta etxeak garbitzeko lan bila nabil. Neska euskalduna naiz eta bi arlo horietan esperientzia dut. Telefonoa: 684 14 95 54

Oñati. Emakume euskalduna gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Telefonoa: 627 18 04 35

### 8. DENETARIK


**LAN POLTSA**

**IGERIKETA MONITOREEN LAN POLTSA**

**SOROSLEEN LAN POLTSA**

**PINTOREEN LAN POLTSA**

**Izena emateko epea:** martxoaren 24tik apirilaren 13ra arte (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke: www.arrasate.eus.

ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN — Pertsonal Saila



KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Matxiategi, 117 m², 5 logela, igogailua, trastelekua. 235.000€.
- Zubiaurre, 120 m², duplexa, 4 logela, igogailua. 120.000€.
- Ibarra (Lobegaraieta) 59 m², 3 logela, trastelekua. 78.000€.
- Masterreka, 66 m², 2 gela, terrazarekin, bizitzera sartzeko. 115.000€€
- San Antonio, 69 m², 2 gela, igogailua, trastelekua, garajea. Bizitzera sartzeko 150.000€.
- Kruz Gallastegi, 65 m², 2 gela, igogailua, trastelekua. Bizitzera sartzeko. 185.000€.
- Eskusarte, 70 m², 2 gela, trastelekua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 132.859€.
- Irizar, 97 m², 3 gela, bizitzera sartzeko. 297.000€. Garajea aukeran.
- Artekale, 180 m² duplexa. 4 gela, igogailua. Bizitzera sartzeko. 373.500€.
- Baserria terrenoekin Agirre San Martin Auzoan. Kokapen ona. Kontsultatu prezioa.
- Aranerreka, 89 m², 3 gela, trastelekua, igogailua. 180.000€. Garajea aukeran.
- Masterreka, 108 m², 4 gela, trastelekua, terrenoa. Bizitzera sartzeko. 150.000€.
- Basarte, 70 m², 3 gela, eguzkitsua, bista ederrak. Garaje itxia aukeran. 135.000€.
- Martoko, 75 m², 3 gela, igogailua, eguzkitsua, berritzeko. Garaje itxia barne. 90.000€.
- Martoko, 77 m², igogailua, teilatua eta fatxada berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€.
- Irizar, 93 m², 3 gela, igogailua, balkoi handia. Berritzeko. 180.000€.
- Simon Arrieta, 79 m², 2 gela, igogailua, bizitzera sartzeko. 142.000€.
- Matxiategi, 90 m², 4 logela, terraza ganbaran. Igogailua. 190.000€.
- Simon Arrieta, 81 m², 2 log, igogailua. Garajea aukeran. 240.000€.
- Masterreka, 100 m², 2 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 185.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Eguzkitsua. 135.000€.
- Martzial Agirre (Espoloia), 84 m², 4 log. garajea barne. 208.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 160.000€.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€.
- Zubieta, 70 m², 3 logela. Bizitzera sartzeko. 127.000€.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzeko. Igogailua du. 92.000€.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 80.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimena. 250.000€.

**OSINTXU:**
- Osintxu, 87 m², 3 logela, igogailua. 90.000€.
- Osintxu, 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA ONA.
- Osintxu, 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA ONA.
- Osintxu, 63 m². 3 logela, trastelekua. Berritzeko. Bista onak. 80.000€.

**UBERA:**
- Baserria eta 15 hektareako lursaila (pinuak eta zelaiak). 340.000€. Prezio jaitsiera.

**ANTZUOLA:**
- Antigua, 71 m², 3 logela, Ez du obra beharrik, trastelekua. 80.000€.
- Errekalde, 70 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 125.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 170.000€.
- Errekalde, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera ona. 90.000€.
- Buztin zuri, 65 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 180.000€.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- San Roke, 72 m², 3 logela, igogailua. 174.300€.



ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

**Aranzadi Ikastolak zuzendaria behar du.**

Baloratuko da:
- Ikuspegi estrategikoa
- Sormena
- Ekintzailea izatea
- Pertsonen kudeaketa

Interesatuok bidali curriculumak *bergara@ikastola.eus* helbidera (Gaia: Zuzendaria), zintzilikatu web orrian edo bertako idazkaritzan utzi, apirilaren 11rako.


IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

**SAILKATUAK**
- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen

## ESKER ONA



# Ekain Ferreira Tejero

2018ko martxoaren 16an hil zen, 4 urte

Bostok beti elkarrekin.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an.

## ESKER ONA



# Eugenio Arkauz Eraña

su Arkauz euskal preso politikoaren a

2018ko martxoaren 17an hil zen, 91 urte zituela.

Eugenioren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiari babesa azaldu zioten eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

—

Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an.

## ESKER ONA



# Andresa Bengoa Jainaga

Etxague baserrikoa
Benito Pildainen alarguna

2018ko martxoaren 17an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko martxoaren 23an.

## ESKER ONA



# Encarna Mediavilla

2018ko martxoaren 18an hil zen, 86 urte

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an.

**OROIGARRIA**

## Ekain Ferreira Tejero



Ikastolako ikaslea

2018ko martxoaren 16an hil zen, 4 urte

Ekain maitia,
kotxezale eta
marrazkilaria,
laguntxoekin saltsero
eta batzuetan lotsatia,
Umezaintzakoon

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2018ko martxoaren 23an.

---

**URTEURRENA**

## Martin Garai Iturbe



2017ko apirilaren 3an hil zen, 68 urte zituela.

Urteurreneko meza apirilaren 7an, zapatua, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Urtebete pasa da joan zinenetik ustekabean, eta zu gabe kostatzen ari zaigu aurrera egitea. Baina zure maitasun eta indarra sentitzen dugu gure barnean eta horrek aguntzen gaitu eguneroko eginkizunetan. Zaude ziur gure bihotzetan eta pentsamenduetan

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

**3. URTEURRENA**

## Maria Asun Urizar Cillaurren



2015eko martxoaren 24an hil zen.

Gogoan zaitugu, Asun.
Zure familia eta lagunen partez, laster arte.
Sasi guztien gainetik!

Eskoriatzan, 2018ko martxoaren 23an.

---

**OROIGARRIA**

## Eugenio Arkauz Eraña



su Arkauz euskal preso politikoaren a

2018ko martxoaren 17an hil zen, 91 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Enkarteladako lagunak.
Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an.

---

**URTEURRENA**

## Jesus Mari Elkoroberezibar Odriozola



2017ko martxoaren 15ean hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza apirilaren 8an, domeka, izango da, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

**URTEURRENA**

## Felisa Agirrezabal Ondarra



Francisco Cabiecesen alarguna

2017ko martxoaren 25ean hil zen, 97 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 25ean, 12:00etan, Osintxuko elizan.

—

Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

**OROIGARRIA**

## Luis Etxebarriarteun Okaranza



2018ko martxoaren 19an hil zen, 74 urte

Bidelagun izan zaitugu urte luzeetan, eta erronka desberdinen aurrean zure ekarpena beti izan da preziatua. Euskal Herri aske baten alde egindakoagatik eskerrik sakonenak eman nahi dizkizugu.

Arrasateko Eusko Alkartasuna.
Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an.

---

**URTEURRENA**

## Juana Ibabe Otxoa



Gregorio Zumalderen alarguna

2017ko martxoaren 20an hil zen, 91 urte.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, 2018ko martxoaren 24an, 19:00etan, izango da Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

**URTEURRENA**

## Andres M. Irizar Aranburu



(Irizar okindegia)

2017ko martxoaren 25ean hil zen, 78 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Eliza Nagusian.

Joandako urek ez omen dute
inoiz errota mugitzen
guk badakigu, ordea, nola
hau ez den beti betetzen
zure maitasun, oroitzapenak
gugan direnez gelditzen
gure bizitzetako errota
segiko duzu bultzatzen.

Aldez aurretik, eskerrik asko bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2018ko martxoaren 23an.

---

**ESKER ONA**

## Carmen Viciola Velasco



Agustin Linazisororen alarguna

2018ko martxoaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko martxoaren 23an.

---

**OROIGARRIA**

## Jabier Kortabarria Aranburu



2018ko martxoaren 21ean hil zen.

Bihotzez, zure lagunak.

Bergaran, 2018ko martxoaren 23an.

---

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

*Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA*

## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6



7

**1. Mintzalagunak, Bedoñan**
30 bat lagunek Bedoña auzoko aztarnategia eta Artazubiaga baserriko Otxia txakolina ezagutu zituzten aurreko domekan. Hilero egiten dituzte kanpoko ekintzak.

**2. Karapaixoak egiten**
Martxoko Arrasateko baserritarren azokan karapaixoa izan zen protagonista. Tailerrean adin askotariko herritarrek parte hartu zuten Garizuman ohiko den jakia egiteko.

**3. Arcada Socialekoen babesa**
Minbiziaren kontrako borroka irabazi duen Xabier Azkargorta bergarararrak Arcada Social taldekoen babesa jaso du. Arrasateko taldearen jarraitzailea da Azkargorta.

**4. Panticosa aldean, eski gainean**
Aloña Mendiko mendi sailak eski-zeharkaldia egin zuen aurreko aste bukaeran. Zortzikote bat Panticosa inguruan ibili zen hango elurraz gozatzen.

**5. Arizmendiko abesbatzak**
Ikastolako abesbatza ezberdinek emanaldi bateratua egin zuten aurreko aste bukaeran. Kantuan eta dantzan egin zuten, gurasoen eta lagunen gozamenerako.

**6. Arkeologoak, Oñatin**
Zibilizazio ezberdinak irudikatu zituzten Ganbara Kantu Eskolakoek: momiak, erromatarrak, greziarrak, egiptoarrak eta txinatarrak, besteak beste.

**7. 25 urte ezkonduta**
Josune Azula eta Iñigo Alberdi bergararrek zilarrezko ezteiak beteko dituzte apirilaren 3an. Kuadrillako lagunek eurekin gogoratu dira: "Zorionak guztion partez!".

### Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

### OÑATIKO MARTXOKO OSOKO BILKURA

***'Osoko bilkura'*** *Zapatua 19:00/ Domeka: 22:00*



GOIENA

### IKASLE GAZTEAK, JOSE LUIS KORTAREKIN

***'Galdegazte'*** *Eguaztena: 21:30/ Egubakoitza: 23:00*

**EGUBAKOITZA, 23**

**10:00** Hemen Debagoiena
**11:00** Onein
**11:30** Hemen Debagoiena
**12:30** Hurretik: Pili Gartzia
**13:00** Kantari 14
**13:30** Hemen Debagoiena
**14:30** Albisteak
**14:45** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**15:15** Hemen Debagoiena
**16:15** Albisteak
**16:30** Onein
**17:00** Albisteak
**17:15** Amaia DJ
**17:45** Albisteak
**18:00** Hemen Debagoiena
**19:00** Kantari 13
**19:30** Barru: Debagoieneko eskalatzaile taldea
**20:00** Hemen Debagoiena
**21:00** Elikatu
**21:30** Amaia DJ
**22:00** Hemen Debagoiena
**23:00** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**23:30** Amaia DJ

**ZAPATUA, 24**

**09:00** 1 2 3 Hemen da miru
**09:30** Kantari 16
**10:00** Kantari 15
**10:30** 1 2 3 Hemen da miru
**11:00** Hemen Debagoiena
**12:00** Harira: Oñati
**13:00** Adi! Iskanbila: Vendetta
**13:30** Hurretik: Pili Gartzia
**14:00** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**14:30** Barru: Debagoieneko eskalatzaile taldea
**15:00** Hemen Debagoiena
**16:00** Kulturrizketak: Gaztañaga eta Garmendia
**16:30** Kantari 16
**17:00** Kantari 15
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**18:30** Elikatu
**19:00** Osoko bilkura: Oñati
**20:00** Kantari 15
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Harira: Oñati
**22:00** Hemen Debagoiena
**23:00** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga

**DOMEKA, 25**

**09:00** 1 2 3 Hemen da miru
**09:30** Kantari 15
**10:00** Kantari 16
**10:30** 1 2 3 Hemen da miru
**11:00** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Astearen errepasoa
**13:00** Hemen Debagoiena
**14:00** Elikatu
**14:30** Kulturrizketak: Gaztañaga eta Garmendia
**15:00** Adi! Iskanbila: Vendetta
**15:30** Galdegazte: Agurtzane Elorriaga
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Kantari 15
**17:00** Kantari 16
**17:30** Hemen Debagoiena
**18:30** Barru: Debagoieneko eskalatzaile taldea
**19:00** Harira: Oñati
**20:00** Kantari 16
**20:30** Barru: Debagoieneko eskalatzaile taldea
**21:00** Hurretik: Pili Gartzia
**21:30** Kulturrizketak: Gaztañaga eta Garmendia

**ASTE BUKAERAN**

### OÑATIKO GAZTEAK KANTUAN ETA DANTZAN

***'Kantari'***

*Zapatua eta domeka: 09:30/16:30*

**ASTELEHENA, 26**

### GORLAKO ZIKLISMO IGOERARI ERREPASOA

***'Harmailatik'***

*21:30/23:30*

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/telebista*** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

**MARTITZENA, 27**


GOIENA

### ARETXABALETAKO POLITIKARIAK

***'Harira'***

*21:00/23:30*

**EGUAZTENA, 28**

### LOTX PAILAZOA GERTUTIK EZAGUTZEN

***'Hurretik'***

*21:00/23:00*

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Katrin Lazkano Kortabarria**
Apirilaren 11n, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat familixa danaren partetik!



OÑATI
**Auritz Gorosabel Urrutia**
Apirilaren 6an, 8 urte. Zorionak, Auritz! Patxo handi bat, etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
**Lander Urkia Lezeta**
Apirilaren 2an, 6 urte. Zorionak, Lander! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna, Koruetako familiaren eta Beltzen partetik. Muxu handi bat!



ANTZUOLA
**Noa Iturbe Gabiria**
Apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, printzesa, Maddiren eta etxeko guztion partetik. Egun ona pasatu. Muxu potolo bat!



BERGARA
**Haitz Alberdi Lasagabaster**
Apirilaren 1ean, 9 urte. Zorionak etxekoen partetik. Ondo-ondo ospatu!



ARRASATE
**Ihabar Nalda Gonzalez**
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak, mutil handi! Asko maite zaitugu. Uxue, aitatxo eta amatxo eta baserriko danok.



ARRASATE
**Intza Altzua Azkarate eta Iradi Azkarate Zubillaga**
Intzak urtarrilean bete zituen 7 urte eta Iradik martxoaren 29an beteko ditu 6. Zorionak, printzesak, etxekoen partetik!



OÑATI
**Aimar Elorza San Miguel**
Martxoaren 28an, 10 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetzian. Besarkada eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Irati Hernandez Iturbe**
Martxoaren 27an, 13 urte. Zorionak, maittia, urte askotarako. Ongi pasatu zure eguna. Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Maialen Maillaut**
Martxoaren 24an, 9 urte. Zorionak etxeko guztien partetik!



OÑATI
**Danel Urrutia Garcia de Albeniz**
Martxoaren 24an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Kenar Da Silva Moreno**
Martxoaren 23an, 7 urte. Zorionak, maittia! Segi beti bezain alai eta jator. Espero dogu egun polita pasatzea. Pila bat maite zaitugu, batez ere Alainek.



BERGARA
**Elene Rodriguez Lazkano**
Martxoaren 23an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Primeran pasatu eguna. Muxuak familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
**Paule Otxandategi Lasagabaster**
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak, Paule! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Besarkada potolo bat eta patxo pilo bat, danon partetik!



BERGARA
**Uxue Iriondo Igarza**
Martxoaren 22an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Irati Zuatzubiskar Zuazua**
Martxoaren 22an, 5 urte. Amatxoren, Enaitzen eta aitatxoren partetik, zorionak eta patxo handi bat.



ARRASATE
**Maite Fuentes Jorge**
Martxoaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik.



OÑATI
**Bittor Altube Zabarte**
Martxoaren 21ean, 78 urte. Zorionak, aitta eta aittaitta! Segi beti bezain jator eta alai!



ARETXABALETA
**Maddi Amozarrain Olabarria**
Martxoaren 21an, 6 urte. Zorionak, Maddi! Patxo potolo-potoluak!



ARETXABALETA
**Oxel Urteaga Larrea**
Martxoaren 20an, 8 urte. Zorionak, Oxel! Patxo handi bat!



OÑATI
**Ane Emparanza Judez**
Martxoaren 19an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Jada 6 urte! Patxo handi bat, etxeko danon eta, batipat, Xabiren partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
**Elene Goikoetxea Makazaga**
Martxoaren 19an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Maitane Agiriano Larrion**
Martxoaren 18an, 9 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, familia osoarena eta, bereziki, Ionen partetik.



OÑATI
**Ane Zumalde Agirre**
Martxoaren 17an, 2 urte. Familia osoaren maitasunez, zorionak, sorgintxo.



ARETXABALETA
**Iker Seijo Fernandez**
Martxoaren 16an, 14 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat, etxekoen partetik.



ELGETA
**Amets Agirre Osa**
Martxoaren 15ean. Zorionak, pelotari! Sei urte betetzean beste eskua estreinatu duzu urteak kontatzeko. Muxu pila bat zuretzako, familiaren eta lagunen partetik.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 23

**OÑATI Udalekuak: izen-emate epe bukatu**
Gaur da azken eguna.
*Udal bulegoetan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Euskara lapikoa'**
Oinarrizko euskara eta sukaldaritza bateratzen dituen ikastaroa.
*Artatse elkartean, 11:00etan.*

**DEBAGOIENA Elkartasun krosa**
Baionako Bernat Etxepare lizeoaren alde. Oñatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten 18:00etan, eta Bergaran, 19:00etan.
*Herrietako plaza nagusietan.*

**OÑATI Bingo saioa**
Erretiratuendako.
*Pake Lekun, 17:00etan.*

**OÑATI Arazerixan: azken jaia**
Argazki emanaldia, merienda eta sari banaketa ekitaldia. Ostean, disko festa, Oihan Vegarekin.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**BERGARA Ipuin kontaketa**
Lupe Lekuonaren saioa, umeendako.
*Liburutegian,18:00etan.*

**ARRASATE Aste Santuko kontzertua**
Euskal dantza tradizionalak eta egungo dantzak, Portaloi elkartearekin.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE Aste Santuko kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleak.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI Beratu jaialdia: 'Musik fem' solasaldia**
Emakumeak musikaren industrian duen tokiaz, Lorea Argarate, La Basu, Ines Osinagak eta Amaia Ispizua.
*Kultura etxean,19:00etan.*

**ARRASATE Heroina trafikoa aztergai**
Justo Arriolaren berbaldia, Euskal Herrian 1980ko hamarkadan egondako epidemiari buruz.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**BERGARA Abesbatzen saioa**
Aritzeta, Orfeoia, parrokiako korua eta Sutargi.
*San Pedro parrokian, 19:30ean.*

**OÑATI Beratu jaialdia: Lukiak taldea**
Iparraldeko taldea, debalde.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**BERGARA Erramu Zapatuko bertso jaialdia**
Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Iker Zubeldia eta Unai Agirre. Gai-jartzailea, Ibon Leibar.
*Seminarixoan, 22:00etan.*

**BERGARA Kometa taldea**
*El principio del final* diskoaren aurkezpena egingo du Nafarroako taldeak. Debalde.
*Bule tabernan, 23:00etan.*

## ZAPATUA 24

**OÑATI Beratu jaialdia: 'Ahotsenean elkartuko gara'**
09:30ean musika industrialeko profesionalen topaketa, 16:00etan disko azoka, eta 16:30ean, kontzertu akustikoak
*Eltzian, 09:30ean.*

**ANTZUOLA GPS ikastaroa**
Arrolaren mendi astearen baitan egingo dute.
*Olaranen, 10:00etan.*

**BERGARA Erramu Zapatuko azoka**
Askotariko postuak produktuak erosteko eta dastatzeko.
*Erdiguneko kaleetan, 10:00etan.*

**OÑATI Mendi irteera**
Andraitzera joango dira, Oñatiko Sare Feministaren eskutik.
*Santa Marina plazan, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Uzarragako Igoera**
Junior mailako ziklismo igoera. Irteera Herriko Plazan eta helmuga, Uzarragan.
*Herriko Plazan, 16:00etan.*

**ARRASATE Auzolana**
Erdiguneko gazteguneko gune bat txukunduko dute gazteek.
*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

**ESKORIATZA Kustomizazio tailerra**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Kapoeira ikastaroa**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARAMAIO Zinegoak emanaldia**
*I'm sheriff*, *Sirene*, *Little potato*, *Tarde para el recreo* eta *Princesa de hielo* film laburrak emango dituzte.
*Kultura etxean, 21:00etan.*

**OÑATI Beratu jaialdia: Delorean eta Lumi tadeak**
Sarrerak, hamar euro. Aldez aurretik: *Bibe.me* atarian.
*Gaztelekuan, 22:30ean.*

## DOMEKA 25

**ANTZUOLA Mendi irteera**
Zuhaitzak eta ikatza. Aginak delako ibilaldia egingo dute Arrolarekin. Antzuolako lurretan.
*Olaranen, 09:00etan.*

**BERGARA Gorlako ziklismo igoera**
Lehendakari Txapelketarako puntuagarria den amateur mailako lasterketa.
*San Martin plazan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Ibilaldi bat nanomunduan?' erakusketa**
Maiatzaren 6ra arte ikusgai, eguaztenetik domekara arte.
*Laboratoriumen, 10:00etan.*

**ARRASATE Umeendako doke saioa**
14 urte arteko umeendako.
*Monterronen, 11:00etan.*

**OÑATI Beratu jaialdia: 'Beratu Txiki'**
DJ Makalarekin haurrendako musika eta sormen tailerra. 11:00etan, 6-9 urte artekoendako eta 12:00etan 9-12 urte artekoendako.
*Gaztelekuan.*

**ARETXABALETA Akziozko filma**
Gaztetxoendako ekintza
*Gaztelekuan, 17:30ean.*



KONTAIZU

**OÑATI Beratu jaialdia: Audience taldea**
Beratu Txiki ekimenaren baitan, kontzertu didaktikoa egingo du Gernikako eta Busturiako musikariez osatutako taldeak. 2017an *Isla* izeneko diskoa kaleratu zuten. Horko kantuak ere joko dituzte. Debalde.
*Etzi, domeka, gaztelekuan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA Kustomizazio tailerra**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARRASATE 'Margotutako hormak' erakusketa: azken eguna**
Gaur da Josune Murgoitioren bilduma ikusten azken eguna.
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ARRASATE Txalaparta eta alboka ikastaroa TTakun-ekin**
Gaztetxoendako ekintza.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**BERGARA 'Go!azen 4.0' ikuskizuna**
Izen bereko telesaileko protagonistak taula gainean ikusteko aukera. Ez dago sarrerarik.
*Pilotalekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Zutuberrak' antzezlana**
Euskararen erabileraren gainean gogoeta sorraraztea helburu duen umorezko emanaldia, Jon Zubiagarekin eta Olatz Pagaldairekin.
*Torresoroan, 18:30ean.*

**ELGETA 'Herrixa Dantzan'**
Patxi Monterorekin. Lehen zatian, Marian Arregi gogoan, Argiaren musikarekin dantzatuko dute. Bigarrenean, Shillelagh taldearen *Hemels douwe* diskoa oinarri hartuko dute.
*Espaloian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 26

**ARETXABALETA Gaztekonkis: 'Bidaia misteriotsua'**
Froga ezberdinekin, egun pasa egingo dute DBHko ikasleek.
*Gaztelekuan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Gaztekonkis: 'Bidaia misteriotsua'**
Froga ezberdinekin, egun pasa egingo dute DBHko ikasleek.
*Gaztelekuan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Umeendako jolasak**
6-12 urte artekoendako ekintzak eta jolasak, oporretan daudela aprobetxatuz.
*Ludotekan, 10:00etan.*

**OÑATI Erretiratuen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Ludoteka kalean**
Aste Santuko ekintza bereziak 3-12 urte artekoendako. Eguraldi txarrarekin, azokan.
*Foruen plazan, 16:30ean.*

**BERGARA 'Escalada a la vida' pelikula**
Jordi Salas eskalatzailearen bizipenak kontatzen dituen filma. Josean Mulas aretxabaletarrak egingo du berba ostean, Pol-Polen mendi astean.
*Pol-Polen egoitzan, 19:00etan.*

## MARTITZENA 27

**ARETXABALETA Gaztekonkis: 'Scape room' erraldoia**
Aretxabaletan egingo dute. Bazkaria eta argazki emanaldia ere bai.
*Gaztelekuan, 10:30ean.*

**ESKORIATZA Umeendako jolasak**
6-12 urte artekoendako ekintzak eta jolasak, oporretan daudela aprobetxatuz.
*Ludotekan, 10:00etan.*

**OÑATI Ludoteka kalean**
Aste Santuko ekintza bereziak 3-12 urte artekoendako. Eguraldi txarrarekin, azokan.
*Foruen plazan, 16:30ean.*

**DEBAGOIENA Plastiko bilketa**
Herri bakoitzean zehatutako lekuetan utzi behar dira. Siloa estaltzeko, belar boletako, negutegietako eta ortuetako plastiko beltza eta negutegietako plastiko zuria.
*Aurrez zehaztutako lekuetan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Eredu energetikoa: nora goaz?' berbaldia**
Dani Maeztuk eta Mikel Oterok egingo dute berba, Oñatiko EH Bilduk gonbidatuta. Irekia.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**BERGARA 'Rescate en cuevas y cimas' berbaldia**
Diego Fulantok egingo du berba halako egoeratan erabiltzen den protokoloaz. Pol-Polen mendi asteko azken berbaldia izango da.
*Pol-Polen egoitzan, 19:00etan.*

**BERGARA Ipuin kontaketa, helduendako**
Virginia Imazen saioa.
*Liburutegian, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 28

**ESKORIATZA Umeendako jolasak**
6-12 urte artekoendako ekintzak eta jolasak, oporretan daudela aprobetxatuz.
*Ludotekan, 10:00etan.*

**OÑATI Ludoteka kalean**
Aste Santuko ekintza bereziak 3-12 urte artekoendako. Eguraldi txarrarekin, azokan.
*Foruen plazan, 16:30ean.*

**ARETXABALETA Frontenis txapelketa**
11-17 urte arteko gazteendako txapelketa izango da. Bukaeran, afari-merienda egingo dute elkarrekin.
*Iturrigorri frontoian, 17:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Garaiko produktuak eta herriko baserritarrenak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**BERGARA 'En cuerpo y alma' pelikula**
Ildiko Enyediren drama, 12 urtetik gorakoendako. Sarrerak, hiru euro.
*Zabalotegin, 20:00etan.*

## EGUENA 29

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Bi egingo dituzte egunero: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena 943-78 34 53 telefonoan.
*Turismo bulegoan.*

**OÑATI Txokolateixa ezagutzen**
Bisita gidatua, 12:00etan. Aurrez eman behar da izena 605-76 35 95 telefonoan.
*Txokolateixan.*

**BERGARA Jose Luis Azkarateren erakusketa**
Gaur inauguratuko dute pintura bilduma. Ikusgai egongo da apirilaren 15era arte.
*Aroztegin.*

## EGUBAKOITZA 30

**OÑATI Bisita gidatuak Arantzazun**
Santutegia ikusteko (943-71 89 11) eta Arantzazu Parketxea (943-78 28 94) ezagutzeko aukera dago. Lehena ikusteko: 11:30, 12:30, 13:30, 16:00 eta 17:00. Bigarrenerako: 11:00.
*Arantzazun.*

## ZINEMA

### ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**El cuaderno de Sara**
Astelehena: 20:30.

### BERGARA

ZABALOTEGI

**La llamada**
Domeka: 19:30.

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**La forma del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.

**El reino de las ranas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

ARKUPE

**La forma del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 16:00.

**Oihaneko kuadrilla (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

GORBEIA

**Tomb Raider**
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 17:30, 22:30.

**The black panther**
Zapatutik eguaztenera: 11:45. Egunero: 17:00.

**Cavernicola**
Zapatutik eguaztenera: 12:15.

**Un pliegue en el tiempo**
Egunero: 16:30.

**El aviso**
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 18:30, 20:30, 22:30. Martitzena: 18:30, 20:30.

**Pacific rim**
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 20:00, 22:30.

**El hijo de Bigfoot**
Zapatutik eguaztenera: 12:15.

**La tribu**
Egunero: 16:30, 20:30, 22:30.

**Sin rodeos**
Egunero: 18:30. Egubakoitza: 22:30. Zapatutik eguaztenera: 16:00, 20:00, 22:00.

**Ferdinand**
Zapatutik eguaztenera: 12:15.

**Errementari**
Zapatutik eguaztenera: 12:00, 18:00. Egunero: 20:30.

**Coco**
Zapatutik eguaztenera: 12:15.

**Yo, Tonya**
Egunero: 17:30, 22:30.

**Jumanji**
Zapatutik eguaztenera: 12:15.

**Peter Rabbit**
Egunero: 17:50, 20:30.

**Gorrion rojo**
Egunero: 19:45, 22:00.

**La abeja Maya**
Zapatutik eguaztenera: 12:00.

**La forma del agua**
Egunero: 17:50.

**Tres anuncios en la afueras**
Egunero: 22:30.

**Mazinger Z**
Zapatutik eguaztenera: 12:00.

**Thelma**
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 20:00, 22:30.

**Loving Pablo**
Egunero: 22:30.

BOULEVARD

**El aviso**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30. Martitzena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Pacific Rim**
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45. Astelehena, eguaztena eta eguena: 18:05, 20:25, 22:45. Martitzena: 18:05, 22:45.

**Peter Rabbit**
Egunero: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.

**Tomb Raider**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:15, 18:45, 21:15, 22:15, 23:45. Martitzena: 16:15, 18:45.

**Sin rodeos**
Egunero: 19:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La tribu**
Egunero: 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Un pliegue en el tiempo**
Egunaero: 16:00, 18:20.

**Loving Pablo**
Egunero, zapatua eta martitzena izan ezik: 19:45. Martitzena: 22:15. Zapatua: 21:45.

**El cuaderno de Sara**
E Egunero, zapatua eta martitzena izan ezik: 22:20.

**Errementari**
Egunero: 20:40.

**La forma del agua**
Egunero: 18:45.

**Gorrion rojo**
Egunero: 15:45, 18:35, 21:25, 00:15.

**Black panther**
Egunero: 21:15.

**Winchester**
Egunero: 20:25, 22:25, 00:25.

**Coco**
Astelehenetik eguenera: 16:00.

**Ferdinand**
Egubakoitzetik domekara: 16:00.

**Maria Magdalena**
Egunero: 18:05.

**Una familia feliz**
Egunero: 16:45.

**El hijo de Bigfoot**
Egunero, zapatua izan ezik: 15:45, 17:45. Zapatua: 15:45, 17:45, 19:45.

**50 sombras liberadas**
Egubakoitza eta zapatua: 23:15.

**Cavernicola**
Egunero: 16:30.

FLORIDA

**La tribu**
Egunero, martitzena izan ezik: 20:20, 22:30. Egunero: 16:20, 18:10.

**Sin rodeos**
Egunero: 22:30.

**Pacific rim**
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 17:30, 22:30.

**Errementari**
Egunero, martitzena izan ezik: 18:30.

**Thelma**
Egunero: 19:45, 22:30.

**Cavernicola (euskaraz)**
Zapatutik eguaztenera: 12:00.

### EIBAR

COLISEO

**La tribu**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00.

**Yo, Tonya**
Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**El hijo de Bigfoot**
Zapatua: 17:00.

**El cuento de invierno**
Zapatua: 19:00.

**Todo el dinero del mundo**
Zapatua: 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Oin Handiren semea**
Domeka: 17:00.

**La tribu**
Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

## KRITIKA

**El insulto** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Ziad Doueiri. **Herr.:** Libano (2017). **Aktoreak:** Adel Karam, Kamel El Basha, Camille Salameh.

# Sendatu gabeko zauriak

**ANTONIO ZABALA**

*El insulto* pelikulan, bi gizonen arteko garrantzi gabeko liskar batek, gizartearen egonkortasuna arriskuan jartzen du. Bi burugogorren arteko norgehiagokak epaitegian bukatuko du. Hortik, beste epaiketa guztiz mediatikoa sortzen da. Istorioa Libanon gertatzen da. Bata, kristau talde politikoaren jarraitzailea da; eta bestearen jatorria Palestina da. Bi pertsonen arteko liskar txikia, bi taldeen jarraitzaileen arteko liskar kezkagarria bihurtuko da. Epaiketan, bien abokatuek, azpian dauden zauriak, eta ezkutuko datuak kaleratuko dituzte, euren bezeroen interesak babestu nahian.

*El insulto*-n Ziad Doueirik azaltzen du herri baten zauriak sendatzen ez direnean eta bizikidetasun izpiritu bat sortzen ez denean, gauzak ez direla konpontzen.

Istorioa aurrera doan neurrian, jarraitzaileen portaerak gero eta sutsuagoak izango dira, eta bi pertsonaien arteko harremanak, aldiz, gero eta gertuagokoak. Istilu guztien atzetik pertsonak daudela ikusiko dugu. Eta, agian, pentsatzen duguna baino elkarren arteko antz handiagoa dugu guztiok.

Filma interesgarria izanda ere, ez dago ondo itxita. Ondo islatzen da egoeraren giro kutsakorra eta egoerak duen alde zentzugabea; baina, bi pertsonaien arteko hurbilera ez da sinesgarria. Ez da erabatekoa. Zuzendariak badaki nora heldu nahi duen baina trebetasun pixka bat falta zaio helburua lortzera heldu arte. Bidean geratzen da.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



AZKEN BERBA



IDOIA ETXEBERRIA

## Alez ale

Hondarra desagertzeko arriskuan egon daitekeela. Hori irakurri dut. Seko harritu nau: petrolioa bale, baina hondarra? Ba bai. Herrialde pobretu batzuetan, hondartzak eta itsas hondoa hondar gabe geratzen ari ei dira. Eta ez modu naturalean. Lapurtu egiten dute, saltzeko.

Hondartzako lapurren berri baneukan, baina uretan zauden bitartean motxila eramaten dizutenak. Ez hauek. Hauek hondar lapurrak dira. Debekatuta baitago hondarra hartzea. Turismoaren begietatik aparte dauden tokietan dabiltza. Afrikan eta Karibe uharteetan batez ere. Herritar pobreen lana da.

Mafiak sortu dira itsas hondarraren bueltan (basamortuko hondarrak ez omen du balio: finegia da). Bereziki eraikuntzarako erabiltzen da. Etxeak eta autobideak egiteko. Baina baita beste hainbat gauzatarako ere: Fracking-erako, esaterako. Edo aberatsentzat uharte artifizialak sortzeko, Dubain. Eta hemen ere hormigoia eta asfaltoa edonon ditugu. Aurrerapenaren izenean.

Zer egin dezakegu guk horren kontra? Ez dakit oso ondo. Baina bai nork bere aletxoa jartzea inportantea dela. Hondar ale bakar batek begian min handia egin dezake.

BUKATZEKO









**Kepa Errasti, Andoni Imaz lan-taldearekin, eta Maialen Sorzabalbere eta Amaia Rojo.** NEXT STATION LEHIAKETA

# Hiru proiektu lehian websailen laborategian

Kepa Errastik, Andoni Imazek, eta Maialen Sorzabalberek eta Amaia Rojok aurkeztu dituzten websailen proiektuak aukeratu dituzte Next Station plataformarako; irabazleek, errendimenduko egoitza artistikoa egingo dute Bilbon, astelehenetik eguaztenera

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Media Attack, Develop Hub eta JOK ekoiztetxeek bultzatutako proiektua da Next Station. Euskadin, ikus-entzunezko sektorea bultzatzeko indarrak batuta, Euskaltelek, EITB-k, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek diruz lagundu dute; eta, hain zuzen, Goienak eta Mondragon Unibertsitateak diseinatutako 2deo laborategiaren baitan kokatu du proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Hiru finalisten artean proiektu bat aukeratuko dute lehiaketako irabazleek datorren astean Bilboko BBFn –Bizkaiako Berrikuntza Faktoria–, aditukin elkarlanean egingo duten goi errendimenduko egoitza artistikoan. Donostiako Tabakalera eraikinean, 2deo laborategiaren babesean, garatuko dute gero, proiektu irabazlea.

NEXT STATION

**Lehiaketaren logotipoa.** NEXT STATION

### Berrogeita hamar proiektu

Aditu talde batek eta sare sozialen bitartez ikus-entzuleek eman dituzten botoek erabaki dute euskaraz eta puntako teknologia –4K ultradefinizioa– erabiliz egingo den lehenengo sail digitala grabatzeko ideia onenak Maialen Sorzabalberek eta Amaia Rojok, Andoni Imazek eta Kepa Errastik proposatu dituztenak direla. Seme edo alaba bat izan nahi duten zortzi pertsonaien –lau bikoteren– istorioa da, Errastirena. "Kamerak hiru egoeratan jarraitzen die: erditze aurreko eskoletan, banakako elkarrizketetan eta kamera ezkutu moduan. Umore beltzera hurbiltzen den umore sarkastikoa du", dio egileak.

Saria ustekabean hartu duela dio Aretxabaletakoak: "Aspalditik nuen websail bat egiteko ideia, banuen zerbait idatzita baina nire kabuz egiteko zaila iruditzen zitzaidan; eta lehiaketa zegoela ikusi nuenean, apurtxo bat landu, bidali, eta ez nion gero buelta gehiagorik eman deitu zidaten arte. Pozik nago, baina, era berean, arduratuta, dena berria delako niretzako; hala ere, gauza berriak ikasteko gogotsu nago".

Maialen Sorzabalbere eta Amaia Rojo donostiarren websailaren ideia, berriz, "aniztasunak eskaintzen duen aberastasuna erakustea" dela diote ekimenaren bultzatzaileek; eta, "koman dauden lau gaixoren eta euren familien artean ezartzen diren harremanen bitartez kontatzen dutela". Suspensea, umorea eta drama uztartzen ditu.

Zumarragako Andoni Imazek aurkeztu duen proiektua, ordea, "gazte euskaltzaleentzat dagoela pentsatuta", azaldu dute lehiaketako arduradunek. "Errealitatearen eta fikzioaren artean, musika taldea osatu nahi duten unibertsitateko bi adiskideren gorabeherak kontatzen ditu".

GALDEGAZTE
GOIENA TELEBISTA
MARTXOAREN 28AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN
MARTXOAREN 30EAN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN
GONBIDATUA: JOSE LUIS KORTA
JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUTA ETA ARETXABALETAKO KURTZEBARRI ESKOLAKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE LANETAN
BABESLEA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
LAGUNTZAILEAK: DEBAGOIENEKO IKASTETXEAK
goiena Zu hemen zaude.

